bultzatu 2050

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK

11 BAKEA, JUSTIZIA ETA ERAKUNDE SENDOAK

2022

Euskadiko Hiri Agenda - Lehenengo jarraipen-txostena

bultzatu 2050

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

Euskadiko Hiri Agenda

Lehenengo jarraipen-txostena

bultzatu 2050

EUSKO JAURLARITZA - ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

PROIEKTUA: BULTZATU 2050 EUSKADIKO HIRI AGENDA, BULTZATU 2050
ARGITALPENA: EUSKADIKO HIRI AGENDA - LEHENENGO JARRAIPEN-TXOSTENA

LANTALDEA:

Miguel de los Toyos. Lurralde Plangintza eta Hiri Agendaren sailburuordea, Eusko Jaurlaritza
Ignacio de la Puerta Rueda. Lurralde Plangintza eta Hiri Agendaren zuzendaria, Eusko Jaurlaritza
Carmen Sánchez-Miranda. Espainiako Bulegoaren zuzendaria, ONU-Hábitat
Gonzalo Lacurcia. -ONU-Hábitat Espainia
Andoni Hidalgo. Euroiker
Itziar Fernández eta María López. EDE Fundazioa

Kanpoko laguntzaileak:

Alex Carrascosa. EDE Fundazioa
Roberto San Salvador del Valle. Deusto Cities Lab Cátedra
Jon Ansoleaga. Eraikune
Olga Martín. Aclima
Rufino Hernández eta Olatz Grijalba. CAVIAR / UPV-EHU

Eskerrak:

EUDEL eta Joseba Egia (Laguntza teknikoa)
Rafael López-Arostegui. Gizarte Politiketako aholkularia, EAEko
Natalia Díaz de Arcaya eta Oscar Puche. EEE

Aurkibidea

JARRAIPEN TXOSTENAREN AURKEZPENA — **4**

1. BULTZATU 2050: AURREKARIAK, ESPARRU OPERATIBOA ETA GARAPENA — **7**
1.1 Hasierako premisa: “Lurralde Agenda” eta integratzailea — 7
1.2 Lantze-prozesua eta lehentasunak — 9
1.2.1 Bultzatu 2050ren garapena: Hiri Agenda Lantaldea (HALT)
1.2.2 HALTen helburuak
1.2.3 Partaideak
1.2.4 Lan-ildoak
1.2.5 Nazioarteko ekintzak
1.3 Jarraitu beharreko bidea eta jarraipen txostena — 20

2. PROIEKTU ERALDATZAILEAK: IKUSPEGI PRAGMATIKOA — **23**
2.1 Sarrera — 23
2.2 Proiektuak aukeratzeko prozesua — 25
2.2.1 Zein esku-hartze esparruak?
2.2.2 Zein prozesuk jarraitu proiektuak aukeratzeko? Sei galdera nagusiei erantzunak
2.2.3 Nola erantzuten diote proiektuek Bultzatu 2050ri? Proiektuen eremu operatiboen eta Hiri Agendako Lehentasun Estrategikoen arteko kontrastea
2.2.4 Zer proiektu-mota? Proiektuen ezaugarrien dekalogoa
2.3 Aukeratutako 8 proiektuak: Fitxa analitikoak — 31

3. ADIERAZLEAK: EMANDAKO PAUSOEN NEURKETA IKUSPEGI INTEGRAL BETETIK — **49**
3.1. Aurrekariak: Abiapuntutik gaur egungo adierazleen proposamenera — 49
3.1.1 Euskadiko Hiri Agenda eta eskala globaleko hiri-esparruaren arteko lotura
3.1.2 Monitorizazio-esparruaren ekoitzpena Euskadin eskuragarri dauden datuetara
3.1.3 Bultzatu 2050eko adierazleen kokapena Nazio Batuen eta Europar Batasunaren jomugetan
3.2 Jarraipen-txostenaren adierazleen proposamena (ikus fitxak eranskinean) — 55

4. KANPOKO EKARPENAK — **65**
4.1 Gizarte esparrua — 65
4.2 Ingurumen esparrua — 67
4.3 Ekonomia eta lehiakortasun esparrua — 70
4.4 Gobernantza esparrua — 72
4.5 Ezagutza esparrua — 75

5. ANEXO: FICHAS DE INDICADORES — **79**

Jarraipen Txostenaren aurkezpena

Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agenda onartu zenean, 2019an, sinetsita geunden Euskadiko politika publikoek hiri-garapen jasangarriei lehentasuna eman behar zietela. Eta ordudanik gertatutakoek uste hori indartu dute. Izan ere, egoera larriei egin behar izan diegu aurre. Gure etxeetan bakartu gintuen eta auzoek bizikidetza-unitate gisa duten balioa handitzea eragin duen pandemia bati. Europako gure mugetan piztu den gerra bati, zeinak funtsezko balioek, bizikidetzak, adibidez, zenbateko garrantzia duten gogorarazi baitigu. Eta kanpoko mendetasunen aurrean zeinen kalteberak garen eta gure baliabidek ongi aprobetxatzeak zenbateko garrantzia duen gogorarazi digun energia-, ekonomia- eta horniketa-krisi bati.

Erronka horiek gutxi balira bezala, aspaldidanik gure mehatxu orokor nagusia dela badakigun arazo bati aurre egiten jarraitzen dugu: klima aldaketari, hain zuzen ere. Klima-aldaketa heldu da, eta, haren aurrean, presazko neurriak hartu besterik ez dugu, berehalako eragin kaltegarriei egokitzeko eta, ahal dugun neurrian, eragin horiek ez gaizkiagotzeko.

Nola erantzun, ordea, erronka horiei gure hirietatik? Ziur gaude ikuspegi sistemiko eta osoa izatea dela bide egokia. Ikuspegi horrek ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-jarduerak bildu eta batzeaz gain, epe luzeko estrategia sendoak eta epe motzeko proiektu zehatzak konbinatu behar ditu. Bultzatu 2050ek premia bikoitz horri erantzuten dio, konbinatzen baititu ikuspegi estrategikoa (aipatu dugun osotasun hori aintzat hartzen duten 8 lehentasunen bitartez) eta auzoetan bertan aurrerapen garrantzitsuak eragiten dituzten proiektu zehatzak.

Horrez gain, Euskadiko Hiri Agenda Eusko Jaurlaritzak Euskadi jasangarria, oparoa eta kohesionatua izan dadin lortzeko sustatu dituen eta bultzatzen dituen politiken esparru zabalean kokatu behar da, modu koherentean. Alde horretatik, 2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) ezartzeko euskal estrategian Bultzatu 2050 integratu zenekoa gogoangarria izan zen, hiriak eta giza kokalekuak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izan daitezen lortzea (11. GJHak dio hori) ezinbestekoa baita Agenda Orokorra kokatzeko prozesuan (txosten honetan ikusiko dugun moduan).

Txosten honetan modu didaktiko eta komunikatiboan azaldu ditugu Bultzatu 2050 onartu zenetik gaur egun arte egindako aurrerapausoak. Izan ere, Eragile Anitzeko Foroko Hiri Agenda Lantaldean askotariko gizarte- eta ekonomia-eragileek 2030 Agenda Euskadin ezartzeko egin duten lana jaso dugu. Alde horretatik, proiektuen bitartez hainbat arlotan egindako aurrerapen zehatzak nabarmendu ditugu: auzoak berroneratzea; gizarte-inklusioa, pertsona kalteberenei enplegu-aukerak eskainiz; migratzaileen gizarteratzea; energia- eta klima-larrialdiari hiritarrek eta erakundeek emandako erantzunak; genero-berdintasuna mamitzeko udal-ekintzak; eta tokiko gobernantza irekia eta partizipatiboa izan dadin lortzeko aurrerapausoak.

Gainera, gure errealitateari egokitutako adierazle-esparru bat proposatu dugu, aurrerapenak neurtu ahal izateko, dauden datuetan eta, ahal den neurrian, Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat Ekintza Planek ezarritako helburu argietan oinarrituta. Azkenik, sektore anitzeko kanpoko ekarpen batzuk bildu ditugu, hiri-garapen jasangarriari buruzko beren iritzia ematen dutenak, euskal ikuspegitik.

Horiek horrela, lehen jarraipen-txosten hau abiapuntu bat da, eta urtero errepikatuko da, emandako pausoak ikuspegi kritiko eta konstruktibotik baloratzeko.

Gaur egungo zalantza-egoerak erantzun sendoak eta aurrerapen zehatzak behar ditu, eta Euskadik asko du jokoan enbido horretan. Aukerak aprobetxatzea oso garrantzitsua da, EBko Next Generation funtsek eskaintzen digutena, adibidez; baina komeni da, halaber, zuhaitzez gain basoa ere ikustea, hau da, egoeraren ikuspegi orokorra izatea, bide egokian aurrera egiten ari garen jakiteko. Txosten honek premia horri erantzuten dio.

Iñaki Arriola
Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua



01

1. Bultzatu 2050: aurrekariak, esparru operatiboa eta garapena

1.1 Hasierako premisa: “Lurralde Agenda” eta integratzailea

Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agendak[1] (aurrerantzean Bultzatu 2050) hiri-garapen jasangarriaren inguruko politika publikoak sistematizatzeko premiari erantzuten dio, bost arlo hauek aintzat hartuta: jasangarritasunaren adiera tradizionalari dagozkion hiru arloak, hau da, gizartea, ingurumena eta ekonomia; eta gure iritziz funtsezkoak diren beste bi arlo, kultura eta gobernantza, hain zuzen ere.

Duela gutxi arte, hiri-politikak estatuak garatzen zituen, nagusiki, eta hiriak hedatzeko premiei modu erreaktiboan erantzuten zieten (hiri-inguruneak, azpiegiturak eta abar sortzen eta antolatzen zituzten). Azken urteetan, ordea, hainbat mailatako gobernuek hiri-errealitatea zeharkako ikuspegitik lantzea proposatzen duten tresna estrategikoak jarri dituzte martxan. Dagoeneko ez dira politika sektorial nazionalak (garraioa, lurralde-antolamendua eta abar) edo “hiriko politikak”, baizik eta “hirietatik egindako politikak” edo “hirien barruko politika orokorrak”. Eta, horretarako, ezinbestekoa da Administrazioaren mailak koordinatzea sustatzen duten gobernantza-tresnak edukitzea.

Horiek horrela, Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agenda euskal hiri-inguruneek behar duten eraldaketa sistemikoa kokatzeko tresna gisa planteatu zen. Eraldaketak sistemikoa izan behar du, hain zuzen ere, hiri-garapena jasangarria izan dadin, hiriari dagokion guztia elkarrekin erlazionatutako dimentsio askoko errealitatetzat hartu behar delako, eta itxuraz loturarik ez duten ikuspegiak lotu eta haien indarra aztertu behar delako.

Esperientziak erakutsi digu bide horretan aurrera egiteko modurik eraginkorrena dela “goitik beherako” jarduerak (epe luzerako ikuspegi holistikoa duten estrategiak) eta printzipio horien “behetik gorako” ezarpen praktikoa ziurtatzen duten proiektu zehatzak konbinatzea. Horretarako, auzoak bizitzaren, lanaren, gozamenaren eta atsedenaren oinarri diren funtsezko unitatetzat hartu behar ditugu.

Hori oinarri hartuta, Bultzatu 2050 aurreko plangintza-jarduerekin hornitu zen. Jarduera horiek Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean EAE) hainbat mailatan egindako askotariko estrategia eta planak barne hartzen dituzte. Asmoa zen zeharkako eta diziplina anitzeko ikuspegi bat aurkeztea, politiken koherentzia ardaztzat hartuta, hiri-garapen jasangarriaren erronka handiei aurre egiteko.

Ohiko hiri-politikek ez bezala, **Bultzatu 2050ek** ez ditu politika sektorialak batzen; aitzitik, zeharkako ikuspegi bat eskaintzen du, hiru ikusmolde hauetan adierazten dena:

- Administrazioan, lehentasuna politiken koherentzia da; eta politika horiek barne hartzen dituzte bai erabaki estrategiko handiak, bai araudiak zein kontsulta-prozesuak ezartzen dituzten eguneroko gestioak. Erakunde guztietako sailek heldu behar diote koherentzia horri, eta administrazio-maila guztiek elkarlanean aritu behar dute, modu eraginkorrean. EAEn horrek garrantzi handia du, eskumen-eremu bereiziak dituzten hiru maila daudelako.

1 Euskadiko Hiri Agenda 2019ko azaroaren 17an onartu zuen Gobernu Kontseiluak ofizialki, eta urte hartan bertan aurkeztu zuten, aste batzuk geroago, Euskal Hiria Biltzarrean

- Esku hartzen duten beste eragile batzuen ikuspegitik, zeharkakotasun horrek eskatzen du sustatutako ekintzak nork beretzat hartzea, eta benetan engaia daitezen bultzatzea, entzute-mekanismoen bitartez.

- Ikuspegi geografikoari dagokionez, tokiko ekintzak jarduera-eremu zabalago batean kokatzeko ahalegina egin behar da. Hau da, Bultzatu 2050 nazioarteko ikuspegian kokatu eta NBE-Habitat agentziak Hiri Agenda Berrian (HAB) ezarritako helburuekin eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) bateratu behar da.

1.2 Lantze-prozesua eta lehentasunak

Hiru alderdiko zeharkakotasun hori aintzat harturik, Bultzatu 2050 sortzeko lehen lanak izan ziren, batetik, hirien garapen jasangarriaren arlo zabaleko ordura arteko ekimenak aztertzea (lana ez zen hutsetik abiatu, ez zen "gurpila berriz asmatu" nahi); eta bestetik, kontsulta-prozesu estrategiko zabal bat egitea[1] askotariko eragileekin. Kontsulta horrek lurraldearen hiri-errealitateari eta bilakaera-ikuspegiei buruzko epe luzerako hausnarketa bideratu zuen.

AHOLKU BATZORDEAREN BILERAK

- Akademia
- Eragile pribatuak
- Administrazioa

GIZARTE-PARTAIDETZAKO TAILERRA

- Hiritarren erakundeak
- Adituak

ADMINISTRAZIOEN TAILERRA

- Udalerriak, Foru Aldundiak
- Eusko Legebiltzarra

Euskadiko hiri eta hiriguneei dagokienez, erronka estrategiko hauek planteatu ziren:

- **Gizarte-kohesioaren** inguruko erronkak: dibertsitatea nola ziurtatu eta desparekotasunaren aurka nola borrokatu.

- **Ekoizpen- eta kontsumo-erlazioen** inguruko erronkak: nola eraiki sare ekonomiko erresiliente eta dinamiko bat, errealitate ekonomiko berriei irekia.

- **Hirigintza-ereduen** inguruko erronkak: gure hiriak eratzen dituzten sareak elkarrekin nola biziarazi, eta nola hobetu hirien eta landa- eta natura-ingurunearen arteko erlazioa, eremu publikoen osaera eta erabilera eta mugikortasuna berrituz.

- **Hirien gobernantzaren** inguruko erronkak: gure erakunde- eta gizarte-sarea indartzea, datuen iraultza aprobetxatzea eta gure aurrerapen sozioekonomikoa neurtzeko adierazle berriak planteatzea.

Hori guztia, premisa honekin: **hiriaren inguruko eskubideak erabiltzeko baldintzak ziurtatzea**. Eskubide horiek dira, zehazki, etxebizitza duinaz gozatzeko eskubidea; oinarrizko zerbitzuz hornitutako eta sozialki balioetsitako auzo osasungarria izateko eskubidea; hiri osoarekin antolatzeko eta hiri osoan mugitzeko eskubidea; enpresak sortzeko, lan egiteko eta prestakuntza jasotzeko aukerak izateko eskubidea; eta gizarteratzeko, parte hartzeko eta berdintasun politiko eta juridikorako eskubidea.

Erronka eta desafio horietatik abiatuta, hirien euskal eredu horri aurrera atera eta finkatzeko, eta erronka orokorrei eta erronka horiek Euskadin duten eraginari erantzute aldera, Hiri Agendak 8 lehentasun estrategiko proposatu zituen, 33 esku-hartze ardatz eta 104 jarduera-ildotan egituratuta.

Erronkei aurrea hartzea

- Etorkizuneko 15 erronka

Helburuak mugatzea

- 8 lehentasun estrategiko
- Zeharkako 5 printzipio

Jarduerak zehaztea

- 33 esku-hartze ardatz
- 104 jarduera-ildo

1 Prozesu hori Bultzatu 2050 onartu aurreko urte eta erdian gauzatu zen

Hauek dira **zortzi lehentasunak**:

1. Etxebizitza duinaz eta oinarrizko ekipamenduez gozatzeko eskubidea bultzatzea.
2. Hirietako mugimendua: mugikortasun berri baten aldeko apustua.
3. Hiria antolatzeko eredu jasangarri berri bat.
4. Hiri berritzaile eta jakintsuak.
5. Hiri dinamiko eta lehiakorrak.
6. Hiri jasangarri eta erresilienteak.
7. Bizi-kalitatean ardaztutako hiriak.
8. Dibertsitatea eta inklusioa, hirien bereizgarri.

Lehentasun horiek **zeharkako bost alderdi** dituzte lagun: agendaren maila anitzeko gobernantza, genero-ikuspegia, jardueren osotasuna, lurralde-ikuspegia eta segimenduaren eta ebaluazioaren aldeko apustua. Hona hemen lehentasunen, jarduera-ardatzen eta ekintza espezifikoen koadro osoa:

Iturria: Euskadiko Hiri Agenda - Bultzatu 2050



Agendaren ezarpena monitorizatu eta hausnartzeko, iritziak eta esperientziak trukatzeko eta proposamen berriak sortzeko eremu bat eskaini ahal izateko gobernantza-mekanismo eraginkor bat izatea ziurtatze aldera, Bultzatu 2050 Foroa sortzea pentsatu zen. Foro hori, kontsulta-prozesuen zeharkakotasunaren eta gobernantza partizipatiboaren ildoari jarraiki, eragile hauek osatuko zuten:

- Agenda lantzeko prozesuan engaiatutako Eusko Jaurlaritzako Sailak.
- Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Foru Aldundietako ordezkariak.
- Garapen jasangarriaren arloan aktiboak diren udal-sareak.
- Lurralde historikoetako hiru hiriburuetako ordezkariak.
- Lurraldean garrantzia duten eragile ekonomiko eta sozialen ordezkariak.
- Unibertsitateetako ordezkariak.
- Erakunde sozial eta ekologistetako eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen erakundeetako ordezkariak.

Pandemiak, 2020ko martxoa eta 2021. urtearen hasiera bitartean, Foroa pentsatu bezala gauzatzea eragotzi zuen. Hala ere, aldi horretan Bultzatu 2050 ezarri ahal izateko funtsezko aztertze-lan batzuk egin ziren.

Batetik, lurraldeko **ERAGILEEN ETA BEREN ESKUMENEN MAPA** egin zen, eta Herri Administrazio eskudunen lehentasun estrategikoak eta Bultzatu 2050eko jarduera-ardatzak bat zetozen aztertu zen.

Analisi oso eta zorrotz horrek maila guztietako eskumenak hartu zituen aintzat (autonomia-, foru- eta udal-administrazioak), eta Bultzatu 2050eko ardatzak testuinguru bakoitzeko plan estrategiko orokor edo osoekin lotu zituen, baita, ahal zen neurrian, autonomia-, foru- eta udal-administrazioetako plan sektorialekin ere. Horrela, **Bultzatu 2050 autonomia-erkidegoko beste politika eta Agendekin zenbateraino bat zetorren** aztertu zen, eta indartu beharreko sinergiak eta gainditu beharreko ahuleziak antzeman eta zehaztu ziren.

Bestetik, **GOBERNANTZA-SISTEMA** definitu zen, eragile guztiek partekatzen zuten jarduera-esparrua mugatzeko, Bultzatu 2050 ezartze aldera. Jarduera-esparru horrek eragileen zeregina zehazten du eta lan- eta topaketa-eremu bateratuak sortzen ditu, ezartze-prozesua elkarrekin eta erabakiak adostuz eraikitzeko.

Horretarako, Bultzatu 2050en jasotako jardueren maila eta eragile anitzeko gobernantzarako irizpideak zehaztu ziren; betiere, testuinguru bakoitzean aztertuz Bultzatu 2050ek jarduera estrategiko posibleekin zer lotura zuen (Euskadi Next programako funts europarrekin, adibidez).

1.2.1 Bultzatu 2050ren garapena: Hiri Agenda Lantaldea (HALT)

Bultzatu 2050 sortzeko eta onartzeko prozesuan aurrera egitearekin batera, Euskadin 2030 Agenda Orokorra ezartzeko pausoak eman ziren. Horiek horrela, 2018an, Eusko Jaurlaritzak "Euskal ekarpena garapen jasangarrirako 2030 Agendari" agiria aurkeztu zuen (aurrerantzean, Euskadi Basque Country 2030). Agiri horretan jasotako ekintza-planean ikusten da gobernu-programa eta programa hori lantzen duten politika sektorialak zenbateraino bat datozen 17 GJHekin loturiko helburu eta xedeekin eta zenbaterainoko ekarpenak egiten dizkieten.

Euskadi Basque Country 2030 Agendak premisa hau du abiapuntu: "Garapen Jasangarriaren Helburuek ez digute esaten zer egin behar dugun, baizik eta testuinguru bat definitu gure politika publikoak hobetzen eta lehentasunak ezartzen laguntzeko, norberaren lurralde-errealitatea kontuan hartuta". Ikuspegi hori oinarri hartuta, konpromiso batzuk ezartzen dira eta gobernu-programa esparru zabalago batean kokatzen da, Agenda Orokorra gauzatzeko aurrerapausoak ebaluatze aldera.

Gobernuaren estrategia orokorrak aukera eman zion Bultzatu 2050ri GJHak ezartzeko zereginari eusteko (izan ere, hirien errealitateak erabat gainditu du hiriei eta giza kokalekuei buruzko 11. GJH, eta 2030 Agendako arlo guztiak hartzen ditu, hurrengo grafikoan ikusiko dugun moduan).



Iturria: Nazio Batuak

Euskadi Basque Country 2030 eta Bultzatu 2050 Euskadin GJHak ezartzeko ahaleginen emaitza izan ziren (prozesu horri 2030 Agenda "kokatzea" ere esaten zaio), eta gure mugez gaindi aintzatespen handia izan zuten: nazioarteko erakunde askoren iritziz (Europako Batzordea, ELGA, Nazio Batuak), Euskadi munduan aitzindari da GJHak estatuz azpiko mailan kokatzen (aurrerago ikusiko dugu zehatz-mehatz Bultzatu 2050 nazioartean nola zabaldu den).

2030 Agenda Euskadin ezarri izanaren garrantzia 2020an aitortu zuten, 12. legealdian. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia sortu zuen, eta Idazkaritza horrek, 2021eko uztailean, "2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa" (aurrerantzean, Lehentasunen Programa) onartu zuen, 2024ra arteko legealdi-plan gisa. Eta, ikusiko dugunez, programa horretan Bultzatu 2050ek eta Hiri Agendak zeregin oso garrantzitsua dute.

2021eko azaroaren 9an, Lehentasunen Programa errazago ezartze aldera, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Eragile Anitzeko Foroa eratu zen (aurrerantzean, Eragile Anitzeko Foroa), Iñigo Urkullu lehendakaria buru izan zen topaketa batean.

Topaketa horretan, lehendakariak Foroko Lehendakaritzaren Lehen Adierazpena aurkeztu zuen: *2030 Agenda: premia eta aukera. Euskadiren konpromisoa*. Adierazpen horrek azpimarratzen du **Eragile Anitzeko Foroaren** lehen helburua dela **koordinazioa eta adostasuna optimizatzea, 2030 Agendaren gobernantza-jardunbide egokia eraikitzeko**. Horiek horrela, **lau erronka** nagusi ezarri ziren, eta bigarrena Hiri Agendarekin lotura zuzena du:

Lehena. *Klima-aldaketari* ***buruzko nazioarteko akordioei balio erantsia ematea****. Glasgowko COP 26ren akordioak gutxienekotzat hartu ditugu eta Euskadik anbizioa gehitu nahi du helburu hauetan: deskarbonizazioan, berotegi-efektuko gasak ezabatzean, karbono-neutraltasunean, energia berriztagarrietan eta biodibertsitatean.*

Bigarrena. Hiri Agenda bat koordinatzea eta sustatzea, *hiria, mugikortasuna eta hirigintza berdea eta inklusiboa bultzatzeko*

Hirugarrena. Ekitatean *oinarritutako trantsizio ekonomiko digital inklusiboaren erronkei irtenbidea emango dieten* ***proiektu eta ekimen teknologikoak identifikatzea, partekatzea eta bultzatzea.***

Laugarrena. Elkarlanean aritzea giza duintasuna eta giza eskubideak defendatzeko, *pobreziarekin eta bazterkeriarekin amaitzeko, genero-berdintasuna bermatzeko eta erronka demografikoari elkarrekin erantzuteko.*

Halaber, Foroa antolatzeko proposamena onartu zuten. Foroak izango zituen Osoko Bilkura, Batzorde Iraunkorra eta **bost lantalde: Gobernantza, Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agenda** (aurrerantzean, HALT), **Eraldaketa Soziala, Eraldaketa Energetiko-klimatikoa eta Eraldaketa Ekonomiko-digitala**. Onartutako proposamenaren arabera, organo eta lantalde horietako bakoitzak bere lehentasunen taula eta hasierako agenda ditu.

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Eragile Anitzeko Foroa

Osoko Bilkura

Batzorde iraunkorra

Lantaldeak

- Gobernantza
- Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agenda
- Eraldaketa soziala
- Eraldaketa energetiko-klimatikoa
- Eraldaketa ekonomiko-digitala

Ondorioz, Bultzatu Foroa **Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Eragile Anitzeko Foroan sartu zen**, eta biek ala biek lehentasun eta helburu berak izango zituzten.

ERAGILE ANITZEKO FOROAREN LEHENTASUN OROKORRAK

- Euskadin GJHak ezartzeko **orientazio estrategikoko ildoak zehaztea eta proiektatzea**
- Erakundearteko jardueretarako eta arlo publiko, pribatu eta sozialaren arteko elkarlanerako **ekimen eta proposamen bateratuak** sustatzea, GJHen asmoak sakonago gauzatzeko
- Foroaren balantzearen eta **konpromisoen garapenaren** etengabeko segimendua egitea

BULTZATU 2050 LANTALDEAREN IKUSPEGIA

- **Hiri Agenda erreferentzia-esparru estrategiko gisa**, ikuspegi osoarekin (hirietarako 105 ekintza-ildo, 2050erako) eta engaiatutako eragileekin (hiru maila: erakundeak, enpresak eta hirugarren sektorea). Gobernantza-sistema
- Maila anitzeko **proiektu zehatzetan ardaztea** eta eragile guztiek parte hartzea, gure lurraldean ezinbestekoak diren eraldaketak gauzatzeko
- Etengabeko segimendua egitea, NBE-Habitat agentziak onetsitako **adierazle-esparru sendo** baten bitartez

Ikusten denez, Eragile Anitzeko Foroak eta Bultzatu 2050ek jarduera eta ikuspegi oso antzekoak dituzte, baina baita beren bereizgarriak ere.

Batetik, **orientazio estrategikoa berdintsua da**: Eragile Anitzeko Foroaren lehentasuna da Euskadin GJHak ezartzeko orientazio estrategikoko ildoak zehaztea eta proiektatzea; eta Bultzatu 2050ek GJHak gure jarduerak gauzatzeko ditugun Euskadiko biztanle-gune guztietan (funtsean, 2030 Agenda benetan, osorik eta modu eraginkorrean betetzeko ekintzak gauzatzen diren lekuan) GJHak ezartzeko esparrua jartzen du.

Bultzatu 2050 Lantaldean, GJHak ezartzeko ikuspegia estrategikoa da. Hori dela eta, azken urteetan gobernantza-eredua zehazteko lan handia egin da: gure inguruan (estatua eta Europar Batasuna) jardunbide egokiak identifikatu dira, eskumenen mapa egin da eta euskal administrazioen lehentasun estrategikoak Bultzatu 2050en jarduera-ildo eta ardatzekin zenbateraino bat datozen aztertu da.

Bestetik, bai Eragile Anitzeko Foroaren eta bai Hiri Agenda Lantaldearen asmoa da **erakundearteko jardueretarako eta arlo publiko, pribatu eta sozialaren arteko elkarlanerako ekimen eta proposamen bateratuak** sustatzea, GJHen asmoak sakonago gauzatzeko.

Alde horretatik, Bultzatu 2050ek garapen jasangarriaren hiru arloetan eragina duten hiri-proiektu zehatzak identifikatzen ditu. Hala, proiektuak identifikatzeko lehen arlo batzuk aukeratu ondoren, gaur egun proiektu horiek aukeratzeko metodologia eta irizpideak ezartzen ari dira, eta baita informazioa biltzeko parametro batzuk ere. Hori, ziurtatzeko, batetik, proiektuek Euskadiko Hiri Agenda garatzen laguntzen dutela; eta bestetik, proiektuek benetako aldaketa iraunkorrak eragiten dituztela.

Eta azkenik, nola Foroak hala Bultzatu 2050ek Euskadin GJHak betetzeko k**onpromisoen garapenaren etengabeko segimendua egiteko eta konpromiso horiek ebaluatzeko** asmoa dute. Alde horretatik, HALTek adierazleen esparrua zehazteko lan handia egin du. Esparru hori, gainera, ONU-Habitat agentziak 2022ko otsailean onartutako Hiriak Monitorizatzeko Esparru Orokorrean (ingelesez Global Urban Monitoring Framework, GUMF) jasotako adierazleekin bateratu da. Beraz, Bultzatu 2050ek nazioarteko alderaketa-esparru sendoa eskaintzen die euskal hiriei.

1.2.2 HALTen helburuak

Lehen aipatutako Eragile Anitzeko Foroaren antolamendu-proposamenean ezarri bezala, hauek dira HALTen **helburu** nagusiak:

1. Euskadiko hiri-eremuen arazo, erronka eta konponbideei buruzko **hausnarketa estrategikoa** egitea, urtean behin.
2. 2030 Agenda kokatzeko prozesuak **estrategikoki sustatzea**.
3. Hiri-mailako ekimen estrategikoei buruzko **iritziak sortzea**, beste sail batzuek proposatuta eta beharrezkotzat joz gero.
4. Bultzatu 2050en ezarpenaren inguruko **urteko txostena** eztabaidatzea eta onartzea.

Helburu horiek laneko **dinamika** hauen bitartez lortzen dira:

- **Askotariko ikuspegia,** GJHak sustatzen parte hartzen duten erakunde publiko eta pribatuen eta gizarte zibileko erakundeen bateratze-lan operatiboa egin ahal izateko.
- **Sailarteko esparruan, ekintza bateratuko ildoak zehaztea,** sinergia sustatzea eta Eragile Anitzeko Foroari loturiko lantalde espezifiko bat sortzea.
- **Erakundearteko esparruan, jarduera-irizpide eta -programak partekatzea** eta koordinazioa eta lankidetza optimizatzea, betiere erakunde bakoitzaren autonomia errespetatuz.
- **Erakunde publiko eta pribatuen** eta gizarte zibilaren arteko **elkarlanari** dagokionez, **konpromiso eta proiektu bateratuetan sakontzea,** jardunbide egokiak identifikatzea, elkarlaneko esperientzia berriak bultzatzea eta GJHetan engaiatzeko eta GJHak betetzeko konpromisoa zabaltzea.
- **Estatuan eta nazioartean, Euskadik 2030 Agendarekin bateratzeko eta proaktibo izateko politikak garatzeko foroetan parte har dezan sustatzea,** lurraldeak autogobernurako daukan gaitasunaren arabera.

Legealdi honetan, HALTek **lehentasun** hauek ditu:

a. Tokian tokiko enplegua sustatzea: enplegua tokian-tokian eta hirian egituratzeko jarduerak gauzatzea.

b. Hiri-eredua berritzea. Erabateko hiri-berroneratzearen arloko jarduerak gauzatzea, honako hauek barne: eraikinak sakon birgaitzea, eremu publikoan esku hartzea, ekipamenduak jartzea eta gizarte-neurriak hartzea.

d. Mugikortasun jasangarria sustatzea. Hiriko eta hiriarteko mugikortasun jasangarrirako jarduerak antolatzea.

e. Garapen komunitarioko planak egitea eta Hiri Agenda eta 2030 Agenda kokatzeko beste jarduera batzuk antolatzea.

Helburuak

1.2.3 Partaideak

Hiri Agenda Lantaldea honako hauek osatzen dute: 2030 Agendaren ardatz tematikoetan eta Agenda kokatzeko lanetan parte hartzen duten Eusko Jaurlaritzako sailetako ordezkariak, Foru Aldundietako ordezkariak, EUDELeko ordezkariak, EAEko hiriburuetako (Gasteiz, Bilbo eta Donostia) ordezkariak, enpresak, akademiaren arloko adituak eta gizarte-eragileak (zerrenda luzatu daiteke, HALTen interesen eta lehentasunen arabera):

- Eusko Jaurlaritza: Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Sailburuordetza; Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza; Erakunde Harremanetarako Sailburuordetza; Lurralde Antolamendurako Zerbitzua; Etxebizitzaren Euskal Behatokia; Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko Zuzendaritza; eta Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia.
- Arabako Foru Aldundia.
- Bizkaiko Foru Aldundia.
- Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Gasteizko Udala.
- Bilboko Udala.
- Donostiako Udala.
- EUDEL.
- Udalsarea 2030 (ordezkaria: Idazkaritza Teknikoa, IHOBE).
- Energiaren Euskal Erakundea.
- BC3 Basque Centre for Climate Change.
- ACLIMA, Basque Environment Cluster.
- ERAIKUNE, Eraikuntzaren Euskal Klusterra.
- Energiaren Euskal Klusterra.
- GAIA klusterra.
- Deusto Cities Lab.
- Euskal Herriko Unibertsitatea.
- PETRONOR.
- EDINOR.
- IBERDROLA.
- CONFEBASK.
- Bilbao Metropoli-30.
- EHAEO (Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala).

Partaideak

1.2.4 Lan-ildoak

HALTek, ezarritako helburu, dinamika eta lehentasunen segimendua egite aldera, lan-ildo hauek adostu zituen lehen bileran, 2021eko azaroaren 30ean::

- **EUSKADIKO HIRI-PROIEKTUEN PLATAFORMA/ MAPA** eztabaidatzea, diseinatzea eta egitea, jardunbide egokiak biltzeko eta proiektu horiek Hiri Agendaren helburuak betetzeko egiten dituzten ekarpenak baloratzeko gune gisa.
- **HIRI-ADIERAZLEEN LEHEN SEGIMENDU-ESPARRUA** zehaztea, ixtea eta gauzatzea, 2030 Agendako adierazleak eta Nazio Batuen Hiriak Monitorizatzeko Esparru Orokorretik eratorritako adierazleak aintzat hartuta.
- **NAZIOARTEAN JARDUTEA**, Bultzatu 2050 foro nagusietan ezagutzera emateko eta beste herrialde batzuetako antzeko jardunbideetatik ikasteko.
- **LEHEN BULTZATU 2050 TXOSTENA EGITEA**, Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agenda ezartzeko aurrerapenen eta erronken inguruan ereduzko eta eztabaidatzeko eta sentsibilizatzeko tresna izan dadin.
- Eragile Anitzeko Foroa eratu zenetik, HALTek lau bilera egin ditu, 2022ko jarduera-ildoak gauzatzeko, Lantaldearen helburu orokorretan aurrera egiteko eta, beraz, Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agenda lantzen joateko:
- Lehen bilera, 2021eko azaroaren 30ekoa: HALT ofizialki eratu zen, ordura arte egindako aurrerapausoak aurkeztu ziren eta hurrengo urterako lanaren oinarriak ezarri ziren.
- 2022ko martxoaren 13ko bilera: adierazle-multzoa osatzeko eta proiektu nagusiak Bultzatu 2050eko Lehentasun Estrategikoetan kokatzeko egindako aurrerapausoak aurkeztu ziren.
- 2022ko uztailaren 15eko bilera: HALTen esparruan landu beharreko proiektu-moten inguruan hausnartzeko dinamika partizipatibo bat egin zen.
- 2022ko azaroaren 8ko bilera: batetik, EAEn gauzatutako Hiri Agenda batzuen kasu zehatzak partekatu ziren (Gasteizko Udaleko eta Ermuako Udaleko ordezkariek parte hartu zuten); eta bestetik, Eusko Jaurlaritzaren zenbait ekimen (Europar Batasunaren Next Generation Funtsei lotuak) eta Bultzatu 2050 Txostenaren ildo nagusiak aurkeztu ziren.

1. irudia: Bultzatu 2050 Lantaldearen 2022ko martxoaren 14ko bilera.

- Horiez gain, 2022ko martxoaren 29an Lantaldeak osoko bilera bat egin zuen, besteak beste Hiri Agendaz hitz egiteko; zehazki, hiri eta komunitate jasangarriei buruzko 11. helburuaz. Bilera hartan honako hauek azpimarratu ziren: HALTen zeregina eta egindako ibilbidea, helburuak, HALTen eta Eragile Anitzeko Foroaren arteko lotura, proiektu pizgarrien zorroa eta adierazleen esparrua, jarraibide gisa.

Grafikoa: HALTen bilerak 2021-2022



1.2.5 Nazioarteko ekintzak

Lehen esan bezala, Euskadiko Hiri Agendaren helburuetako bat da Euskadi nazioarteko ahaleginekin batera egituratzea, GJHak betetzen laguntzeko. Bide hori NBE-Habitatekin batera egin du Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza eta Hiri Agendaren Zuzendaritzak; NBE-Habitat giza kokalekuetarako Nazio Batuen programa bat da. Izan ere, Zuzendaritzak lankidetza-hitzarmen bat sinatu zuen erakundearekin 2019ko azaroan.

Horiek horrela, Bultzatu 2050 eredu izan da nazioartean, jarduera hauetan:

- Euskadiko Hiri Agenda Cities Forum 2020 jardunaldietan aurkeztu zen (Porto, 2020ko urtarrila). Jardunaldi horiek hiri-politika eta -ekimenei buruzkoak dira, eta Europako Batzordeak antolatzen ditu bi urtez behin. 2020ko lema hau zen: Together we shape a sustainable urban future.
- Euskadiko Hiri Agenda Munduko 10. Hiri Foroan aurkeztu zen (Abu Dhabi, 2020ko otsaila).
- Euskadiko Hiri Agenda NBE-Habitaten estatuz azpiko hiri-politikei buruzko Expert Group Meeting biltzarrean aurkeztu zen (2020ko uztaila).
- Euskadiko Hiri Agenda NBE-Habitaten Metropolien Munduko egunean aurkeztu zen (2020ko urria).
- Bultzatu 2050 kasu arrakastatsu gisa jaso zuten Europako Batzordearen “Urban Agenda for the EU Multi-level governance in action” argitalpenean: “The Basque Region: Integrated policies as a road to success” (2021).

Nazioarteko ekintzak



- Espainiako Hiri Foroan ekitaldi bat antolatu zen (Sevilla, 2021eko urria).

- NBE-Habitaten Expert Group Meeting (EGM) antolatu zen Bilbon; nazioarteko 30 aditu baino gehiago bertaratu ziren (Bilbo, 2021eko abendua).

- Munduko Hiri Foroan ekitaldi hau antolatu zen: "Estatuz azpiko hiri-politikak: hiri-garapen jasangarrirako tresnak" (Katowice, 2022ko uztaila).

- Bultzatu 2050 ekimen eredugarria zela aitortu zuten "Hiri Agenda Berria ezartzeko aurrerapenen 2. txostenean"; txosten hori Nazio Batuen Goi-mailako Politika Foroan aurkeztu zuten, New Yorken. 2016an Quiton egindako Habitat III Biltzarrean Hiri Agenda Berria onetsi ondoko bigarren txostena da. Txosten horrek Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agenda aipatzen du, eta EAEn egindako lana aintzatesten du, zehazki, plangintzan generoa aintzat hartu izana, eskualdeko eta tokiko planak erabiliz emakumeek enplegua, etxebizitza eta zerbitzuak eskurago eduki ahal izatea lortu baitu.

Etorkizunean, ahalegin horiei guztiei eutsi egingo zaie. Gainera, kontuan hartu beharra dago Euskal Hiria Biltzarrean nazioarteko goi-mailako ordezkariek parte hartzen dutela; biltzar hori urtero egiten da, azaroko azken astean.

1.3 Jarraitu beharreko bidea eta jarraipen txostena

Garrantzitsua da azpimarratzea Hiri Agenda Lantaldeak indar handia duela lan-metodologia kolaboratiboak erabiltzeko (bai Eusko Jaurlaritzako sailen artean, bai sail horien eta beste maila batzuetako administrazioen artean) eta erakunde publiko eta pribatuen arteko elkarlana sustatzeko. Hori, gure lurraldean **ingurumena jasangarria, gizartea kohesionatua eta ekonomia oparoa** izan daitezen lortzeko.

Bultzatu 2050 lurralde osorako diseinatutako agenda bat da (hiri-agenda baino gehiago); horregatik, hainbat maila eta eragile koordinatzen jarraitu beharra dago. Alde horretatik, HALT **mugak hausteko eta elkarlanerako guneak sortzeko** plataforma bat da, konfiantzaz, gardentasunez eta elkarlanean kezkez hitz egiteko eta aukera berriak aurkitzeko gune bat.

Horiek horrela, esku artean duzun Bultzatu 2050en lehen segimendu-txosten hau dokumentu bizi bat da: aipatutako lan-ildoetan orain arte egindakoa aztertzen du eta, denborarekin, premia, erronka eta ikasbide berrietara egokitzen joango da. Hurrengo ataletan honako hauek aurkituko dituzu.

- Batetik, Euskadiko hiri-garapen jasangarrian, arlo guztietan, "eredu txiki eta handi" diren proiektu garrantzitsu batzuk, zeinak zabaldu eta lotu baitaitezke, eraldatzeko duten gaitasuna hedatzeko. Aukeratutako proiektuek askotariko arloak lantzen dituzte (denen artean Bultzatu 2050en Lehentasun Estrategiko guztiak eta GJH guztiak barne hartzen dituzte), eta ugaritzeko ahalmena handia dute, askotariko sail eta eragileek parte hartzen dutelako. Hori da jarraibidea eta Bultzatu 2050ek bultzatu nahi duen eredua.

- Bestetik, adierazle-multzo bat, HALTen lehen bileran proposatutako hasierako zerrendatik hartuak eta, tokiko iturri estatistikoetako datuen bitartez, Euskadiko errealitateari egokituak. Adierazle-sorta hori (txostenaren Eranskinean fitxetan dago azaldua) eman diren eta emango diren aurrerapausoen segimendu eraginkorra egiteko abiapuntua eta hastapena da.

- Azkenik, garapen jasangarriaren askotariko alderdien inguruko kanpoko zenbait ikuspegi, hainbat diziplinatako adituenak.



02

2. Proiektu eraldatzaileak: ikuspegi pragmatikoa

2.1 Sarrera

Hiri-politikak gure gizarteak behar dituen aldaketak gauzatzeko funtsezkoak direla gero eta argiago daukagu. Aurreko atalean ikusi dugun bezala, azken urteetan (Nazio Batuek 2015ean 2030 Agenda eta 2016an Hiri Agenda Berria, HAB, onartu izanak bultzaturik), munduan hainbat mailatako gobernuek hiri-errealitatea zeharkako ikuspegitik lantzea proposatzen duten tresna estrategikoak jarri dituzte martxan.

Gure ingurunean ere, hiri-eremuak eraldaketa zehatzen egituratzaile gisa duen zeregina sendotu egin da. Hiri-berroneratzeak indarra hartu du eraldaketa-elementu gisa, eta Next Generation EU funtsen lehentasun nagusietako bat izatea da horren froga. Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agenda 2019ko azaroan onartu zen, eta, bi urte geroago, hiri-garapen jasangarriaren ereduzko esparru eta gure hiri eta lurraldeetan Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) betetzeko tresna gisa finkatzen ari da. Hiri Agenda Lantaldea (HALT) Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Eragile Anitzeko Foroan sartu izana[1] aintzatespen horren adierazgarri da.

Bultzatu 2050ek etorkizunean gure hirien oinarri izatea nahi dugun parametroak ezartzen ditu, bere zeregin estrategikotik abiatuta (izan ere, iraunkortasunaren inguruko epe luzeko esparru bat eskaintzen du), baina baita tresna pragmatikotzat hartuta ere (jarduera-ardatz eta ekintza-ildo oso espezifikoekin), hainbat eragilek erabil dezaten (bai maila guztietako erakundeek, batez ere udalek, bai sektore pribatuko, hirugarren sektoreko eta abarretako eragileek ere), beren jarduerak sistematikoki eta modu koherentean bideratzeko.

Nolanahi ere, gure Hiri Agendaren zeregin eraldatzailea lurraldean proiektu zehatzak garatuz mamituko da. HALTen parte hartzen duten eragileek jarri dute agerian, dagoeneko, ikuspegi pragmatiko hori (Taldearen lehen bileran, 2021eko azaroaren 30ean). Izan ere, behean irudikatu dugun galdeketan, proiektuetan oinarritutako ikuspegiaren alde agertu ziren, argi eta garbi.

1 Ikus, aurreko atalean, Lantaldearen ezaugarriei eta eratzeko prozesuari buruzko xehetasun gehiago

1. grafikoa: Zertarako erabiliko du zure erakundeak Euskal Hiri Agenda?



Iturria: "Gobernantza-sistemaren proposamenari eta Bultzatu Euskal Hiri Agendaren ezarpenari buruzko kontsultaren emaitzak", 2021eko azaroa

Alde horretatik, hauek dira, bileran parte hartu zutenez iritziz, Hiri Agenda ezartzeko gainditu beharreko erronkak (ordena horretan): Euskadi osora zabaltzeko moduko jardunbide on eta adibide erakusgarriak identifikatzea; jardunbide onak eskalatzea, Hiri Agendaren helburuak lantzeko; eta Euskadiko udalerriak Euskadiko Hiri Agendako estrategiak aintzat hartzera animatzea.

Ordenatu Bultzaturen erronkak, lehentasunen arabera



Iturria: Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Eragile Anitzeko Foroko Hiri Agenda Lantaldearen lehen bilerako akta, 2021eko azaroak 30

Atal honetan, Euskadin gauzatzen ari diren eta Bultzatu 2050en jasotako ildo estrategikoen adierazgarri diren zortzi proiektu espezifikoren datu hauek emango ditugu, fitxen bitartez: ezaugarriak, testuingurua, bilakaera eta irakaspenak. Lehendabizi, ordea, proiektu horiek aukeratzeko prozesuaren berri emango dugu, HALTen elkarrekin egindako bidea (kontsulta, eztabaida eta hausnarketa kolektiboa) oso argigarria baita, etorkizunean "proiektu-ikuspegi" hori aurrera eramateko.

2.2 Proiektuak aukeratzeko prozesua

Hiri eta lurraldeen jasangarritasunerako bidea ebaluatzeko proiektu zehatzetan oinarritzea ezinbestekoa dela egiaztatu eta gero, HALTek mailakako prozesu bat antolatu zuen, engaiatutako eragileek beren ikuspegiak adieraz zitzaten (eztabaida eta ekarpenen bitartez), eta prozesua behar bezain sendoa izan zedin. Horretarako, Lantaldeak gai hauek landu zituen:

- Zein arlotan esku hartu behar da? Arlo operatiboak aukeratzea, gero arlo horietako proiektu garrantzitsuak hautatzeko. Lan hori 2021eko azaroaren 30eko bileran egin zuten.
- Zein prozesu jarraitu behar dugu proiektuak aukeratzeko? Proiektuak aukeratzeko parametroak jartzea, sei galdera nagusiri erantzunez: zer, nor, non, noiz, nola eta zertarako. Lan hori 2022ko martxoaren 13ko bileran egin zuten.
- Nola erantzuten diote proiektuek Bultzatu 2050i? HALTek proiektu interesgarriak eta Bultzaturen Lehentasun Estrategikoak gurutzatu zituen, arreta gehien zein arlotan jarri erabakitze aldera. Lan hori 2022ko martxoaren 13ko eta uztailaren 5eko bileretan egin zuten.
- Zer proiektu-mota nahi ditugu? Proiektu garrantzitsuek zein ezaugarri eduki behar dituzten elkarrekin hausnartzea. Lan hori 2022ko uztailaren 5ean egin zuten.

2.2.1 Zein esku-hartze esparruak?

Lehen bileran, 2021eko azaroaren 30ean, HALTeko kideek proiektuak bilatzeko **eremu operatibo** hauek zehaztu zituzten:

- Opengela ekimena. Bi auzo kalteberetan esku hartzeko ekimen bat da. Europako finantziazioarekin jarri zen martxan (Horizon 2020 Programa), baina hiriak berroneratzeko benetako euskal eredu bihurtu da, eta, beste udalerri askotara zabaltzeaz gain, nazioartean aintzatespen handia izan du.
- Euskadi Next Programari eta Next Generation EU funtsei loturiko proiektuak.
- Berpiztu ekimena eta, zehazki, eskualde behardunei edo Lehentasunezko Jarduera Eremuei (LJE) bultzada berria emateko plan berezia.
- EUDELen "Euskal udalerriek Euskadiko 2030 Agendari egindako ekarpena" txostenean jasotako 15 proiektuak.
- Eusko Jaurlaritzak (Lehendakaritza) onartutako 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programan jasotako zazpi proiektu adierazgarriak.

Aukera horien artean, HALTek Opengela ereduari eta EUDELek eta Lehendakaritzak jasotako ekimenei lehentasuna ematea erabaki zuen, zeharkakoak, operatiboak eta epe luzeragokoak direlako.

2.2.2 Zein prozesuk jarraitu proiektuak aukeratzeko? Sei galdera nagusiei erantzunak

Hiri Agenda eta, beraz, GJHak modu operatiboan ezarri ahal izateko aukeratutako proiektuek ezin dute "zerrenda" huts izan: ezinbestekoa da ziurtatzea, batetik, proiektuek eragin erakusgarria dutela; bestetik, Euskadiko hiri-errealitatean teilakatuta daudela; eta azkenik, martxan jartzeko subjektu egokien bitartez gauzatu daitezkeela.

Horiek horrela, mapaketa espezifikoa egin aurretik, nahitaezkoa da mapaketa hori egiteko balio duen tresna bat kontzeptualizatzea, honako hauek zehaztuta: proiektuak aukeratzeko irizpideak, helburuak eta behar diren aldaketak gauzatzeko egingo duen ekarpena. Funtsean, galdera hauei erantzun behar diegu: **zer, nor, non, noiz, nola eta zertarako**.

1. **Zer:** Martxan jarritako proiektuek ikuspegi osoa dutela ziurtatu behar dugu, eta, horretarako, Euskadiko Hiri Agenda funtsezkoa da. Hori gogoan hartuta, 2022ko martxoaren 13an taula bat aurkeztu zen, proiektuak eta Agendan jasotako jarduera espezifikoak alderatzen dituena eta ondo baino hobeto irudikatzen duena zenbateraino datozen bat (ikus, aurrerago, atal berezia).

Galdera-erantzunak

2. **Nor:** Proiektuak ezin dira "goitik behera" (Eusko Jaurlaritzatik) aukeratu; aitzitik, Hiri Agenda Lantaldea osatzen duten eragile nagusien lana da. Gainera, funtsezkoa da eragile askok parte hartzea: erakunde eta enpresetakoak, hirugarren sektorekoak, unibertsitate eta ikerketa-zentroetakoak eta abar.

3. **Non:** Proiektuek lurralde aldetik orekatuak izan behar dute eta maila askoko ikuspegia eduki behar dute; hau da, askotariko eskumen-eremuak hartu behar dituzte: udalak, udalez gaindiko eremuak, Lurralde Historikoak eta EAE.

4. **Noiz:** Proiektuek barne hartu behar dituzte bai epe motzeko jarduerak, hau da, martxan dauden edo laster gauzatuko diren ekintza eraldatzaileak (adibidez, Next funtsen bitartez), bai epe luzeragoko jarduerak.

5. **Nola:** Proiektuak gardentasunez eta modu operatiboan aukeratzen direla ziurtatu behar da.

6. **Zertarako:** Gauzatutako proiektuak eraldatzaileak direla ziurtatu behar da, tokian-tokian dituzten eraginen segimendu zorrotz eta sistematikoa eginez. Horretarako, honako hauek zehaztu behar dira: proiektuen eraginari buruzko informazioa non lortzen den, informazioa biltzeko zer mekanismo erabiliko diren (herritarrei kontsulta egitea...), informazio hori kudeatzeaz nor arduratzen den, informazio horrekin zer egingo den eta sortzen duen eraginaren segimendua nola egingo den. Alde horretatik, Bultzatu 2050eko adierazleen esparrua funtsezko tresna da.

Azken helburua da proiektu-zorro zehatz eta erabilerraz bat edukitzea, Hiri Agenda Lantaldearen lehentasunei erantzuten diona (Bultzatu 2050en kokatuta), GJHak ezartzeko tresna bihurtuko dena eta, beraz, 2030 Agenda Euskadin ezartzen edo kokatzen lagunduko duena.

Hona hemen, labur-labur irudikatuta, zer pauso eman behar diren:

Aldez aurreko pausoa: proiektuen eremuak zehaztea

- Opengela
- Berpiztu-LJE
- 7 proiektu adierazgarri - Euskal Programa
- EUDELek martxan jarritako 15 proiektu
- Euskadi Next

Elkarrekin galdera garrantzitsu batzuei erantzutea (i): zer, non, nor eta noiz

- Bultzatu 2050en Lehentasun Estrategikoak
  - Zer: zein sektoretan esku hartzen duen
- Udalerriak LHak Euskadi
  - Non: eremu geografikoa
- Epe motz, ertain edo luzea
  - Noiz: aldia / eragina
- Erakundeak Enpresak Hirugarren sektorea
  - Nor: esku hartzen duten eragileak

Elkarrekin galdera garrantzitsu batzuei erantzutea (i): Zertarako – Informazioa, eta informazio hori nola kudeatzen **den.**

- Informazio-iturriak
- Informazioa biltzeko mekanismoak
- Informazioaren kudeaketaren arduraduna(k)
- Eraginaren segimendua

2.2.3 Nola erantzuten diote proiektuek Bultzatu 2050ri? Proiektuen eremu operatiboen eta Hiri Agendako Lehentasun Estrategikoen arteko kontrastea

Proiektu zehatzak aukeratzeko, funtsezkoa da ikuspegia osoa dela ziurtatzea, hau da, gauzatzen diren ekimenek hiri-garapen jasangarriaren espektro guztia barne hartzen dutela ziurtatzea, jarduera-ildo bat ere utzita ezarri gabe.

Horretarako, HALTek proiektu potentzialak (Lantaldeak zehaztutako arlo operatiboetan jasota daude) eta Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agendaren ekintza-ildoak alderatu zituen. Asmoa zen jakitea dauden proiektuek hiri-garapen jasangarriaren zein arlo barne hartzen dituzten eta zein arlo geratzen diren proiektu horietatik kanpo, gero huts hori konpontzeko.

Izan ere, proiektuek Hiri Agendako zein jarduera-ildotan laguntzen duten eta hirietako zein alderdi lantzen dituzten jakinez gero, argiago identifikatu ahal izango dira Hiri Agendan ezarritakoekin bateratu daitezkeen adierazleak. Horri esker, gainera, proiektuek ingurumenean, ekonomian eta gizartean eragiteko eta berritzeko eta eraldatzeko duten ahalmena handitzeaz gain, etorkizuneko politika publikoetarako irakaspen praktikoak atera ahal izango dira.

2.2.4 Zer proiektu-mota? Proiektuen ezaugarrien dekalogoa

Azkenik, 2022ko uztailaren 5eko bileran, HALTek hausnarketa kolektibo bat egin zuen, “LEGO Serious Play” metodologian oinarritutako dinamika partizipatiboaren bitartez. Metodologia horren printzipioa da jolasa giltzarritzat eta esku-lana erronkak eraikitzeko oinarritzat hartzea, denbora-tarte mugatu batean.

Eragileek hausnartu zuten proiektuek zein funtsezko elementu behar dituzten, hiri-garapen jasangarrirako aurrerapauso kolektiboak behar bezala jasotzeko. Hausnarketa hori lau fasetan (edo lau galderaren bitartez) egin zuten:

A) ZER (1):

Bultzatu hiri agenda 2026an irudikatzea

B) ZER (2):

Zein proiektu-mota jarriko dira martxan?
Nola deskribatuko ditugu?

C) NOLA (1):

Ekarpenak. Zein baliabide edo tresna dauzkagu?

D) NOLA (2):

Proiektu-zorroan sar ditzakeen funtsezko ezaugarriak.

a. **ZER (i): ETORKIZUNA.** Bertaratuei honako hau galdetu zieten: Nola irudikatzen dugu Bultzatu 2050 Hiri Agenda Lantaldea 2026. urtean? Zein elementu izango lirateke ezinbestekoak Lantaldea arrakasta izaten ari dela pentsatzeko?

b. **ZER (ii): PROIEKTUEK FUNTSEZKO ZEIN ELEMENTU EDUKI BEHAR DITUZTEN.** Bertaratuei honako hau galdetu zieten: Zer ezaugarri eduki behar dituzte martxan jarritako proiektu pizgarriek? Zein izango dira proiektu horien gakoak, eta zein ñabardurekin?

d. **NOLA (i): LAN KOLEKTIBO HORRI ZER EKARPEN EGIN DIEZAIOKEGUN.** Partaide bakoitzak bere funtsezko balioaz, lan kolektibo horri egin diezaiokeen ekarpen pertsonalaz hitz egin zuen.

e. **NOLA (ii): NOLA ERAIKI DEZAKEGUN.** Azkenik, talde bakoitza galdera honi erantzuten saiatu zen: Zer baliabide behar dira Hiri Agendako proiektu pizgarriek 2026an izango luketen diseinu hori eraiki ahal izateko?

Eztabaida egituratu horren ondorio gisa, “Aholkuen dekalogo” bat proposatu zen, proiektu zehatzetan parte hartzerakoan kontuan hartzeko.

1. **Proiektu zabalak.** Ezinbestekoa da proiektuek proposatzen dituzten erakundeetako (instituzioak, enpresak, unibertsitateak…) askotariko sail edo atalen ekarpenak edukitzea eta partaideen artean lotura formal eta ez-formalak eta konfiantza sustatzea.

2. **Proiektu partekatuak.** Proiektuek ikuspegi berritzaileak eduki behar dituzte, xedeak partekatzea sustatu behar dute, eta helburu sozial eta instituzionalak askotariko agenteak (sektore publiko eta pribatua, akademia…) engaiatuz zehaztu eta antolatu behar dituzte. Gainera, sortze-lana kolektiboa izan bada, funtsezkoa izango da herritarrek parte hartu edota haiei kontsulta egin izana.

3. **Etorkizunera begirako proiektuak.** Hiri Agendaren moduko epe luzeko ikuspegia duten proiektuak behar ditugu. Erakundeek egindako proiektuek hauteskundezikloaz harago joan beharko lukete eta bitarteko mugarri argiak ezarri beharko lituzkete.

4. **Iraganera begirako proiektuak.** Proposatu zituzten erakundeek edo bazkideek orain arte egindako guztia aintzat hartzen duten proiektuak behar ditugu.

5. **Lurralde-ikuspegidun proiektuak.** Tokiko errealitateaz harago doazen eta herrialde gisa ditugun erronkak lantzen dituzten proiektuak behar ditugu, betiere Bultzatu 2050 ikuspegiarekin eginak, hiriak ez ezik lurraldeak ere ardatz dituztenak.

6. **Ikuspegi estrategikodun proiektuak.** Gure errealitatearen lehentasun nagusiei (planeta, pertsonak, oparotasuna) erantzuten dieten proiektuak behar ditugu. Proiektu horiek funtsezkoa den horretan jarri behar dute ardatza, konponbideak diziplina anitzeko ikuspegi berritzaileetan oinarrituta bilatu behar dituzte eta jasangarritasuna ziurtatu behar dute.

7. **Proiektu errealista eta mamurtuak.** Sorleku duten gizartearen aniztasuna jasotzen duten eta sortzean eta gauzatzean entzuteko, hausnartzeko eta su geldoan atontzeko prest dauden proiektuak behar ditugu.

8. **Proiektu neurgarriak.** Adierazle-multzo sendoa duten proiektuak behar ditugu, aurrerapenak ebaluatu eta desbideratzeak edo eraginkortasunik ezak zuzendu ahal izateko.

9. **Proiektu gardenak.** Pizgarrien gestioa ongi ezagutzera ematen duten eta herritar, interes-talde eta abarren aurrean kontuak emateko mekanismoren bat duten proiektuak behar ditugu.

10. **Proiektu konprometituak.** Gauzatu ahal izateko eta eraginak gizartean monetizatu ahal izateko finantziazio egokia duten proiektuak behar ditugu.



2.3 Aukeratutako 8 proiektuak: Fitxa analitikoak

Orain, prozesu horren ondoren aukeratutako zortzi proiektuen ezaugarri nagusiak azalduko ditugu, fitxa analitikoen bitartez.

Hona hemen zortzi proiektu horien ezaugarriei eta bildutako informazioari buruzko gogoeta batzuk:

i. Proiektuen ezaugarriei dagokienez, aukeraketa subjektiboa da (halabeharrez), eta, bistan denez, proiektu baliotsu asko ez dira jaso. Nolanahi ere, HALTeko partaideek proposatutako aukera-parametroak hartu dira aintzat, elementu hauek eskaintzeko:

- **Multzoaren balorazioa.** Ikuspegi holistikoa eskaintzeari eman zaio lehentasuna, hau da, multzoan aztertuz gero, azken urteetan Euskadin hiri-garapen jasangarrirako bidean egindako aurrerapenen ikuspegi anitz, argi eta sendoa ematen duten proiektuei.

- **Bultzatu 2050eko Lehentasun Estrategikoak lantzea.** Asmoa da proiektuek, oro har, Euskadiko Hiri Agendaren Lehentasunak aintzat hartzea (ikus lehen azaldutako Excel taula).

- **Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzea.** Guztiek batera garapen jasangarriko 17 helburuak barne hartzen dituzten proiektuak aukeratu dira (GJH batzuk proiektu batean baino gehiagoan daude jasota).

Fitxa analitikoak

- **Aurrerapen-mailari dagokionez, heldutasun-maila anitzeko proiektuak aukeratu dira.** Batzuk egonkortuta daude eta ibilbide ezaguna dute; beste batzuk, berriz, hastapenetan daude, baina berritzaileak direlako eta etorkizun handia dutelako aukeratu dira.

- **Askotariko agenteek esku hartzea.** Askotariko agenteek (hainbat mailatako erakundeak, neurri desberdineko udalerriak, enpresen arteko elkarlanak, unibertsitateak, hirugarren sektorea…) gauzatutako proiektuen irudi orokorra eman nahi izan da.

- **Erronka estrategikoei erantzutea.** Elkarrekin euskal gizartearen erronka nagusiei erantzuten dieten proiektuak aukeratu dira.

- **Askotariko ikuspegiak.** Askotariko proiektuak bateratu dira, elkarrekin erronka teknologiko eta eta sozialei aurre egiten dietenak, proiektu administratibo eta ekonomikoak, genero-ikuspegia kontuan hartzen dutenak, tokian-tokian eta nazioartean arreta jartzen dutenak…

ii. Fitxen edukiari dagokionez, oinarrizko elementuak erraz irakurri eta ulertzeari eman zaio lehentasuna. Horretarako, datu hauek jaso dira, labur-labur: harremanetarako datuak, helburuak, garapena, emandako pausoak eta irakaspenak, erakunde arduraduna eta informazio gehiago ematen duten web-guneen estekak.

Proiektuaren izena: Opengela

Hasitako urtea: 2021

Proiektuaren eta Euskadiko Hiri Agendako Lehentasun Estrategikoen (LE) arteko egokitasuna

LE 1: Etxebizitza duinaz eta oinarrizko ekipamenduez gozatzeko eskubidea bultzatzea.
LE 4: Hiri berritzaile eta jakintsuak.
LE 5: Hiri dinamiko eta lehiakorrak.
LE 6: Hiri jasangarri eta erresilienteak.
LE 7: Bizi-kalitatean ardaztutako hiriak.
LE 8: Dibertsitatea eta inklusioa, hirien bereizgarri.

Proiektuaren eta GJHen arteko egokitasuna:

Testuingurua eta helburuak

Opengela ereduaren asmoa da eremu babesgabeenak berroneratzeko esku-hartze osoak gauzatzea, eta, horretarako, barruti-bulegoak martxan jartzea, auzokideei etxebizitzak birgaitzeko prozesu osoan laguntzeko. Abiapuntua proiektu europar bat izan zen (Horizon 2020 programaren bitartez finantzatua), zeina bi auzo pilotutan martxan jarri baitzen: Otxarkoaga (Bilbo) eta Txonta (Eibar). Ereduaren asmoa zen, ordea, EAEko udalerri eta auzo gehiagotara zabaltzea, eta laster Aramotz (Durango), Basaundi (Lasarte-Oria) eta Andonaegi (Paisaia) auzoak elkartu zitzaizkion. Jarduera honek 2026ra arte iraungo du, eta Euskadiko auzo eta hiri-eremu gehiagotara zabalduko da.

Opengelaren beste bereizgarrietako bat da esku-hartzeak osoak direla: eraikinen baldintzak (eraginkortasun energetikoa, irisgarritasuna) eta hiri-eremuetako baldintzak hobetzen ditu, eta arlo hauetan eragina duten gizarte-neurriak hartzen ditu: osasuna, enplegua, jarduera ekonomikoa, mugikortasuna, natura-baliabideen kudeaketa eta hurbileko ekipamenduak. Hori guztia biztanle guztiek eskuratzeko moduko finantziazio egokiarekin.

Auzo bakoitzeko bulegoa (**Opengela**) partikularrentzako eta jabeen erkidegoentzako "gela ireki" bihurtzen da (izena hortik datorkio), eta eraikinen birgaitze osoaren prozesuarekin zerikusia duten gestioak zentralizatzen ditu: izapideak egitea, obretan profesionalekin hitz egitea eta finantza-laguntzak bideratzea, besteak beste.

Hauek dira proiektuak Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agendaren ezarpenean kokatu dituen helburuak:

- Auzoak hobetzea, gizarte-kohesioa handituz.
- Hiriko kalteberatasun- eta bereizketa-egoerak lehengoratzea.
- 2050erako EAEko etxebizitza- eta zerbitzu-eraikinetako deskarbonizazioa bultzatzea.
- Etxebizitza- eta zerbitzu-eraikinen irisgarritasun unibertsala erdiestea.
- Etxebizitza-eraikinen bizigarritasun-baldintzak hobetzea.
- Berroneratutako auzoetan bizi diren pertsona kalteberen enplegagarritasuna eta gizarteratzea sustatzea.
- Tokiko dendetako produktuak egituratzen, merkaturatzen eta banatzen laguntzea.
- Ekonomia suspertzeko prozesuak bultzatzea.

Garapena / Irakaspenak

Proiektu europarrak Europako Batzordearen Horizon 2020 programaren 1,7 milioi euroko laguntza jaso zuen 2019-2022 aldian, eta 2023ko urtarrilean amaituko da. Ordurako, Otxarkoagan (Bilbo) 248 etxebizitza egongo dira berrituta, eta Txontan (Eibar) 221 etxebizitza.
Eraikinak nolakoak, esku-hartzeak halakoak izan dira. Nagusiki, energia-kontsumoa gutxitzeko neurriak (isolamendua eta abar) eta irisgarritasuna hobetzeko neurriak (igogailuak jartzea) hartu dira. Dena dela, beste esku-hartze mota batzuk ere egin dira, etxebizitzak balkoien bitartez handitzea, adibidez (pandemiako itxialdien ondoren, auzokideek izugarri estimatu dute neurri hori). Ondorioz, auzo pilotu horietan, energia-kontsumoa asko jaitsi da (% 60 inguru, batez beste) eta bizigarritasun-baldintzak asko hobetu dira (etxe barruak beroagoak eta lehorragoak dira).
Hona hemen irakaspen nagusiak, labur-labur:

1. Epe luzeko deskarbonizazio helburuak betetzeko, hiri-berroneratzeak osoa izan behar du, eta auzoak hartu behar dira ardaztzat, ez eraikinak bakarrik.
2. Gobernantza ona eta maila anitzeko erakundeen eta eragile anitzen arteko elkarlana (enpresak, profesionalen elkarteak, hirugarren sektorea...) erabakigarriak dira.
3. Birgaitze-proiektuak kudeatzeko ezinbestekoak dira hurbileko tratua eta arreta pertsonalizatua. Konfiantza, enpatia eta gardentasuna oso garrantzitsuak dira prozesu horretan.
4. Finantziazioak arrazoizkoa izan behar du, eta horretan zeregin handia dute agintari publikoek.

Hurrengo pausoak

Lehen esan bezala, Opengela proiektu europarra hiriak berroneratzeko benetako "eredu" bihurtu da, eta beste udalerri batzuetara zabaltzen ari da dagoeneko. Gaur egun Aramotzeko (Durango) 181 etxebizitza eta Basaundiko (Lasarte-Oria) 151 etxebizitza berritzen ari dira, eta lanak 2023an amaituko dituzte.
Erronka nagusia da programa sendotzea eta beste auzo batzuetara eta EAEko gainerako udalerrietara zabaltzea. Horiek horrela, 1.050 etxebizitza gehiagotan esku hartzea adostu da, EAEko auzo hauetan: 350 etxebizitza Andonaegin (Pasaia), 195 etxebizitza San Andresen (Trapagaran), 200 etxebizitza Las Peñucasen (Abanto-Zierbena), 104 etxebizitza Aurora Vildosolan (Santurtzi), 95 etxebizitza Goikolarran (Amurrio) eta 106 etxebizitza Landatan eta Dolores Madarian (Urduña).

Egokitasun estrategikoa

Bultzatu 2050 Hiri Agendaren zeharkako 5 arloei dagokienez, proiektuak honako hauekin bat egiten du, bereziki: lurraldekotasuna, osotasuna eta gobernantza.

Sare arduraduna / Eragilea

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Kontseilaritza – Lurralde Plangintza eta Hiri Agendaren Zuzendaritza.
Bilbao Etxebizitzak (Bilbo) eta DEBEGESA (Debabarrenako Garapen Ekonomikorako Elkartea).
Energiaren Euskal Erakundea (EEE).

Esteka interesgarriak

www.opengela.eus

Proiektuaren izena: Aukerak Suspertzen

Hasitako urtea: 2021

Proiektuaren eta Euskadiko Hiri Agendako Lehentasun Estrategikoen (LE) arteko egokitasuna

LE 4: Hiri berritzaile eta jakintsuak.
LE 5: Hiri dinamiko eta lehiakorrak.
LE 7: Bizi-kalitatean ardaztutako hiriak.
LE 8: Dibertsitatea eta inklusioa, hirien bereizgarri.

Proiektuaren eta GJHen arteko egokitasuna:

Testuingurua eta helburuak

Aukerak Suspertzen programa Ekitatea proiektuaren azpi-proiektu bat da. Agintzari gizarte-ekimeneko kooperatibak kudeatzen du, eta Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren 2018-2022 aldirako Familiei laguntzeko 4. Erakundearteko Planaren parte da. Euskal erakunde publikoekin elkarlanean, eta beste ekimen publiko eta hirugarren sektoreko ekimen batzuekin bat eginik, eskolaz kanpoko hezkuntza-laguntza eskaintzen die gizarte-desabantailan dauden haur eta nerabeei, tokiko komunitate-sarea sustatuz.

Programak gizarte-desabantailan dauden eta eta hezkuntza-prozesuan aurrera egiteko zailtasun gehien dituzten Lehen eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeak hartzen ditu; zailtasunak izan ditzakete baliabide digitalik eta konektibitaterik ez dutelako, edo beharrezko gaitasunak lantzeko babesik ez dutelako. Betiere, haur eta nerabe horiek aurrez identifikatzen dira, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin elkarlanean. Programak eskolaz kanpoko (ikasgelatik kanpoko) hezkuntza-laguntza eskaintzen du (aurrez aurrekoa zein birtuala), tokiko komunitate-sarea sustatuz. Lan horretan boluntarioek eta esku-hartze sozialeko profesionalek jarduten dute. Helburua da haurrei eskolako lanak egiteko, gaitasun digital eta/edo linguistikoak garatzeko eta ikasketa-teknikak berenganatzeko dituzten premiak betetzen laguntzea. Horren osagarri gisa, gainera, familiei ere laguntzen diete seme-alabei laguntzeko behar dituzten gaitasunak lantzen. Horretarako, haur eta nerabeek behar duten materiala jasotzen dute (ordenagailu eramangarriak eta konektibitatea ziurtatzeko gailuak); betiere, irizpide jakin batzuk bete behar dituzte.

Tokiko kanpainak sustatze aldera, komunitateko baliabideen arteko elkarlana bultzatzen da eta behar diren tresnak banatzen dira, herritarrei programaren berri emateko eta udalerrian boluntario gisa jardun nahi duten pertsonengana heltzeko. Halaber, programan jasotako jarduerak gauzatzeko behar diren baliabideak eskatzen dira, laguntza aurrez aurre emateko guneak, adibidez. Boluntarioek, adingabeen premiak identifikatu ondoren, premia horiei aurre egiten laguntzen diete. Betiere, proiektuan parte hartzen duten erakundeetako profesionalen batek segimendua egiten du. Haurrek astean ordubeteko laguntza jasotzen dute, gutxienez, ikasturtea amaitu arte. Aldi berean, familiek ordu eta erdiko lau talde-saiotan parte har dezakete. Saioak erakundeetako profesionalek dinamizatzen dituzte, eta helburua da lehen aipatutako gaitasunak lantzea.

Garapena / Irakaspenak

2021eko balantzeko datuak oso onak dira, programa sendotzen ari dela egiaztatzen baitute. Eskolaz kanpoko hezkuntza-laguntza jaso duten ikasleen kopurua % 90,57 handitu da, aurreko ekitaldiaren aldean. Guztira 2.123 haurrek parte hartu dute ekimenean, 2020an baino 1.009 gehiagok. % 75 ikastetxe publikoetakoak dira, eta % 25 itunpeko ikastetxeetakoak.

Haur-kopuruak EAEko lurralde guztietan egin du gora, batik bat Gipuzkoan: 2020an 118 haur ziren, eta 2021ean 576. Beste bi lurraldeetan ere igoera proportzionala izan da: Bizkaian, 725etik 1.118ra; eta Araban, 271tik 429ra.

Familiei dagokienez, iazko ekitaldian onuradun-kopurua dezente igo zen, % 80,28, hain zuzen ere, 745etik 1.673ra. Profilari dagokionez, familien % 53 bi gurasokoak dira, eta % 38 guraso bakarrekoak.

Alde horretatik, Aukerak Suspertzen programak 156 gailu eta 81 konektibitate-txartel laga ditu azken ikasturtean, eskolako lanetan laguntzeaz eta ikasteko teknikak indartzeaz gain.

Aukerak Suspertzen programaren 2021eko kostua 966.489,43 eurokoa izan da.

Hurrengo pausoak

Erronka nagusia da programa gizartean ahal bezainbeste barrentzea eta familia kaltebera gehiagorengana heltzea. Beraz, hauek dira 2022an eman beharreko pausoak:

- Sortutako sarea finkatzea, indartzea eta zabaltzea.
- Erakunde gehiagok parte hartzea, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin eta tokiko eragileekin.
- Programari udalerri gehiago atxikitzea.

Egokitasun estrategikoa

Bultzatu 2050 Hiri Agendaren zeharkako 5 arloei dagokienez, proiektuak honako hauekin bat egiten du, bereziki: genero-berdintasuna eta lurraldekotasuna.

Sare arduraduna / eragilea

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila, Familia eta Haurren Zuzendaritzaren bitartez, Agintzari sozietate kooperatiboarekin elkarlanean.

Esteka interesgarriak

https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/berdintasuna-justizia-gizarte-politiketako-saila
https://www.agintzari.com/eus
https://bolunta.org/bategiE/Dgintzari-aukerak-suspertzen/eu

Proiektuaren izena: Trapezistak

Proiektuaren eta Euskadiko Hiri Agendako Lehentasun Estrategikoen (LE) arteko egokitasuna

LE 1: Etxebizitza duinaz eta oinarrizko ekipamenduez gozatzeko eskubidea bultzatzea / Etxebizitza denontzat.
LE 7: Bizi-kalitatean ardaztutako hiriak / Bizitzeko eta denbora librerako ohitura osasungarriak sustatzea.
LE 8: Dibertsitatea eta inklusioa, hirien bereizgarri / Lau azpi-atalak.

Hasitako urtea: 2020

Proiektuaren eta GJHen arteko egokitasuna:

Testuingurua eta helburuak

Trapezistak programaren jatorria Lehen Urratsa da, Inor Atzean Utzi Gabe Funtsaren programa bat. Lehen Urratsa pandemia-garaian jarri zen abian, itxialdia deklaratu ondoren etxegabeak haientzako jarritako ostatuetatik irten zirenean. Pertsona horiek Lehen Urratsa programan sartu ziren, eta, gero, haietatik, familiaren babesik ez zuten gazteak programa pilotu batean hasi ziren, orain estruktural gisa finkatzen ari den Trapezistak programan, hain zuzen ere. Bi programak Ekitatea proiektuari atxikita daude, eta Trapezistak gazte horiei laguntzeko sailarteko eta erakundearteko Euskarri Estrategiaren parte da. Gazte babesgabe gero eta gehiago dago, eta behar ditugu. Orain arte Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman jasotzen zuten arreta, bereziki bazterkeria eta etxegabezia gainditzeko baliabideen bitartez. Trapezistak programa, ordea, migrazioaren eta gazteriaren inguruko politika normalizatuetan dago kokatua.

Trapezistak programak 18 eta 25 urte arteko familia-babesik gabeko gazteak hartzen ditu (salbuespenez, programa beste bi urte luzatu daiteke), migratzaileak zein bertakoak, babes-saretik ateratakoak zein atera gabeak. Horretarako, ostatua, gizarte-laguntza, gizarte eta hezkuntza esku-hartzea eta lan-bitartekaritza eskaintzen zaizkie, eta beren ostatu- eta mantenu-gastuak ordaintzen dira, baldin eta prestazio edo dirulaguntzarik jasotzen ez badute (dirulaguntzaren bat jasotzeko baldintzak betez gero, eskatu egin behar dituzte). Gazteek, programan sartzen direnean, eskubide eta betebeharrei buruzko borondate-akordio bat sinatzen dute, eta programan jarraitzeko ezinbestekoa da akordio hori betetzea.

Bizikidetza-ereduak kolektiboak dira, bereziki programaren lehen fasean. Gero, esperientzia pilotu gisa, bizikidetza-unitate txikiak antolatzen dira etxebizitza arruntetan. Hiru aukera daude: bata, ibilbide hori egiten ari diren gazteak eta antzeko ibilbidea egin duen gazte helduago bat elkarrekin bizitzea; bestea, ikasle edo langile gazteekin bizitzea; eta azkenik, adindu batekin bizitzea. Bigarren fasearen helburua da bizikidetza-unitate egonkorrak, enplegua eta norberaren gaitasun eta baliabideak finkatzea, nork bere kasa bizitza-proiektu bat gauzatzeko, epe ertain-luzera.

Programak, dibertsitatea eta migratzaileen ekarpen soziala balioetsiz eta erakunde publikoen eta gizartearen arteko elkarlana sustatuz, honako hauek lortzen laguntzen du: prestakuntza eta enplegua eskuratzea, pobrezia eta desparekotasuna gutxitzea, eta gizarteratzea eta ekitatea sustatzea. Genero-berdintasuna zeharkako helburu bat da; migratzaile gazteekin berdintasuna lantzen da, kulturarteko ikuspegitik.

Garapena / Irakaspenak

Garapena. Gaur egun (2022ko azaroa), Trapezistak programan Lehen Urratsa programatik eratorritako 233 pertsona daude, gehienak gizonak. Hala eta guztiz ere, programa zabaldu egingo da, 300 gazterentzako lekua izango dugulako, 2023ko ekitaldirako aurrekontua handitu egingo delako, gazteak fase batetik bestera igarotzen direlako (118 eta 115 pertsona daude fase bakoitzean), eta, gainera, alta arrakastatsuak izan ditugulako. Programak, gainera, ebaluazio-tresna bat du, gazteek beren ibilbidean egiten dituzten aurrerapenei buruzko informazio zehatza biltzeko balio duena, landutako arlo guztietan.

Lehen Urratsa eta Trapezistak programetan familia- edo gizarte-babesik ez duten gazteei helduarorako bidea egiten laguntzen honako hauek **ikasi ditugu**:

- Gizarte-babesa eta ostatua izanez gero: a) gehienek beren ibilbidean aurrera egiten dute eta urte gutxiren buruan beren kasa bizitza-proiektu bat aurrera eramateko gaitasun eta baliabideak eskuratzen dituzte; b) hasiera-hasieran gazteak zenbateraino baztertuta dauden aztertuz gero, gazteen egoera ez litzateke bazterketatzat edo bazterketa-arriskutzat hartuko.
- Gizarte-laguntza, ereduzko erakunde eta irudiak eta kasuaren koordinazioa prozesuan aurrera egiteko giltzarriak dira. Gainera, gai horiek balioesten dituzte gazteek gehien, ibilbidean aurrera egin duten gazte eredugarriez gain.
- Eskubide eta betebeharren borondate-akordioa ezinbesteko tresna da, bai pedagogiaren ikuspegitik, bai gizarte-laguntza errazteko. Gainera, funtsezkoa da programaren eta pertsonen eskura jartzen diren baliabideak arduraz erabiltzeko.
- Etxebizitza ezin eskuratzeak eta etxebizitza duinaz gozatzeko eskubidea ezin erabiltzeak gazte horien eta, orokorrean, gazte gehienen bazterketa-prozesuak indartzen ditu eta burujabetzeko, helduarorako bidea egiteko eta gizarteratzeko prozesuak eragozten ditu.
- Era horretako programak diseinatzeko, pilotatzeko eta gauzatzeko, ezinbestekoa da erakunde publiko eta sozialen arteko elkarlana eta hirugarren sektore sozialeko erakundeen sare-lana.

Hurrengo pausoak

- Programa Gipuzkoan zabaltzea, Araban martxan jartzea, eta Lehen Urratsa programatik ez datozen gazteei irekitzea, hiru lurralde historikoetan; hori, betiere, lurralde bakoitzeko partaide-kopuruaren proportzioa zainduz.
- Programa pilotu izateari eta dirulaguntzen esparruan kokatzeari utzi eta erantzukizun publikoko programa estruktural bihurtzea, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren mendekoa.
- Bizikidetza-aukerak sustatzea eta aukera horiek dibertsifikatzea.
- Prozesuak sistematizatzen aurrera egitea eta emaitzak ebaluatzen hastea.

Egokitasun estrategikoa

Programa migrazioaren eta gazteriaren inguruko politika normalizatuen parte da. Euskarri Estrategiarekin eta Ekitatea proiektuarekin lotuta dago, baita Erronka Demografikorako Euskal Estrategiarekin eta Gazteen Burujabetzarako Euskal Estrategiarekin ere.

Sare arduraduna / eragilea

- Eusko Jaurlaritza. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Migrazio eta Asilo Zuzendaritza.
- Agintzari sozietate kooperatiboa, Peñascal Fundazioa eta Euskadiko hirugarren sektoreko erakunde ugari, zeinek erreferentziazko erakunde gisa jarduten baitute.

Esteka interesgarriak

https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/albistea/2022/eusko-jaurlaritzak-trapezistak-programa-aurkeztu-du-familia-sarerik-gabeko-115-gazteri-laguntzeko-gizarte-bazterkeria-saihesteko/ Bigarren faseko datuak (115). Lehen fasean 118.

Proiektuaren izena: Ekiola

Hasitako urtea: 2021

Proiektuaren eta Euskadiko Hiri Agendako Lehentasun Estrategikoen (LE) arteko egokitasuna

LE 4: Hiri berritzaile eta jakintsuak.
LE 5: Hiri dinamiko eta lehiakorrak.
LE 6: Hiri jasangarri eta erresilienteak.

Proiektuaren eta GJHen arteko egokitasuna:

Testuingurua eta helburuak

Ekiola proiektuaren helburu nagusia tokiko energia-erkidegoak sortzea da, kontsumitzailea eredu deskarbonizaturako trantsitsio energetikoaren ardatz izan dadin eta bere energia sortzeko aukera izan dezan. Ekimen horri esker, herritarrek energia berriztagarria sortzen eta kudeatzen parte har dezakete, udalerri edo eskualdeetan eguzki-parke fotovoltaikoak jarriz. Ekiola EEEren eta Mondragon Korporazioko KREAN enpresaren arteko elkarlan publiko-pribatuaren emaitza.

Horretarako, kontsumitzaileen irabazi asmorik gabeko kooperatibak sustatzen ari dira. Kooperatiba horiek MW 1 eta 5 MW arteko potentziako eguzki-parke fotovoltaikoak eraiki eta funtzionaraziko dituzte, udalerri edo eskualdeetan, eta sortzen den energia kooperatibistek kontsumituko dute.

Hauek dira Ekiolaren helburu nagusiak:

- 2024. urterako tokiko 30 energia-erkidego sortzea, 400 kooperatibista ingurukoak eta kudeaketa kooperatibo eta komunitariokoak; erkidego horiek parke fotovoltaikoak eraiki eta funtzionaraziko dituzte.
- Kooperatibista bakoitzari bere kontsumorako behar adina panel fotovoltaiko egokituko zaizkio, eta, era horretan, espekulatzea eragotziko da. Ekiolak tokian-tokian energia berriztagarria ekoizten eta kontsumo arduratsua sustatzen lagunduko du.
- Ekiolak energia berriztagarri arrazoizkoa sortuko du, kutsatzen ez duena, eta hiri eta komunitateei energia-eredu jasangarriagoetarako bidea egiten lagunduko die.

Garapena / Irakaspenak

Tokiko energia-erkidegoak sortzeko proiektuek fase hauek dituzte:

- Ekiolaren eta proiektua gauzatuko den udalerriko Udalaren edo Tokiko Administrazioaren arteko lankidetza-hitzarmena egitea.
- Zerbitzu-kooperatiba eratzea. Kideak Ekiola eta Mondragon Korporazioko enpresak izango dira, eta Udala bazkide kolaboratzailea. Kooperatiba arduratuko da proiektu teknikoa egiteaz eta parke fotovoltaikoa sustatzeaz eta ezagutzera emateaz.
- Zerbitzu-kooperatiba kontsumo-kooperatiba bihurtzea. Aurrerantzean, kooperatibako bazkideak herritar kontsumitzaileak izango dira.
- Proiektu fotovoltaikoa egikaritzea. Gutxienez 25 urtean funtzionatzea eta zaintzea.

Gaur egun 12 kontsumo-kooperatiba daude eratuta, bakoitza bere aurrerapen-fasean. Gutxien aurreratu direnetan, lurra aurkitzeko, sarbideak antolatzeko eta banaketa-sareari konektatzeko arazoak izan dituzte. Erdi aurreratuta dauden kasuetan, arazoek administrazio-izapide edo gizarteratze-prozesu motelekin dute zerikusia. Hauek dira dagoeneko eratuta dauden 12 kooperatibak: **Ekindar** (Azpeitia), **Egutera** (Zumaia), **Leintz Bailarako Ekiola** (Arrasate), **Donostiako Ekiola** (Donostia), **Urretxuko Ekiola** (Urretxu), **Aiarako Ekiola** (Amurrio), **Añanako Ekiola** (Kuartango), **Arabako Errioxako Ekiola** (Arabako Errioxa), **Arabako Mendialdeako Ekiola** (Arraia-Maeztu), **Arabako Lautadako Ekiola** (Agurain), **Gorbeialdeko Ekiola** (Etxebarri-Ibiña) eta **Lea Artibaiko Ekiola** (Etxebarria). Bi parke fotovoltaiko 2022an hasiko dira eraikitzen, eta gainerakoak 2023an.

Hurrengo pausoak	Egokitasun estrategikoa
Martxan dauden 12 proiektuetan faseak aurreratzea. 2023an proiektu berriak abian jartzea, 30 energia-erkidego eratzeko helburua lortu arte. Urtero emaitzen balantzea egingo da, eta 2024. urtean azken ebaluazioa.	Bultzatu 2050 Hiri Agendaren zeharkako 5 arloei dagokienez, proiektuak honako hauekin bat egiten du, bereziki: lurraldekotasuna eta gobernantza.

Sare arduraduna / eragilea	Esteka interesgarriak
Proiektu-burua Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila da, nahiz eta EEEk koordinatzen duen.	www.ekiola.eus

Proiektuaren izena: Tokiko hiri-eredu erantzunkide eta genero-ikuspegidunak

Hasitako urtea: 2021

Proiektuaren eta Euskadiko Hiri Agendako Lehentasun Estrategikoen (LE) arteko egokitasuna

LE 1: Etxebizitza duinaz eta oinarrizko ekipamenduez gozatzeko eskubidea bultzatzea.
LE 3: Hiria antolatzeko eredu jasangarri berri bat.
LE 5: Hiri dinamiko eta lehiakorrak.
LE 7: Bizi-kalitatean ardaztutako hiriak.
LE 8: Dibertsitatea eta inklusioa, hirien bereizgarri.

Proiektuaren eta GJHen arteko egokitasuna:

Testuingurua eta helburuak

Berdinsarea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako udal-sarea, 2006. urtean sortu zen EUDELen eta Emakunderen babesarekin, euskal udal-gobernuen maila gorenean konpromisoak bateratzeko. Estatuan eta Europan aitzindari da, Udalek gobernatzen dutelako zuzenean. Gainera, adostasuna eta partaidetza sustatzen ditu, maila politiko zein teknikoan, udalerrientzako eta gizarte osoarentzako "balio-sare" bihurtzeko. Hori, printzipio hau oinarritzat hartuta: Udalek zeregin garrantzitsua dute berdintasunaren erronkari erantzuteko, gai horretan aurrera eginez lortuko den gizarte-eraldaketaren agertoki baitira.

Euskadin, Giza Garapenaren Indizea handia da, inor baztertzen ez duen gizarte-eredu inklusiboaren aldeko apustu argia egin dugu, gizarte-babeseko sistema oso aurreratua dugu eta erakunde publikoek protagonismo handia dute sistema horretan. Hala eta guztiz ere, Euskadin indarrean dagoen zaintzako gizarte-ereduak familiengan, eta, batez ere, emakumeengan uzten du adingabeak, mendetasunak dituzten pertsonak eta adinduak zaintzeko ardura handiena. Ondorioz, erantzukizunak eta zereginak banatzeko sistema desorekatua eta bidegabea da. Herritarrek bizi diren lekuetan geratzeko gero eta premia handiagoa dute, eta erakunde publikoek gaitasun mugatua dute premia horiei erantzuteko eta herritarrei autonomo izaten laguntzeko. Horiek horrela, zaintza-zerbitzuen merkatu paralelo bat sortzen joan da, maiz prekarizatua eta aintzatetsi gabea. Eta hara non horrek diskriminazio intersekzionala areagotzea ekarri duen, sektore horretan emakume migratzaile eta pobretuek lan egiten baitute, gehienbat. Errealitate hori COVID-19aren pandemiarekin larriagotu egin da, zaintza-sistema muturreraino estutu baitu. Hala, sistema horren ahuleziak eta prekarietatea agerian geratu dira, eta presazkoa da eredu berri bat garatzea.

Proiektu honen asmoa da tokiko zaintza-sare bat nola eraikitzen den identifikatzea, zehaztea eta moldatzea. Sare hori eratzeko, ezinbestekoa da bizitza ardaztzat hartzea, zerbitzu publiko eta komunitate-sareek parte hartzea, zaintza-sisteman inplikatuta dauden agenteen artean aliantzak sortzea eta printzipio hauen arabera jardutea, besteak beste: gizarte-erantzunkidetasuna, arreta-zerbitzuen kalitatea eta jasangarritasuna, eta emakumeen inplikazioa eta eragina, intersekzionalitatearen ikuspegitik (emakume migratzaileak, guraso bakarreko familiak...). Zehazki: Zaintza erantzunkideen eredu bat zehaztea, ikuspegi feministaren zehatz eta aintzatetsiarekin, eta tokiko zaintza-sareak antolatzeko ibilbide edo bide-orria egitea; eta eredua ezartzea, landa-eremu eta eremu zahartuetako udalerri txikienen errealitatean arreta berezia jarrita.

Garapena / Irakaspenak

Hona hemen helburu horiek lortzeko proiektu honetan eman beharreko pauso edo kontuan hartu beharreko irizpideak:

Hausnarketa-ekintza kritiko bat egitea, tokiko eredu berri bat lortzeko bidean aurrera egiteko. Eredu horrek ez du zaintza estereotipoen arabera banatuko, horrek desparekotasuna areagotzen duelako; aitzitik, lan horiek balioetsiko ditu, eta bizi-kalitatean eta bizikidetzan ekarpen garrantzitsuak egiten dituztela aintzatetsiko du.

Eredua eta bide-orria tokian-tokian probatzea, laguntza-prozesuen bitartez eta Berdinsarearen babesarekin.

2022an eta datozen urteetarako, gaur egungo egoerak lagunduta, **hiru aukera** sortu dira: Berdintasunaren Euskal Lege berria; udalerriek bultzatutako gizarte-eraldaketa, pertsonak ardatzean jartzen dituena; eta euskal Udalek, Eudelek koordinatuta, Garapen Jasangarrirako Helburuei egiten dizkieten ekarpenak.

Hurrengo pausoak	Egokitasun estrategikoa
2022an aurretiko eredua zehaztu eta gero, hauek dira hurrena eman beharreko pausoak: • Lehenbiziko ezarpenak gauzatzea, berrikustea eta sakontzea. • Aurkezpen-saioak eta Udalen jardunbide egokiak trukatzeko tailerrak egitea. • Zaintza ikuspegi feministarekin kudeatzeko tokiko eredua ezartzeko jardunbide egokien eskuliburua argitaratzea.	Bultzatu 2050 Hiri Agendaren zeharkako 5 arloei dagokienez, proiektuak honako hauekin bat egiten du, bereziki: genero-berdintasuna eta lurraldekotasuna.
Sare arduraduna / eragilea	**Esteka interesgarriak**
Berdinsarea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako udal-sarea, Emakundek eta Eudelek sustatua.	https://berdinsarea.eus/gobernanza

Proiektuaren izena: Enplegagarritasuna hobetzeko ibilbide osoak

Hasitako urtea: 2022

Proiektuaren eta Euskadiko Hiri Agendako Lehentasun Estrategikoen (LE) arteko egokitasuna

LE 6: Hiri jasangarri eta erresilienteak.
LE 7: Bizi-kalitatean ardaztutako hiriak.
LE 8: Dibertsitatea eta inklusioa, hirien bereizgarri.

Proiektuaren eta GJHen arteko egokitasuna:

Testuingurua eta helburuak

Pertsonen enplegagarritasuna hobetzeko eta lan-munduan sar daitezen lortzeko, premiazkoa da gaitasunak eskuratzea (zeharkakoak, teknikoak, sortzaileak, hizkuntzari buruzkoak eta teknologikoak, besteak beste). Krisi ekonomikoek eta lan-merkatuaren gorabeherek pertsona kalteberenei eragiten diete, besteak beste gazteei, 45 urtetik gorakoei, emakumeei, migratzaileei eta luzaroko langabeei. Beraz, ezinbestekoa da pertsona horiei prestakuntza eraginkorra eskaintzea, gure ekoizpen-sareko benetako premiei egokitua. Horretarako, ibilbide osoak antolatu behar dira, pertsona bakoitzaren premietan oinarrituak, zeharkako gaitasunak ere landu behar dituztela kontuan hartuta.

FutureLan Euskadiko enplegu eta lan-joeren prospektibaren behatokiak aldian-aldian argitaratzen dituen datuei begiratzen badiegu, etorkizunean lanbideei eragingo dieten funtsezko joeren artean honako hauek aurkituko ditugu: zeharkako gaitasunak, abilezia digitalak (teknologia etengabe aurreratzen baita) eta hizkuntza-gaitasunak handitzeko premia. Eta joera horiek, gainera, landunei zein langabeei eragingo diete. 2020-2030 aldirako enplegu-eskaintzen aurreikuspenari dagokionez, gero eta langile kualifikatuagoak eskatuko dituzte, ikasketa-maila handiagokoak. Beraz, errealitate horiei erantzuten dieten prozesuen bitartez lan egin beharko dugu.

Horiek horrela, proiektu honen asmoa da premia horiei gizarteratze- eta laneratze-ibilbide osoak diseinatuz erantzutea eta laguntza-zerbitzu osoa eskaintzea, inor bidean gera ez dadin.

Horretarako, hiru lan-ildo landuko ditugu: gizarte- eta lan-premiak dituzten pertsonentzako ibilbide osoak, lan-premiak dituzten pertsonentzako ibilbide osoak eta enpresentzako zeharkako ekintzak.

Garapena / Irakaspenak

Proiektua premisa hauek aintzat hartuta garatu dugu: enplegua lortzen laguntzeko ibilbide osoen ereduan sakontzea, enplegua errazago lortzeko gaitasun profesional eta pertsonalak lantzea, enpresen premietara hurbiltzea eta enpresa horiek gehiago konprometitzea, enpleguan duten gizarte-erantzukizunari dagokionez.

Proiektua garatzeko, oinarrizko funtzionamendu-irizpide hauek jarraitu ditugu:

- Gaitasun pertsonalak lantzeko jarduerak indartzea, baita etorkinek hizkuntza-gaitasunak eskuratzeko eta ingurunea eta kultura hobeto ezagutzeko jarduerak ere.
- Banakako laguntza-jarduerak sustatzea.
- Gorabidean dauden profil profesional berriak goiz identifikatzea, prestakuntza-eskaintza premia berri horiei egokitzeko.

Hurrengo pausoak	Egokitasun estrategikoa
Hurrengo pausoak parte hartzen duten eskualdeetan programa etengabe garatzera bideratuko ditugu.	Bultzatu 2050 Hiri Agendaren zeharkako 5 arloei dagokienez, proiektuak honako hauekin bat egiten du, bereziki: lurraldekotasuna eta genero-berdintasuna.
Sare arduraduna / eragilea	**Esteka interesgarriak**
Garapen, Euskal Herriko tokiko erakundeek eratutako garapen-agentziak biltzen dituen elkarte profesionala.	https://garapen.net/eu/hasiera/

Proiektuaren izena: Tokiko Ekintza Klimatikoa, Udalsarea 2030en esparruan. Klimaren eta Energiaren Ituna

Hasitako urtea: 2021

Proiektuaren eta Euskadiko Hiri Agendako Lehentasun Estrategikoen (LE) arteko egokitasuna

LE 2: Hirietako mugimendua: mugikortasun berri baten aldeko apustua.
LE 5: Hiri dinamiko eta lehiakorrak.
LE 6: Hiri jasangarri eta erresilienteak.
LE 7: Bizi-kalitatean ardaztutako hiriak.
LE 8: Dibertsitatea eta inklusioa, hirien bereizgarri.

Proiektuaren eta GJHen arteko egokitasuna:

Testuingurua eta helburuak

Udalsarea 2030eko kide diren erakundeek sortu zirenetik dute klima-aldaketaren aurka borrokatzeko konpromisoa, lehenbiziko tokiko ekintza-planetan dagoeneko jaso baitzituzten arintze-neurriak. Lehen lantaldea, "Udalerria eta klima-aldaketa", 2005ean eratu zen. Hasieran, ekintza klimatikoa aldaketa arintzearen ikuspegitik jorratu zen. 2008an, ordea, arintzearen eta egokitzearen ikuspegi orokorra tokiko plangintzan sartu zen. Gainera, 2015ean konpromiso politikoa indartu zen, 2030 Agendaren eta Parisko Akordioaren bitartez.

Klimaren eta Energiaren aldeko Alkateen Ituna klimaren eta energiaren inguruko tokiko ekintzak gauzatzeko munduko hirien mugimendu handiena da. Ekimenak arrakasta handia izan du eta, gaur egun, 57 herrialdeko tokiko eta eskualdeko 7.000 agintarik baino gehiagok parte hartzen dute. Euskadin, gaur egun 21 udalerri daude Itunari atxikita, guztira 1,7 milioi pertsona (Euskadik 2,2 milioi biztanle ditu). Itunari atxikitzea marketina baino gehiago da. Izan ere, udalerriek Klimaren eta Energia Jasangarriaren Ekintza Plan (KEJEP) bat egiteko konpromisoa hartzen dute, eta plan horretan helburuak lortzeko zer pauso emango dituzten jasotzen dute.

Klima-aldaketaren aurkako borroka lehentasun nagusi bihurtu da. Borroka horretan gizarte osoa engaiatu behar da, baina, bereziki, tokiko erakunde publikoak, erantzukizun bikoitza baitute: batetik, konpromiso horren eredu izatea, gauzatzen dituzten jardueren bitartez; eta bestetik, beren lurraldeetako gainerako eragileak eta hiritarrak konprometitu daitezen bultzatzea eta lortzea, bai arauak ezartzeko gaitasuna erabiliz, bai dinamizazio-jardueren bitartez, hausnarketa- eta lankidetza-eremuei bidea emanez eta erronka orokor horren inguruko sentsibilizazio- eta pedagogia-lan irmoaren aldeko apustua eginez.

Helburuak hiru multzo handitan sailka daitezke:

- Tokiko klima-ekintza bultzatzea, bere bi arlotan: arintzea eta egokitzea.
- Ikuspegi osoa, zeharkakotasunaren eta interkonexioaren kontzientzia eta klima-aldaketaren aurka modu koherentean jarduteko ahalmena sustatzea, eta, horretarako, udalen hainbat kudeaketa-eremutan jardutea: hirien berdatzea eta konponbide naturalak, hondakinen kudeaketa, energia-kontsumoa eta energia berriztagarriak, mugikortasuna eta osasuna.
- Tokiko erakundeei laguntzea eta aholku ematea, Jasangarritasun Energetikoari buruzko gaur egungo 4/2019 Legean eta etorkizunean egingo den Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren euskal Legean ezarritako baldintzak bete ditzaten.

Garapena / Irakaspenak

2021. urtearen amaieran "Klimaren eta Energiaren Tokiko eta Eskualdeko Planak egiteko gida metodologia (Udalsarea 2030)" argitaratu zen. Gidaren ikuspegia eta edukiak EAEko hainbat udal eta eskualdeko erakunderekin kontrastatu dituzte. Ekimena Ihobek zuzentzen du (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari atxikitako Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa da), Euskal Energiaren Erakundearekin (EEE) koordinatuta, Udalsarea 2030en eta LIFE IP Urban Klima 2050 proiektuaren esparruan.

2022an jarduera hauek gauzatu dira:

- Tokiko klima-ekintza sustatzeko baliabide eta tresnei buruzko jardunaldia.
- Tresna berriak eta beharrezko zerbitzuak identifikatzeko hausnarketa eta proposamena.
- Udalerri eta eskualdeetako BEGen inbentarioak eta udalen eta tokiko erakundeen karbono-aztarnari buruzko inbentarioak kalkulatzeko tresnak banatzea.
- BEGen eta karbono-aztarnaren inbentarioak kalkulatzeko udalaz gaindiko iturrietako tokiko datuak eskatzea eta tratatzea.
- Tokiko Klima Aldaketako Lantalde espezifiko bat martxan jartzea.
- Tokiko klima-ekintza eta Alkateen Ituna aintzatesteko jardunaldia.
- "Klima-aldaketa eta trantsizio energetikoa udal-arloan" ikastaroa ematea, IVAPekin eta EUDELekin elkarlanean.
- BEGen eta karbono-aztarnaren inbentarioak kalkulatzeko tresna berriak erabiltzeko gaitzea.

Hurrengo pausoak	Egokitasun estrategikoa
• 2023an eta 2024an tokiko klima-aldaketa eta Alkateen Ituna dinamizatzen jarraituko da, EEEk eta Ihobek koordinatuta. • Etorkizunean egingo den Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren euskal Legeak udalerri guztiak behartuko ditu Klima eta Energia Planak izatera; 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan plan horiek eskualdekoak izan daitezke.	Bultzatu 2050 Hiri Agendaren zeharkako 5 arloei dagokienez, proiektuak honako hauekin bat egiten du, bereziki: osotasuna eta lurraldekotasuna.
Sare arduraduna / eragilea	**Esteka interesgarriak**
UDALSAREA 2030, Udalerri Jasangarrien Euskal Sarea.	http://www.udalsarea2030.eus/hasiera https://www.urbanklima2050.eu/eu/

Proiektuaren izena: ELoGE, tokiko gobernantzaren bikaintasun-zigilua

Hasitako urtea: 2017

Proiektuaren eta Euskadiko Hiri Agendako Lehentasun Estrategikoen (LE) arteko egokitasuna

LE 3: Hiria antolatzeko eredu jasangarri berri bat.
LE 4: Hiri berritzaile eta jakintsuak.
LE 5: Hiri dinamiko eta lehiakorrak.
LE 7: Bizi-kalitatean ardaztutako hiriak.
LE 8: Dibertsitatea eta inklusioa, hirien bereizgarri.

Proiektuaren eta GJHen arteko egokitasuna:

Testuingurua eta helburuak

Gobernantza bikainaren ikuspegitik, garapen jasangarrian aurrera egiteko ezinbestekoa da gobernantza irekiaren bitartez GJHak lortzen laguntzea. Gobernantza bikainak oinarrizko bi elementu ematen ditu lankidetzan oinarritutako edozein proiektu handinahik arrakasta izan dezan: legezkotasuna eta konfiantza. 2030 Agendak proiektu eraldatzaileekin bat egiteko aukera ematen die udalerriei. Proiektu batzuek zuzenean eragiten diete garapen jasangarriari eta pertsonen bizi-kalitateari; eta beste proiektu batzuetan gaitasun berriak lan ditzakete, gero tokiko gobernantzan erabiltzeko.

ELoGE proiektua Europako Kontseiluak bultzatu du, tokiko gobernuek batera lan egin dezaten, jasangarritasunaren ikuspegitik, udal-kudeaketa eraginkorra izan dadin. Zigiluak gobernantza etengabe hobetzea sustatzen du, zerbitzu publikoen kalitatea hobetzeko, herritarrek parte hartzeko eta herritarren espektatibak gogobetetzen dituzten politikak gauzatzeko. ELoGE metodologia autoebaluazio-sistema berritzaile batean dago oinarrituta: gobernantza egokiaren 12 printzipioak zenbateraino betetzen diren neurtzeko adierazleak (benchmark) dituen tresna bat; printzipio horietan Europako demokraziaren funtsezko balioak daude jasota. Udalek, zigilua jasotzeaz gain, ELoGE proiektuan parte hartuz adierazten dute etengabe hobetzeko eta bikain jarduteko konpromiso handia dutela. Zigilua bi urtez behin berritzen da, udalek beren burua berriz ebalua dezaten; era horretan, gobernantza onarekin duten konpromisoa zenbateraino hobetu eta barneratu duten kuantifikatzen da.

2017tik, zigilua EUDELek ematen die udalei. 2017an eta 2018an, proiektu pilotuak sustatu ziren hainbat neurritako udalerritan, tresna europarra probatzeko eta EAEn tokiko errealitateari egokitzeko. 2020ra arte ekimen horren hiru edizio egin dira, non 16 udalerrik parte hartu baitute; horietatik zortzik zigilua jaso dute.

Tokiko gobernantza bikainaren inguruko ELoGE proiektuak helburu hauek ditu:

- Proiektuaren fase handinahiago bati ekitea eta, pixkanaka, udalerri gehiago batzea.
- Proiektua eta tokiko gobernantza bikainaren garrantzi estrategikoa gehiago zabaltzea.
- Proiektuan elementu baliotsu gehiago sartzea, kudeaketa bikaineko jardunbide berriak pixkanaka ezartzen laguntzeko.

Garapena / Irakaspenak

Proiektua lan-ildo hauei jarraikiz garatzen da:

- GJHekin bat egitea. Europako Kontseiluak ezarritako gobernantza onaren 12 printzipioak jasota daude, modu batera edo bestera, GJHak osatzen dituzten 169 xedeetan; kontua da bat-egite hori ezagutzera ematea sustatzea.
- Proiektuak eta tokiko gobernantzaren bikaintasunak daukaten balioa gizarteratzea. Komunikazio zuzena areagotzeaz gain, jarduera berri batzuk irekiak izatea, edozein udalerrik parte hartzeko aukera izan dezan eta programara udalerri gehiago hurbil daitezen.

Berrikuntzak eta gobernantza egokiak erronka berriak eta gainditu beharreko bikaintasun maila handiagoak sortzen dituzte egunero. Bikaintasuna ez da, berez, xede bat, norberaren eta besteen esperientziekin ikasteko bide bat da.

Hauek dira lan-metodologia horren abantaila nagusiak:

- Gobernantza Europako Kontseiluaren metodologiaren bitartez lantzen da.
- Udalerri batzuk besteekin aldera daitezke, irizpide bateratuen arabera.
- Tokiko gobernuaren indar eta ahuleziak identifikatzeko aukera ematen du.
- Autoebaluaziorako tresna bat da, denboran iraun dezakeena.
- Europan jardunbide onak aintzatesteko eta zabaltzeko sistema bat da.
- Gobernantza eta zerbitzu publikoak etengabe hobetzea sustatzen du, herritarrak inplikatuta.

Hurrengo pausoak	Egokitasun estrategikoa
Metodologia euskal udalen errealitateari egokitu eta lehen esperientziak gauzatu ondoren, 2022-2024 aldian proiektua handinahiagoa izango da, gehiago zabalduko da. Landu beharreko ildo espezifikoetako bat da udalerri txikiek parte har dezaten bultzatzea, eta, horretarako, metodologia haien errealitateari egokitzea.	Politika publikoak egokitzeko eta ebaluatzeko zeharkako erronkari erantzuten dio.
Sare arduraduna / eragilea	**Esteka interesgarriak**
Eudel, Euskadiko Udalen Elkartea.	https://www.eudel.eus/eu/ https://eloge.eudel.eus/eus/eloge.php



03

3. Adierazleak: Emandako pausoen neurketa ikuspegi integral betetik

3.1. Aurrekariak: Abiapuntutik gaur egungo adierazleen proposamenera

3.1.1 Euskadiko Hiri Agenda eta eskala globaleko hiri-esparruaren arteko lotura

Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agenda ezartze aldera, 2021ean Agendarako adierazleen esparrua zehaztu zen, besteak beste. Adierazle horiek balioko dute, batetik, Agenda ezartzeko aurrerapausoen segimendua egiteko; bestetik, ezarritako politiken eragina baloratzeko; eta azkenik, euskal gizarteko agenteei Agendaren berri emate aldera prestatuko diren aurrerapen-txostenetarako datu garrantzitsuak biltzeko eta hornitzeko.

Lan horri esker, Bultzatu 2050erako lehen adierazle-esparrua sortu zen (NBE-Habitat agentziaren laguntzarekin eta Hiriak Monitorizatzeko Esparru Orokorrean zehaztutako lerroei jarraikiz), eta HALTak baloratu eta onartu zuen 2022ko martxoaren 13ko bileran.

	Hiri seguruak		Hiri inklusiboak	
Gizartea	Uraren kalitatearen indizea	Haurren heriotza-tasa	Kulturarako eta olgetarako erabiltzen den lurraren %	AROPE tasa
	Osasunera bideratutako aurrekontuaren %	Kriminalitate-tasa	Etxebizitzarik ez duten pertsonentzako aurrekontua	Giniren koefizientea
	Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko jarduerak dituzten udalerrien %	Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima-kopurua	Hiri-eremu kalteberetarako aurrekontua	Gabezia material larriaren indizea
Ekonomia	Etxeko edo zaintzako lanetan egunean emandako orduen %	Eskola uzte goiztiarraren tasa	Gizarterako eta lan-munduan sartzeko programetarako aurrekontua	Ez ikasten ez lanean ari ez diren gazteen ehunekoa
	Tokiko lehiakortasun-programa edo -planak izatea	Ondare kulturaleko aktiboek erakarritako bisitari-kopurua	Gizarte-ekonomia babesteko planak izatea	Langabezia-tasa
	Tokiko dinamizaziorako aurrekontua		Hiri adimendunak izateko planak dituzten hirien kopurua	

	Hiri seguruak		Hiri inklusiboak	
Ingurumena	Zabortegira eramandako hiri-hondakinak biztanleko	Airearen kutsaduraren eraginpean dauden biztanleen indizea	Jendearentzako zabalik dauden berdeguneen %	Etxetik gehienez 400 metrora eremu irekiren bat eskura duten haurren proportzioa
	Hondakinak kudeatzeko planak izatea	Birziklatutako edo berrerabilitako hondakinen %	Hobetzeko edo arrisku naturalak prebenitzeko jarduerak egitea aurreikusitako lurren azalera	Oinarrizko zerbitzu nagusietatik gertu dauden biztanleen %
	ED	Hondakinen kudeaketarekin zerikusia duten istripuen %	Hiri-azpiegitura berdeetarako lurren azalera	Hiri-berdeguneetatik gertu bizi diren biztanleen %
Kultura	Liburutegi publikoak	ED	Azken urtean ekitaldiren batera joan diren EAEko biztanleak	ED
Gobernantza	Udalek kudeatzen duten gastu publikoaren %	Borondatezko lanak egiten dituzten biztanleen %/Udal-hauteskundeetako partaidetza	Genero-berdintasunaren indizea	Emakumezko zinegotzien proportzioa
	Herritarren segurtasunerako aurrekontuaren %	ED	Aukera-berdintasuneko tokiko planak izatea	Egoitza digitalaren bitartez egiten diren izapideen %

	Hiri erresilienteak		Hiri jasangarriak	
Gizartea	Osasun-aurrekontu publikoa biztanleko	Hondamen fisikoek eragindako heriotza-kopurua	Babes ofizialeko etxebizitzak	Etxebizitza-premiak dituzten biztanleen %
	Autosufizientzia hidrikoaren %	Lehen mailako arretako zentroak/100.000 biztanle	Etxebizitzak birgaitzeko aurrekontua	Birgaitutako azalera
	ED	ED	ED	Etxebizitza-programen onuradun-kopurua
Ekonomia	Bizitza osoan ikasteko prozesuan parte hartzen ari diren helduen ehunekoa	Interneten erabileraren %	Lurzoru urbanizatuaren aldakuntza / Biztanleriaren aldakuntza	Etxean kontsumitzen den materiala biztanleko
	Udalerrietan hiri-mugikortasun jasangarriko planak izatea	ED	Isuri gutxiko autobus-flota	Garraio publikoaren erabileraren %
	Eraikin, azpiegitura eta zerbitzu publikoen energia-kontsumoa	ED	Tokiko materialak eta erraz birzikla daitezkeen materialak erabiltzen dituzten jardueretarako aurrekontua	ED

	Hiri erresilienteak		Hiri jasangarriak	
Ingurumena	Airearen kalitatea monitorizatzeko estazioen kopurua	Airearen kalitatearen indizea	Bizikleta-bideen eta oinezkoentzako bideen % (bide-sare osoan)	Berotegi-gasen isuriaren indizea
	Berotegi-gas gutxiago isurtzeko planak izatea	Berotegi-gasen isuria urtean zenbat gutxituko den	Artifizializatutako lurren %	Kutsatutako lurren %
	ED	Irizpide bioklimatikoetan oinarritutako hobekuntza-jarduerak egitea aurreikusitako hiri-lurren azalera	ED	ED
Kultura	Kulturako gastu publikoaren %	Sektore kulturaletako enplegua	Birgaitu edo hobetu diren kultura-ondareko eraikin edo tokien azalera	ED
Gobernantza	Larrialdietako eta babes zibileko plan espezifikoak dituzten udalerrien proportzioa	Udalaren diru-sarrerak/Udalen diru-sarrera osoak	Berotegi-gasen isuria biztanleko	Garapen Jasangarrirako Helburuekin zerikusia duten udal-jarduerak
	Klima-aldaketari egokitzeko planak dituzten udalerrien proportzioa	Klima-aldaketari egokitzeko planek babestutako biztanleen %	Ingurumena kudeatzeko tresnen ezarpen-maila	ED

Hiriak Monitorizatzeko Esparru Orokorra (ingelesez GUMF) hirietako ezaugarriak eta ezaugarri horien bilakaera neurtzen dituzten adierazleetan dago oinarritua; adierazle horiek Hiri Agenda Berria egituratzen duten arloetan daude multzokatuta. Nazio Batuen Estatistika Batzordeak, 2022ko martxoko ohiko bileran, GUMF hiriak monitorizatzeko Nazio Batuen sistemaren tresna ofizial gisa onartu zuen.

3.1.2 Monitorizazio-esparruaren ekoitzpena Euskadin eskuragarri dauden datuetara

2022an, Bultzatu 2050eko monitorizazio-esparrua eta nazioartean erabiltzen den sistema bateraturik, adierazle horiek Euskadin eskura dagoen materialetara egokitu ziren, hiru iturri hauek oinarritzat hartuta:

- Batetik, EUSTATek bere web-orrian proposatutako adierazle-multzoa. Adierazle horiek GJHen arabera moldatuta eta Nazio Batuen helburu zehatzen arabera sailkatuta daude. Iturri hori funtsezkoa izan zen Bultzatuko adierazleekin kointzidentziak aurkitzeko edo, bestela, zeharkako adierazle baliagarriak (proxy) identifikatzeko. EUSTAT izan da Bultzatu 2050en segimendu-txosten hau egiteko iturri nagusia.

  Aldi berean, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak eta EUSTATek berak GJHetarako adierazle berriak zehazteko lanean parte hartu genuen. Izan ere, asmoa da 50 adierazle berritarako fitxa metodologikoak sortzea, administrazio-maila guztietan (autonomia-erkidegoan eta lurralde historikoetan) dauden datuak oinarritzat hartuta eta, ahal den neurrian, datu horiek udalerrika bereiztea. Bultzatu 2050en Idazkaritza Teknikoak EUSTATek, Lehendakaritzak eta hainbat agentek osaturiko lan-taldeen bileretan parte hartu zuen. Lan-taldeen helburua zen gutxienez 50 adierazle berri sortzea. Beraz, elkarlan horri esker txosten honek datu eta adierazle gehiago ditu.

- Bigarrenik, Udalsareko adierazleak. Udalsarea udalerri jasangarrien euskal sarea da, eta udalerrietako garapen jasangarriko datuak biltzen eskarmentu handia du. 2021eko abenduan, Udalsareak "Euskal udalerrien ekarpena Garapen Jasangarriaren Helburuei. Udalsarea 2030en jarraipenari buruzko 2. borondatezko txostena"[1] argitaratu zuen, non Garapen Jasangarrirako 17 Helburuetarako[2] adierazle-multzo sendo bat jaso baitzuten. Horietako batzuk 251 euskal udalerrietan daude eskura, eta horrek erraztu egiten du Euskal Autonomia Erkidego osorako, hau da, txosten honi dagokion eremurako, datuak biltzea. Udalerri batzuetarako bakarrik eskura dauden Udalsareko adierazleei dagokienez, garrantzitsuenak hartu ditugu, hau da, Bultzatu 2050eko Lehentasun Estrategiko batzuen lorpena ebaluatzeko balio dezaketenak.

- Eta azkenik, UDALMAPeko datu-basea. UDALMAP udalerrietako online informazio-sistema bat da, autonomia-erkidego osoko datuak ere badituena.

Lan horri esker egin ahal izan dira txosten honetako eranskinean bildutako fitxak. Adierazle bakoitzak informazio hau du:

i. Adierazlearen izena.

ii. Bultzatu 2050eko zein Lehentasun Estrategiko dago(z) kion.

iii. Zein iturritik lortu den; batzuek esteka ere badute, informazioa nondik datorren jakiteko.

iv. Deskribapen laburra eta azken urteetako bilakaera (sail historikoetakoa).

v. Oinarrizko urteko informazioa (normalean 2015. urtekoa, hau da, Agenda 2030 onartu zenekoa), datuen aldizkakotasuna eta, hala badagokie, azken xedea (adibidez: adierazle batek estrategia edo dokumentu ofizial bat badu, 2023, 2025 edo 2030erako helburu bat ezartzen duena, adierazita dago).

1 Hemen dago eskura: https://www.ihobe.eus/Noticias/Ficha.aspx?IdMenu=%20F625387A-1FE9-409A-92BF-96E37699C4A2&Cod=81fc8a15-b84b-4ab7-9f19-28dc7f153dc4&Idioma=eu-ES

2 Hizkuntza-aniztasunari buruzko 18. helbururako ere bai. Helburu hori Euskal Herriko Unibertsitateak proposatu zuen GJH ez-ofizial gisa, eta udalerri askok GJH osagarritzat hartu dute.

3.1.3 Bultzatu 2050eko adierazleen kokapena Nazio Batuen eta Europar Batasunaren jomugetan

Orain arte labur-labur azaldutako informazioaz gain, txosten honetako adierazleen fitxek beste maila batzuetako adierazle ofizialetan kokatzeko funtsezko informazioa ere badute; zehazki, honako maila hauetan:

- Europar Batasunean; izan ere, adierazleren bat Europako Batzordeak (EUROSTAT) Europan GJHak zenbateraino betetzen diren neurtzeko urtero onartzen dituen adierazleekin bat badator, adierazita dago.

- Oro har, zehaztuta dago adierazleak zein GJHri eragiten dion, zein xede zehatz duen eta, garrantzitsua bada, Nazio Batuen 2021erako zerrenda ofizialeko zein adierazlerekin bat datorren.

Horiek horrela, euskal adierazleak testuinguru zabalago batean kokatu daitezke.

3.2 Jarraipen-txostenaren adierazleen proposamena (ikus fitxak eranskinean)

Bultzatu 2050 Hiri Agendaren lehen Jarraipen Txosten honen Eranskinean, adierazleen proposamen eguneratu bat dago jasoa, fitxetan. Fitxa horietan adierazleen ezaugarri eta datu nagusiak daude aztertuta, modu grafiko eta irakurterrazean.

Egindako aukera hasierako proposamenean dago oinarrituta (ikus aurreko atala). Proposamen hori landu egin da, Hiri Agenda Lantaldearen 2022ko saioetan eta Lehendakaritzarekin, Eustatekin eta hainbat eragile instituzional eta sozialekin batera egindako lanetan jasotako hiri-garapenari buruzko eztabaida eta ekarpenen ondorioz.

Tokiko eta nazioarteko testuingurua aldakorra denez (EAEn, Europan eta nazioartean GJHak ezartzeko adierazleak urtero eguneratzen dira), jasotako adierazleak lehen proposamen bati dagozkie (Bultzatu 2050en datozen jarraipen-txostenetan proposamena berrikusi eta aldatu egingo da).

Berritasun gisa, Bultzatu 2050eko adierazleak Eusko Jaurlaritzako hainbat sailek argitaratutako plan eta estrategia sektorial ugarirekin alderatu dira, zeinak epe motz eta ertainerako helburu zehatzak baitituzte, eta adierazle bakoitza ebaluatu egin da (dauden serie historikoekin alderatuta), norabide egokian aurrera egiten ari diren jakiteko. Halaber, "oinarrizko iturrietatik" ateratako adierazle osagarri batzuk aukeratu dira: batetik, Eustaten dauden adierazle publikoak; eta bestetik, "Euskal udalerrien ekarpena Garapen Jasangarriaren Helburuei. Udalsarea 2030en jarraipenari buruzko 2. borondatezko txostenean" jasotakoak.

Adierazleak Bultzatu 2050eko 8 Lehentasun Estrategikoetan ahalik eta modu orekatuenean banatuta daude. Adierazle horien arabera, bide egokian aurrera egiten ari gara, baina alderdi asko hobetu beharra daude. Atal honetan adierazle horietako batzuk aipatuko ditugu labur-labur, Bultzatu 2050eko Lehentasun Estrategikoen arabera sailkatuta.

Orokorrean, Gobernuaren hainbat estrategia eta planetan ezarritako helburuei dagokienez, honako Lehentasun Estrategikoetan (LE) egin da aurrera gehien: LE 1 (etxebizitza duinaz eta oinarrizko ekipamenduez gozatzeko eskubidea bultzatzea), LE 4 (hiri berritzaile eta jakintsuak), LE 6 (hiri jasangarri eta erresilienteak; ingurumen-arloko xede batzuk egoki egin dute aurrera) eta LE 8 (dibertsitatea eta inklusioa, hirien bereizgarri; hezkuntza-arloko adierazleek egoki egin dute aurrera).

Aldiz, adierazle garrantzitsu batzuetako gai jakin batzuetan oraindik asko dago aurreratzeko; honako hauetan, adibidez: garraio-sektoreko isuriak eta energiaren erabilera (LE

2: Hirietan mugikortasun jasangarriaren alde egitea), ekosistemak babestea (LE 3: Hiria antolatzeko eredu jasangarri berri bat), jaiotza-tasa baxua (LE 7: Bizi-kalitatean ardaztutako hiriak), eta genero-berdintasunarekin zerikusia duten adierazle batzuk (LE 4: Hiri berritzaile eta jakintsuak. Emakume ikertzaileen kopuruak, esaterako, gora egin beharko du nabarmen, jarritako helburuak beteko badira).

Nolanahi ere, hirien garapen jasangarriaren aldeko apustuan 2019tik gaur egun arte emandako pausoak egoki baloratzeko, ezinbestekoa da pandemiak gure gizartean izan duen eragin handia kontuan hartzea. Ohiz kanpoko gertaera horrek gure gizarte-bizitzaren oinarriak astindu ditu. Arlo batzuetan (osasunean eta ekonomian), pandemiak ondorio oso larriak izan ditu, eta eraginak luzaro iraungo du; beste arlo batzuetan, ordea, COVID-19ak moldatzera behartu gaitu eta aldaketa garrantzitsuak eragin ditu; hona hemen bi adibide:

- Alde batetik, herritarrek zein enpresek telelana berehala onartu dute (teknologia eskura zegoen). Horrek ondorioak izan ditu pertsonen bizimoduan, eta eragin erabakigarria izango du, gaur egun eta etorkizunean, adierazle jakin batzuetan, kontziliazioan eta mugikortasunaren kudeaketan, adibidez. Gainera, eten digitalaren inguruko erronka berriak ekarriko ditu.

- Beste alde batetik, herrialde guztiak astindu dituen krisi ekonomikoaren ondorioz, Europar Batasunak, orain arte ez bezala, elkartzeko aurrerapausoak egin ditu. Esaterako, Next Generation EU funtsak onartu ditu, eta funts horiek Hiri Agendarekin zerikusi handia duten arloetako adierazle batzuetan eragina izan dezakete, besteak beste eraikinen birgaitzean eta hiriak osorik berroneratzeko prozesuetan.

1. LEHENTASUN ESTRATEGIKOA: ETXEBIZITZA DUINAZ ETA OINARRIZKO EKIPAMENDUEZ GOZATZEKO ESKUBIDEA BULTZATZEA

Esku-hartze ardatzak:

1.1. Etxebizitza denontzat.
1.2. Etxebizitzak birgaitzea eta hiriak berroneratzea.
1.3. Oinarrizko ekipamenduak.
1.4. Ingurune eta eremu publiko irisgarriak eta kalitate onekoak.

Lehentasun Estrategiko honetako helburuak: Bultzatu 2050en azaldu bezala, Lehentasun Estrategiko honen helburua da *pertsona guztiek, beren bizitza-zikloko une guztietan, etxebizitza duin, eskuragarri eta irisgarria izan dezaten erraztea*. Horretarako, honako hauek azpimarratzen ditu, EAEko bereizgarri gisa: etxegabeen kopurua gutxitzea, alokairu-merkatua sustatzea, etxebizitza hutsen parkea dinamizatzea, oinarrizko zerbitzu berdinzaleak jartzea, eraikinak birgaitzea bultzatzea eta etxebizitzaz gozatzeko eskubide subjektiboa pertsona eta familia kalteberenei zabaltzea.

Dagozkion GJHak: Bultzatu 2050eko Lehentasun Estrategiko honi Garapen Jasangarrirako 11. Helburua dagokio, hiri eta komunitate jasangarri eta erresilienteei buruzkoa. Hala ere, gizarte-arloko adierazle batzuetan, pobrezia deuseztatzeko eta desparekotasuna gutxitzeko 1. eta 10. helburuetako xede eta adierazleak ere aplikatu daitezke.

Adierazleen iturriak / Planak eta estrategiak: Oinarrizko iturriez gain, Lehentasun Estrategiko honetarako erreferentzia nagusiak 2021-2023 aldirako Etxebizitzaren Gida Plana eta aurreko hirurtekoetako Etxebizitza Planen ebaluazio-txostenak dira (Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak argitaratu ditu).

Alde horretatik, Bultzatu 2050 Hiri Agendan oso nabarmena da alokatzeko etxebizitzak sustatu beharra. Horren harian, Gida Planean ikusten da azken urteetan asko aurreratu dela arlo horretan. Izan ere, alokatzeko etxebizitza publikoen parkeko kuotak (etxebizitza babestuen parke osoarekin alderatuta) gora egin du: 2015ean % 25 zen eta 2020an % 34. Joera horri tinko eutsi behar zaio, Gida Planean ezarritako helburua betetzeko (2023an % 40).

Etxebizitza babestuen parkearen kudeaketa eraginkorrari buruzko adierazleei dagokienez, Gida Planak helburu handinahi bat du: 15 urteren buruan EAEko etxebizitza babestuen parkea oraingoaren bi halako izatea. Horren harian, 2018-2020 aldiko Etxebizitza Politiken Ebaluazio Integralaren Txostenak arlo zehatzagoen inguruko helburu nagusiak jaso ditu:

- Etxebizitza duinaz gozatzeko eskubide subjektiboa aintzatestea. 3/2015 Legean ezarri zenetik, aintzatespen-kopuruak gora egin du etengabe, erritmo onean. 2017ko abenduan 2.230 eskari zeuden aintzatetsita,[3] eta 2021ean 6.137; asmoa da 2023an 12.000 izatea (urteko metatua). Beraz, adierazlea egoki ari da aurrera egiten, eta horri eutsi behar zaio.

- Bizigune programa, zeinaren helburua baita alokatzeko etxebizitza babestuak eskaintzea. Adierazle hori ere ongi ari da aurrera egiten; izan ere, 2018an 5.325 etxebizitza zeuden, 2019an 6.004, 2020an 6.451 eta 2021ean 7.001. Etxebizitzaren Gida Planaren helburua da 2023ko abenduaren 31rako 8.000 etxebizitza izatea. Beraz, bilakaera ona da.

- ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) programa. 2019an sortu zen, merkatuko preziotik behera alokatzeko etxebizitza gehiago jartzeko helburuarekin. Biziguneren moduko programa bat da, baina ez da dirulaguntzarik ematen eta hartzaileek, diru-sarrera handiagoak eduki arren, merkatu librean etxebizitza eskuratzeko zailtasun asko dituzte. Helburuekin alderatuz gero, programa motel ari da aurrera egiten: 2021ean 263 etxebizitza lortu ziren (urteko helburua 400 zen), eta Gida Planaren arabera, 2023rako helburua 500 etxebizitza lortzea da.

- Gaztelagun programa. 2019an jarri zen martxan, gazteei emantzipatzen laguntzeko. Egoki ari da aurrera egiten, baina jarritako helburuak lortzeko aurrerapauso bizkorragoak egin behar dira. 2021. urtearen amaieran programak 2.469 onuradun izan zituen (ordurako helburua 2.500 zen), eta aurreko urteetan baino emaitza askoz hobeak lortu zituen. Asmoa da 2023an 4.500 onuradun izatea (urteko kopuru metatua).

Horiez gain, beste adierazle batzuk ere jaso dira; Eustateko hauek, adibidez: etxerik ez duten pertsonentzako aurrekontua, etxebizitza-programetako gastua, eta, 11. GJHa ebaluatze aldera (pertsona guztiek etxebizitza eta oinarrizko zerbitzu egoki eta seguruak arrazoizko prezioan eskura ditzaketela ziurtatzea eta auzo marjinalak hobetzea), zarata-arazoak dituzten pertsonen proportzioa eta gabezia jakin batzuk (itoginak; hezetasuna; usteldura zoru edo leiho eta ateetako markoetan) dituzten etxeetan bizi diren pertsonen proportzioa. Azkenik, aipatutako beste esku-hartze ardatz batzuk aztertzeko, eraikinetako energia-kontsumoari buruzko neurketak ere jaso dira.

3 Aintzatetsitako eskariak hartu dira kontuan; zehazki, esleitutako etxebizitzak (edo esleitzeko prozesuan lehentasuna izan dutenak) edo etxebizitzarako emandako prestazio ekonomikoak.

2. LEHENTASUN ESTRATEGIKOA: HIRIETAN MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ALDE EGITEA

Esku-hartze ardatzak:

2.1. Mugikortasun jasangarria.
2.2. Hiri barruko mugikortasuna.
2.3. Hiriarteko mugikortasuna.
2.4. Mugikortasun multimodala.

Lehentasun Estrategiko honetako helburuak: Lehentasun Estrategiko honen arabera, ezinbestekoa da *hiriko eta hiriarteko mugikortasun-sistema berriz diseinatzea, kutsatzaile gutxi isurtzeko eta formula malgu, jasangarri eta seguruak izateko*.

Dagozkion GJHak: Lehentasun Estrategiko honi hiri eta komunitate jasangarri eta erresilienteei buruzko 11. GJHa dagokio, nagusiki (xede zehatzetako bat hiri-garraio jasangarria sustatzea da). Horrez gain, beste helburu batzuekin ere badu zerikusia, besteak beste honako hauekin: 3. GJHa, hiria antolatzeko eredu jasangarri berriari buruzkoa (bizimodu osasungarria ziurtatzea eta ongizatea sustatzea du helburu, eta xede xehatzetako bat trafiko-istripuek heriotza eta lesio gutxiago eragitea da); eta 7. GJHa, energia fidagarri, jasangarri eta modernoari buruzkoa (izan ere, mugikortasun elektrikoa sustatzen du).

Adierazleen iturriak / Planak eta estrategiak: Oinarrizko iturriez gain, proposatutako adierazleen erreferentzia nagusiak Euskadiko Garraio Jasangarriaren Gida Planean (2030), Mugikortasun Elektrikoaren Euskal Estrategian eta Bide Segurtasuneko eta Mugikortasun Seguru eta Jasangarriko Plan Estrategikoan (2021-2025) ezarritako helburu zehatzak dira.

Proposatutako adierazleetan jasotako jarduera nagusietako bat hiriko eta hiriarteko garraiorako azpiegiturak mugikortasun-modalitate berrietara (ibilgailu elektrikoak, ibilgailu partekatuak eta bizikletak) moldatzea da. Alde horretatik, lehen aipatutako planek helburu handinahiak dituzte hainbat arlotan:

Berotegi-gasen isuria: % 7 murriztea (1990eko datuekin alderatuta); gaur egungo datuen arabera, helburu hori nekez lortuko da.

- Sektorean energia alternatiboak erabiltzea: EAEko garraio-sektorean energiaren % 15 berriztagarria izatea; 2020ko datuen arabera, oraindik ez da % 7ra heldu.

- Garraioaren energia-kontsumoa: eraginkortasun energetikoa handitzea; zehazki, oinarrizko energia-aurrezpena 174 kptb izatea.

Mugikortasun Elektrikoaren Euskal Estrategiak 2030erako bi helburu ditu: batetik, hiri-autobusen % 50 eta taxien % 80 elektrikoak izatea. Estrategiaren asmoa da, halaber, ibilgailuak bizkor kargatzeko guneak bikoiztea, hau da, 2030erako 50 kW-eko 80 gune jartzea (gaur egun 38 daude).

Horrez gain, Energia Jasangarriaren Euskal Planaren arabera, Euskadiko ibilgailu elektrikoen parkea nahikoa handitu beharra dago: 2021ean 3.540 ibilgailu elektriko zeuden (parkearen % 0,25), eta asmoa da 2030ean 221.000 izatea (parkearen % 16). Horrek esan nahi du kargatzeko gune bakoitzeko ratioa 2.763 ibilgailu izango dela (gaur egun 93 da), eta hori Energia eta Klima Plan Nazional Integratuan (EKPNI) zenbatetsitako ratioetatik urrun dago; izan ere, Planaren arabera, kargatzeko gune bakoitzeko 8,8 ibilgailu egon behar dute. Halaber, ibilgailuak bizkor kargatzeko guneei dagokienez (50 kW, 150kW eta 250kW), 99 ibilgailuko gune bat beharko litzateke, Faconauto eta Anfac erakundeen arabera.

Gainera, GJHetako xede zehatzen segimendua egiteko hainbat adierazle daude jasota, esaterako: garraio publikoa sustatzea (pandemia-urteen ondoren, bidaiari-kopurua 2019ko datuetara itzultzen ari da), oinezkoentzako bideak sustatzea (azken urteetan gora egin dute) eta bidegorriak bultzatzea (Udalsareak aztertutako udalerrietan, 10.000 biztanleko kilometro-kopurua bikoiztu egin da ia). Lehentasun Estrategiko honetako beste elementu garrantzitsu bat trafiko-istripuetako biktima-kopurua neurtzea da; xede hori osasunari eta ongizateari buruzko 3. GJHan dago zehaztua. Alde horretatik, Euskadiko Segurtasun Publikoko Plan Orokorrean (2025) ezarritako helburuak kontuan hartuta, adierazlea egoki ari da aurrera egiten.

3. LEHENTASUN ESTRATEGIKOA: HIRIA ANTOLATZEKO EREDU JASANGARRI BERRI BAT

Esku-hartze ardatzak:

3.1. Kultura- eta natura-ondarea babestea.
3.2. Lurraldearen eta natura-ondarearen erresilientzia.
3.3. Lurzoruaren erabilera jasangarria.
3.4. Eremu berdinzaleak.

Lehentasun Estrategiko honetako helburuak: Lehentasun Estrategiko honen arabera, ezinbestekoa da *hiria antolatzeko esparru berri bat ezartzea, honako hauek lehenesten dituena: hiriguneak berriz dentsifikatzea eta berroneratzea, kalitate oneko eremu publiko eta bizikidetza-eremuak sortzea eta irisgarritasun unibertsala ziurtatzea*.

Horiek horrela, Lehentasun honetako jardueren xedeak dira kultura- eta natura-ondarea zaintzea (hirietako berdeguneak, bereziki), lurzorua modu jasangarrian erabiltzea (andeatutako eremuak berroneratzea barne) eta eremu berdinzaleak sustatzea (auzoetan gertuko denda eta ekipamenduak sustatuz, besteak beste). Elementu horiek eragina dute aukeratutako adierazleetan.

Dagozkion GJHak: Lehentasun Estrategiko honek garapen jasangarrirako bi helbururekin du zerikusia, nagusiki: batetik, 11. GJHa, hiri eta komunitate jasangarri eta erresilienteei buruzkoa, hirigintza inklusibo eta jasangarriaren eta kultura- eta natura-ondarea zaintzearen alde egiten duen aldetik; eta bestetik, 15. GJHa, lurzorua babesteari buruzkoa.

Adierazleen iturriak / Planak eta estrategiak: Oinarrizko iturriez gain, proposatutako adierazleen erreferentzia nagusiak Euskadiko Lurzorua Babesteko Estrategian jasotako helburu zehatzak dira. Izan ere, Estrategia horretan, babestutako lur-azaleraren eta kutsatuta egon daitezkeen eta erabilera berrietarako berreskuratuko diren lurren portzentajearen inguruko helburuak daude jasota.

Eranskineko grafikoetan ikusten den moduan, bi adierazleak egoki ari dira aurrera egiten, eta joera horri eutsi behar zaio.

Horrez gain, Eustaten datu-basetik ateratako adierazle batzuk proposatu dira: berdeguneen azalera, artifizializatutako lurren neurketa eta kutsatutako lurren portzentajea. Azkenik, herritarrek eskura dituzten oinarrizko zerbitzuak ebaluatu ahal izateko, "estatikoa" izan arren (ez du serie historikorik) oinarrizko zerbitzuetatik gertu bizi diren biztanleen portzentajeari buruzko datu garrantzitsuak dituen adierazle bat proposatu dugu.

4. LEHENTASUN ESTRATEGIKOA: HIRI BERRITZAILE ETA JAKINTSUAK

Esku-hartze ardatzak:

4.1. Ikerketa, berrikuntza eta teknologia.
4.2. Konektagarritasuna.
4.3. Hiri adimentsuak.
4.4. Berrikuntza ez-teknologikoa.

Lehentasun Estrategiko honetako helburuak: Lehentasun Estrategiko honen arabera, *Euskadiko lurraldearen alderdi berritzailea sustatu beharra dago; izan ere, ekosistema ezaguterraza da eta gizarte, kultura, ekonomia eta ingurumen aldetik sormen eta dinamismo handia du*.

Lehentasun honek barne hartzen ditu tokiko zerbitzu aurreratuak sustatzeko ekimenak, digitalizazioaren aldeko apustua, berrikuntza, azken belaunaldiko azpiegiturak, tokiko I+G+B agendak eta gizarte-ekintzailetza.

Dagozkion GJHak: Lehentasun Estrategiko honi 8. GJHa dagokio nagusiki. Izan ere, xede zehatz hauek barne hartzen ditu, besteak beste: hazkundea iraunkorra, inklusiboa eta jasangarria izan dadin lortzea; enplegua osoa eta produktiboa izatea; eta behar bezalako lanpostuak sortzea. Horrez gain, beste helburu batzuekin ere badu zerikusia, besteak beste honako hauekin: 5. GJHa, genero-berdintasunari buruzkoa (prestakuntzan eta enpleguan aukera-berdintasuna ziurtatzeko), eta 10. GJHa, ekonomian eta gizartean desparekotasuna gutxitzeari buruzkoa.

Adierazleen iturriak / Planak eta estrategiak: Oinarrizko iturriez gain, proposatutako adierazleen erreferentzia nagusiak Eusko Jaurlaritzaren 12. Legealdiko Programan eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Planean (ZTBP 2030) jasotako helburu zehatzak dira.

Horiek horrela, proposatutako adierazleek neurtzen dituzte, besteak beste, industriako eta zerbitzu aurreratuetako BPGren portzentajea, zeina 12. Legealdiko Programako helburuetako bat baita (datuen arabera, helburu hori lortu da eta egoki ari da aurrera egiten), eta ZTBP 2030ean jasotako beste datu batzuk, adibidez: I+G arloko inbertsioa eta emakume ikertzaileen kopurua (biak ala biak egoki ari dira aurrera egiten, baina helburuak lortzeko bide luzea dago egiteko).

Proposatutako beste adierazle batzuetan, hamarkadaren amaierarako jarritako helburuak lortzeko ahalegin handia egin beharra dago; hori gertatzen da, adibidez, jakintzako enplegu trinkoa eta Europako Patenteen Bulegoan patenteak erregistratzeko jasotako eskarien kopuruan. Euskadi izan da, tradizioz, estatuan patente gehien aurkeztu duen erkidegoetako bat; orokorrean, ordea, datuak egonkortu egin dira.

Oinarrizko iturrietan (Eustat, Udalsarea) proposatutako beste adierazle batzuk dira, adibidez, Interneten erabileraren portzentajea (datuen arabera, portzentajea oso handia da) eta egoitza digitalaren bitartez egiten diren izapideen portzentajea (egoki ari da aurrera egiten).

5. LEHENTASUN ESTRATEGIKOA: HIRI DINAMIKO ETA LEHIAKORRAK

Esku-hartze ardatzak:

5.1. Ekoizpen eta kontsumo jasangarria.
5.2. Kalitate oneko enplegua.
5.3. Tokiko ekonomia erresilientea.
5.4. Ekonomia zirkularra.

Lehentasun Estrategiko honetako helburuak: Lehentasun honen arabera, *Euskadi Europa hegoaldeko ekonomia industrial dinamikoenetako bat da, eta hiritarrentzat enplegua eta ongizatea sortzeko gai da; hori dela eta, ezinbestekoa da hiri-egitura sendotzea, bereizgarri horiek kontuan hartuta*.

Lehentasun honetan gai hauek daude jasota: garapen jasangarrirako hezkuntza, lan-bizitza eta bizitza pertsonala uztartzeko politikak, zaintzari balio ekonomikoa ematea, tokiko eta kalitate oneko enplegua sustatzea, etengabeko

prestakuntza eta aukerak hobetzea, hirien alderdi industriala, turismoa eta tokiko merkataritza sustatzea, eta enplegu berdea bultzatzea.

Dagozkion GJHak: Bultzatu 2050eko Lehentasun Estrategiko honi Garapen Jasangarrirako Helburu hauek dagozkio, nagusiki: 12. helburua, ekoizpen eta kontsumo jasangarriari buruzkoa; 16. helburua, erakunde egonkorrei buruzkoa (izan ere, hirien garapen ekonomikoa ziurtatzeko ezinbestekoa da erakunde-sarea sendoa eta eraginkorra izatea), eta 5. helburua, genero-berdintasunari buruzkoa (zaintza aintzatesten duten politikak ziurtatzeko).

Adierazleen iturriak / Planak eta estrategiak: Oinarrizko iturriez gain, proposatutako adierazleen erreferentzia nagusiak 12. Legealdiko Programan jasotako hainbat helburu zehatz dira; langabezia-tasa, adibidez, egoki ari da aurrera egiten. Horrez gain, 2021-2024 aldirako Enplegu Plan Estrategikoan jasotako beste helburu batzuk ere hartu dira eredutzat; landunen behin-behinekotasun tasa, esaterako (bilakaera ez da egokia). Gazteen (16-24 urte) langabezia-tasari eta luzaroko langabeziari dagokionez, hobetzeko asko dago oraindik.

Badaude Lehentasun Estrategiko honekin zerikusia duten beste adierazle batzuk ere, Ekonomia Zirkularraren Euskal Estrategian jasotako hauek, adibidez: material zirkularraren erabilera-tasa, BPG unitate bakoitzeko hondakinen sorrera-tasa, elikagai-hondakinen sorrera eta kontsumoari lotutako karbono-isuria. Parametro horiek 2030erako helburu handinahiak dituzte, eta oraindik asko dago egiteko (batez ere elikagai-hondakinei dagokienez).

Azkenik, Eustatek eta Udalsareak ekonomia erresilientearen aurrerapena neurtzeko adierazle egokiak dauzkate, biztanleko BPGa eta lanean txertatzeko eta gizarteratzeko programetarako aurrekontua neurtzen dituztenak, adibidez.

6. LEHENTASUN ESTRATEGIKOA: HIRI JASANGARRI ETA ERRESILIENTEAK

Esku-hartze ardatzak:

6.1. Kutsadura eta ingurumenaren kalitatea kontrolatzea.
6.2. Klimaren aldeko ekintzak.
6.3. Baliabide naturalak eta hondakinak kudeatzea.
6.4. Biodibertsitatea eta ekosistemak.

Lehentasun Estrategiko honetako helburuak: Lehentasun honen arabera, ezinbestekoa da *Euskadiko hiriak honako hauek lortzeko trantsizioko abangoardian eredu izatea: jasangarritasuna, isurien neutraltasuna eta "zero zabor"*.

Hona hemen Lehentasun honek barne hartzen dituen jardueretako batzuk: ur-kontsumoa gutxitzea, udal-zerbitzuek baliabideak modu jasangarrian erabiltzea (garraioa eta argiteria), klima-aldaketa arintzeko eta aldaketa horretara egokitzeko estrategiak, autokontsumo-sareak sustatzea, hondakinak modu jasangarrian tratatzea bultzatzea, "zero kilometroko" kontsumoa eta naturan oinarritutako konponbideak erabiltzea.

Dagozkion GJHak: Bultzatu 2050eko Lehentasun Estrategiko honi Garapen Jasangarrirako Helburu hauek dagozkio, nagusiki: 13. helburua, klimaren aldeko ekintzei buruzkoa; 6. helburua, ura edukitzea ziurtatzeari eta modu jasangarrian erabiltzeari buruzkoa; eta gizarte-arloko beste helburu batzuk, pobrezia eta desparekotasuna gutxitzeko 1. eta 10. helburuak kasu (izan ere, klimak pertsona kalteberenei eragingo die gehien). Halaber, kutsaduraren kontrola neurtzeak hiri jasangarriei buruzko 11. GJHarekin eta osasuna babesteko 3. GJHarekin du zerikusia.

Adierazleen iturriak / Planak eta estrategiak: Oinarrizko iturriez gain, proposatutako adierazleen erreferentzia nagusiak 12. Legealdiko Programan jasotako hainbat helburu zehatz dira, berotegi-gas gutxiago isurtzea, adibidez; 2005eko datuekin alderatuz gero, isuriak nahikoa gutxitu dira, baina oraindik ahalegin handia egin beharra dago.

Halaber, Klima 2050 Estrategian ezarritako beste helburu batzuk ere hartu dira aintzat, energia berriztagarrien kontsumoa, adibidez; datu hori azken kontsumoarekin alderatzen da, eta ongi ari da aurrera egiten, baina oraindik bultzada handia behar du.

Horrez gain, energiaren aurrezpen-kuota ere neurtzen da, 2005eko datuekin alderatuta; kuota hori egoki ari da aurrera egiten, baina 2020ko datuak engainagarriak izan daitezke, pandemiak geldialdi ekonomikoa eragin zuelako. Adierazle horretan aurrera egiteko, hirien berroneratze osorako inbertsioak funtsezkoak izan daitezke.

Orobat, Lehentasun Estrategiko honek beste adierazle batzuk ere barne hartzen ditu: batetik, klima-aldaketara egokitzeko planak dituzten udalerrien kopurua eta plan horiek babesten dituzten biztanleen portzentajea; eta bestetik, ur-baliabideei dagokienez, uraren kalitatearen indizea eta autosufizientzia hidrikoaren portzentajea.

Azkenik, lehen esan bezala, kutsadura neurtzea funtsezkoa da, eta, horretarako, Eustaten datu hauek hartzen dira aintzat: partikula esekien kontzentrazioa (PM10 eta PM25), airearen kalitatearen indizea eta airearen kutsadurak eragindako hiriko biztanleen portzentajea.

7. LEHENTASUN ESTRATEGIKOA: BIZI-KALITATEAN ARDAZTUTAKO HIRIAK

Esku-hartze ardatzak:

7.1. Osasun-sistema unibertsal eta irisgarria.
7.2. Osasun-arreta berdinzale eta kalitate onekoa.
7.3. Bizitza- eta aisia-ohitura osasungarriak.
7.4. Osasun-berrikuntza eta -ikerkuntza.

Lehentasun Estrategiko honetako helburuak: Lehentasun Estrategiko honen arabera, nahitaezkoa da *hiriak osasungarriak izan daitezen sustatzea, hiriek hiritarren segurtasun-premiak, gizarte-ongizateko premiak eta premia pertsonalak betetzea; hori, demografia aldatzen ari dela kontuan hartuta*.

Lehentasun honetan jarduera hauek daude jasota, besteak beste: osasunaren irispide osoa sustatzea; osasun, etxebizitza, hirigintza eta garraioko sailak koordinatzea (horretarako, hiri-berroneratze osorako politikak funtsezkoak dira); adinduen arreta; aldaketa demografikoaren inguruko politikak; eta zahartze aktiboa sustatzea.

Dagozkion GJHak: Lehentasun Estrategiko honi 3. GJHa dagokio nagusiki, biztanle guztiek, adina edozein dela, bizimodu osasungarriaz eta ongizateaz goza dezaten ziurtatu nahi duena, hain zuzen. Nolanahi ere, 11. GJHak ere garrantzi handia du; izan ere, hiri-antolamenduak, mugikortasunaren kudeaketak eta garraio jasangarriak osasunean eragin handia izan dezakete.

Adierazleen iturriak / Planak eta estrategiak: Oinarrizko iturriez gain, proposatutako adierazleen erreferentzia nagusiak 12. Legealdiko Programan jasotako hainbat helburu zehatz dira, adibidez: jaiotza-tasa handitzea (oraindik bide luzea dago egiteko) eta bizi-itxaropena jaiotzean (adierazle hori oso ongi ari da aurrera egiten).

Lehentasun honetarako, Eustateko adierazle batzuk ere proposatu dira, besteak beste: haurren heriotza-tasa, osasunerako aurrekontuaren portzentajea, osasun publikoaren biztanleko aurrekontua eta osasun-zentroen hurbiltasuna. Jaurlaritzaren estrategietan ez dago adierazle horietarako helburu zehatzik, baina aintzat hartu beharreko parametroak dira, argi eta garbi.

8. LEHENTASUN ESTRATEGIKOA: DIBERTSITATEA ETA INKLUSIOA, HIRIEN BEREIZGARRI

Esku-hartze ardatzak:

8.1. Gizarte-kohesioa.
8.2. Belaunaldien arteko berdintasuna, dibertsitate funtzionalaren eta jatorriaren arabera.
8.3. Hezkuntza eta prestakuntza berdinzale eta inklusiboak.
8.4. Denontzako kultura- eta aisia-aukerak.

Lehentasun Estrategiko honetako helburuak: Lehentasun Estrategiko honen arabera, ezinbestekoa da *anitzak diren eta sozialki kohesionatuta dauden herri eta hiriak sendotzea.*

Lehentasun hau Bultzatu 2050 Agendako zabalena da, beharbada, eta arlo askotako jarduerak sustatzen ditu: lanean txertatzea, etxeko gizarte-arreta, migratzaileak lanean txertatzea eta gizarteratzea, genero-indarkeriaren aurkako borroka, soldata-arrakala eta emakumeen ordezkaritza bizitza publiko eta pribatuan, haurrak babestea, eta kalitate oneko hezkuntza berdinzalea.

Dagozkion GJHak: Bultzatu 2050eko Lehentasun Estrategiko honi 1., 3., 4., 5. eta 10. GJHak dagozkio.

Adierazleen iturriak / Planak eta estrategiak: Oinarrizko iturriez gain, proposatutako adierazleen erreferentzia nagusiak 12. Legealdiko Programan jasotako hainbat helburu zehatz dira, adibidez: GINI indizearen aurrerapena, eskola uzte tasa eta genero-berdintasuna (ongi ari dira aurrera egiten, baina oraindik ez dira helburuak lortu).

Halaber, Jaurlaritzaren hainbat planetako adierazleak hartu dira aintzat. Lehenik, Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategia 2030, zeinak Eskolako Agenda 2030en parte hartzen duten derrigorrezko hezkuntzako ikasleen portzentaje bat zehazten baitu (oraingoz, ez dago helburu hori zenbateraino lortu den jakin ahal izateko serie historikorik).

Bigarrenik, 2021-2024 aldirako Enplegu Plan Estrategikoa, zeinak emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala eta emakume landunen behin-behinekotasun tasa neurtzeko xedeak ezartzen baititu. Bi adierazle horiek ikusirik, aurrera egin beharra dago; dena den, aurreko serierik ez dagoenez, bilakaera nekez neurtu daiteke.

Eta hirugarrenik, Kultura Plan Estrategikoa, zeinak hainbat adierazle interesgarri baitituen (2025erako xede zehatzak ezarri ditu), adibidez: kulturako inbertsio publiko egonkortua, kultura-sektoreko enpresen portzentajea (enpresa-kopuru osoaren aldean), kulturan enplegua sortzeko ahalmena (ahalmen osoaren aldean), liburutegi-sarearen erabiltzaileen indizea, azken hiru hilabeteetan euskarazko libururen bat irakurri duten biztanleen portzentajea eta Euskadiko museoetako bisitariak.

Eustatetik eta Udalsaretik hartutako adierazleei dagokienez, batzuek gizarte-kohesioarekin dute zerikusia: diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradunen kopurua mila biztanleko, AROPE tasa, gabezia material larriaren indizea eta biztanleko batez besteko errenta, biztanleria osoan (gizonena eta emakumeena barne).

Hezkuntzari, prestakuntzari eta kulturari dagokionez, datu hauek jaso dira: Bigarren Hezkuntza gainditu duten pertsonak, euskarazko jakintza-maila, ez ikasten ez lanean ari ez diren gazteen portzentajea, unibertsitateko ikasketak dituzten pertsonak (sexuaren arabera) eta bizitza osoan ikasteko prozesuetan parte hartzen duten helduen portzentajea.

Genero-berdintasunari dagokionez, datu hauen inguruko adierazleak jaso dira: emakumeen aurkako indarkeriaren biktima-kopurua, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko jarduerak dituzten udalerrien kopurua, aukera-berdintasunaren inguruko tokiko planak izatea, emakume zinegotzien portzentajea (zinegotzi-kopuru osoaren aldean) eta etxeko eta zaintzako ordainik gabeko lanetan emandako denboraren proportzioa (sexuaren, adinaren eta lekuaren arabera).

Azkenik, atal honetan beste bi adierazle sartu dira: batetik, kriminalitate-tasa (Euskadiko Segurtasun Publikoko Plan Orokorrean proposatutako helburua lortzeko asko falta da oraindik) eta hiritarren segurtasunerako jarritako aurrekontuaren portzentajea.



04

4. Kanpoko ekarpenak

Atal honetan, hainbat profiletako zenbait adituk hiri-garapen jasangarrian giltzarri diren bost arlo hauetan egindako ekarpenak bildu ditugu:

- Batetik, ikuspegi "bertikaletik", ezinbesteko trantsizioak barne hartzen dituzten hiru arloak: gizartea, ekonomia eta ingurumena.
- Eta bestetik, ikuspegi "horizontaletik", funtsezkoak diren bi arlo: gobernantza eta jakintzaren transferentzia.

4.1 Gizarte esparrua

Gizarte-arloan Alex Carrascosaren ekarpena jaso dugu. Alex Carrascosa EDE Fundazioko aholkularia eta erraztailea da, eta Tokiko Gizarteratze Mahaien proiektuko Idazkaritza Teknikoa kudeatzen du. Proiektu hori Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarteratze Sailak sustatzen du, eta bere bi gizarteratze-planetan kokatuta dago: laster amaituko den 4. Gizarteratze Planean eta 2023an hasiko den 5. Gizarteratze Planean.

Alexek ondo baino hobeto ezagutzen ditu Mahai horiek, batez ere Bilboko Otxarkoaga auzokoa, zeina Opengela programa ezartzeko proiektu pilotuetako bat baita, Bultzatu 2050eko proiektu pizgarria eta Hiri Agendako garrantzitsuenetako bat, hain zuzen ere. Mahai horietan askotariko sistema eta eragile ugarik parte hartzen dute (besteak beste arlo hauetakoak: enplegua, osasuna, prestakuntza eta gizarte-zerbitzuak). Partaideak Gizarteratze Mahaiaren helburuekin benetan engaiatuta daude; auzoan eragina duten ekimen ugari proposatzen eta gauzatzen dituzte; hiri-berroneratzearekin, enplegagarritasunarekin eta pertsona kalteberenen desparekotasuna arintzearekin zerikusia duten era askotako proiektuak gauzatzen dituzte; eta, gainera, Next EU funtsetatik eratorritako Prestakuntza eta Enplegu Proiektu bat dute.

Tokiko gizarteratze mahaiak eta hiri-jasangarritasunari egiten dizkioten ekarpenak

Grafikoki, gizarteratzea honela deskriba daiteke: babesa, osasuna, etxebizitza, hezkuntza eta enplegua eskuratzea ahalbidetzen duten bata bestearen ondoko ateak irekitzeko prozesua. Ordena hori garrantzitsua da. Izan ere, maila pertsonalean, osasuna gure segurtasun fisiko eta psikikoaren oinarria da, eta etxerik gabe kalteberak gara; eta, maila sozialean, hezkuntzak beste pertsona, auzokide eta hiritarrekin erlazionatzeko balio digu, gero gizarte-sistemaren arlo guztiei eustea ziurtatzen duten zaintza, zerbitzu, baliabide eta ondasunak ekoizteko.

EAEko 4. Gizarteratze Planaren oinarri den maiatzaren 22ko 12/1998 Legeak gizarte-bazterkeriaren faktore askoko definizio hau jaso zuen: "Bazterkeria gizarte-eskubideak gauzatzeko ezintasuna edo gaitasunik eza da, batez ere lan egiteko eskubideaz baliatzeko ezintasuna, baina baita ere hezkuntza eta prestakuntza jasotzeko eskubidea, kultura, osasuna, etxebizitza duina izateko eskubidea edo gizarte-babesa jasotzeko eskubidea". Eta uztailaren 16ko 385/2013 Dekretuak[1] zeinak Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna onartzen baitu, gizarteratzeak "kausa asko" dituela dio.

Mikro eskalan, baztertzea eragiten duten faktoreak kroniko bihurtu ohi dira. Hau da, pertsona batek etxebizitza, hezkuntza edo enplegu duinaz gozatzeko duen eskubidea erabiltzea eragozten duten testuinguruaren araberako faktoreek baldintzatzaileak aktibatu eta kateatu ditzakete, lehendabizi harremanetan, eta gero maila psikiko eta baita biologikoan ere; adibidez, adikzioak, gaixotasunak edo era askotako mugak eragin ditzakete.

1 https://www.euskadi.eus/eli/es-pv/d/2013/07/16/385/dof/spa/html/web01-a2libzer/es/

Eta *makro* eskalan, bazterketa-faktore horiek eremutan banatu ohi dira, hau da, gabezia sozioekonomikoak dituzten pertsona, familia edo bizikidetza-unitate multzoak mapan kokatu daitezke, auzo, barruti edo eremu zehatzetan. Eremu horietan ezinbestekoa da ingurua berroneratzea eta etxebizitzak birgaitzea (irisgarritasunari, etxebizitzen erosotasunari eta autosufizientzia energetikoari dagokionez), Garapen Jasangarrirako 2030 Agendan "inor atzean ez uzteko"[2] egindako promesaren (eta premisaren) ikuspegitik.

Horiek horrela, 2019an, Eusko Jaurlaritzak, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren eta Enplegu eta Gizarte Politika Sailaren bitartez (azken hori Lan eta Enplegu Saila da gaur egun), Gizarteratze Sistemen Tokiko Koordinazio Mahaiak eratzea eskatu zion EDE Fundazioari. 2020an, pandemian egonagatik ere, telematikoki lehenik eta aurrez aurre gero, bilerara deitu zituzten Bilboko Otxarkoaga auzoko eta Durango, Eibar eta Lasarte-Oriako gizarte-babeseko sistemen (Enplegua, Gizarte Zerbitzuak, Hezkuntza, Osasuna eta Etxebizitza) tokiko ordezkariak.

Sistema bakoitzeko askotariko ordezkariek parte hartu zuten, eta ez erakunde bakar batekoak, gainera. Hona hemen bileretan parte hartu zuten mahaikideak:

- Enpleguan, Lanbide eta tokiko eta eskualdeko Garapeneko Agentziak.
- Gizarte Zerbitzuetan, udal-sailak eta, hala bazegokien, eskualdeko erakundeak.
- Hezkuntzan, Lanbide Heziketako ikastetxeak eta Helduen Hezkuntzako Ikastetxeak (HHI).
- Osasunean, Lehen Mailako Arretako Unitateak eta Osasun Mentaleko Zentroak.
- Eta azkenik, Etxebizitzan, Opengelak (edo hiri-berroneratzeko eremuetako hurbileko bulegoak), udal-sozietate edo -erakunde publikoak.

Behin Mahaiak deituta, lehen lan-txandan, bost sistema nagusiak Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeak identifikatzen joan ziren: sistema berentzako zerbitzu- eta baliabide-operadoreak ziren edo zegozkien tokietako elkarte-sareen arteko lotura gisa funtzionatzen zuten.

2021ean, Otxarkoaga, Durango, Eibar eta Lasarteri Amurrio eta Portugalete elkartu zitzaizkien. 2022an, Mahaiak honako hauetara zabaldu dira: Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala, eta Santurtzi, Leioa, Muskiz, Irun, Zumarraga, Donostia, Oion eta Gasteiz. Leku horietan guztietan, egiturak sei zutabe ditu: Enplegua, Gizarte Zerbitzuak, Hezkuntza, Osasuna, Etxebizitza eta Hirugarren Sektore Soziala.

Orokorrean, Tokiko Mahaiak ezartzeko eta garatzeko funtsezko bost pauso ematen dituzte:

a. Gizarte-babeseko sistemetako tokiko ordezkariekin harremanetan jartzea eta elkarrizketa egitea.

b. Biltzea eta zerbitzu-zorroak aurkeztea.

d. Dauden dinamiken eta sistemak koordinatzeko aukera berrien diagnostikoa egitea.

e. Kasuistika berak identifikatzea.

f. Koordinazioa optimizatzeko formula eta tresnekin probak egitea.

Mahaien lehen bi edizioetan (2020 eta 2021), kasuistikak identifikatzeko eta koordinazio-formulekin probak egiteko, gizarteratzea ikuspegi zabalarekin jorratu zuten: hasi bazterketa larritik (osasun mentala, adikzioak, etxegabezia…) eta enplegagarritasun-ibilbideetara arte. 2021. urte amaieratik, ordea, COVID-19aren ondoko Europako suspertze-laguntzen ondorioz, hasierako bi helburuei (batetik, bideratze eta ibilbide partekatuak identifikatze aldera kasu konplexuen segimendua egitea eta kasu horiek tratatzea; eta bestetik, sistema eta erakundeen arteko koordinazioa hobetzea eta optimizatzea), hirugarren bat gehitu zieten: prestakuntza- eta enplegu-proiektuak egitea eta sustatzea, zehazki, suspertze- eta erresilientzia-funtsak erakartzeko.

2022ko edizioan, enplegagarritasunaren helburuak segimendua egiteko eta koordinatzeko aurreko helburuak baldintzatu ditu. Ondorioz, horien inguruko kasuistikak identifikatzeko eta sektorek koordinatzeko lanak enplegu- eta bizkortze-planak sortzera bideratzen dira. Halaber, Mahaien lan- eta gizarte-arlorako joera horrek sektorearteko diseinuak planteatzen duen gobernantzaren erronka bikoitza areagotu du: lehenik, gizarteratze-sistemen artean (herri-administrazioen mende daude: erkidego-, foru-, udal- eta, batzuetan, baita mankomunitate-administrazioen mende ere); eta bigarrenik, sistema publikoen eta Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen artean. Horiek horrela, EDEk, Mahai guztien Idazkaritza Tekniko gisa, erronka hori konpontzeko hiru erabaki-maila zehaztu zituen, zeinak txandakatu egin baitaitezke.

Lehen erabaki-maila "kontsulta eta informazio" maila da, eta Mahaiaren alderdi sozialenari dagokio. Kideak HSSko eragileak edo sistemei atxikitako gizarte-langileak dira; izan ere, gizarteak baztertzeko arriskuan dauden edo kalteberak diren pertsona edo kolektiben premiak zuzen-zuzenean ezagutzen dituzte. Bigarren maila "teknikoa" da, eta gizarte-arloaren eta arlo instituzionalaren bitarteko profilari dagokio. Hala, maila hori lan-aurreko gaikuntzan, orientazioan eta enplegurako prestakuntzan jarduten duten sistema eta erakundeek (publiko zein pribatuek) osatzen dute. Eta azkenik, maila "erabakitzailea" Mahaiaren alderdi instituzionalena da. Babes-sistema bakoitzean erreferentzia diren tokiko irudiek osatzen dute, zeinen zeregina baita antzemandako eta sistematizatutako premiak finantziazio-ildo edo emaitza ekonomiko bihurtzea.

Gaur egun, hamabost Mahaiak bi hilez behin deitzen dituzte. Orokorrean, egokiak eta funtzionalak direla onartzen da, "topagune" eta "koordinazio-tresna" diren heinean. EDE Fundazioak, bideratzaile den neurrian, Mahaiei laguntzen die eta haien egonkortasuna ziurtatzen du, egutegia antolatuz eta deialdi batetik bestera lan-plan bat prestatuz. Gainera, lan-saioetan elkar entzutea, elkarrizketa kooperatiboa eta berrikuntza sustatzen ditu, gizarte- eta lan-arloko erronkei erantzuteko formatu eta eredu berriak probatuz. Hori, sektorearteko kontzientzia errotzeko, silo-pentsamoldea gainditzeko eta sistemek modu bateratu eta kohesionatuan funtzionatuko dutelako itxaropenarekin, gure hiri, herri eta auzoak ez ezik, guztion ongizatea ere jasangarria izan dadin.

2 https://unsdg.un.org/es/2030-agenda/universal-values/leave-no-one-behind



4.2 Ingurumen esparrua

Ingurumenari eta energiari dagokionez, Olga Martín ACLIMAko zuzendari nagusiaren ikuspegia jaso dugu. ACLIMA Euskadiko Ingurumen Klusterra da, zeinak Euskadiko ekoindustria eta ingurumen-zerbitzu eta produktuen ahotsa biltzen baitu.

Ezinbesteko sektorea da, hiri-garapen jasangarrian arlo hauetan jarduten baitu: hondakinen balio-kateak, kutsatutako lurren ikerketa eta berroneratzea, uraren ziklo osoa, airea eta klima-aldaketa, ekosistemak eta fabrikazio eraginkorra eta ekodiseinua.

Atal honetan, Olga Martinek sektorearen hainbat erronka eta konponbideri buruz zer ikuspegi duen azaldu du.

Hiri-berroneratze jasangarria hiriak garatzeko erabiltzea

Hiria ezinbesteko eremua da Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) betetzen joateko eta klima-aldaketaren aurreko erresilientzia oinarri duen garapen jasangarria ziurtatzeko. Izan ere, biztanleen % 55 hirietan bizi da gaur egun, eta ehuneko hori 2050ean % 70 izango dela diote.

Hiriek garrantzi handia dute, etorkizunean ingurumena errespetatzea ziurtatzeko funtsezko eremuak baitira. Hori hiri eta komunitate jasangarriei buruzko 11. GJHan dago jasoa. Urteak igaro ahala, ingurumena zaindu beharra gero eta nabariagoa da: gizakiak gero eta hiri handiagoetan bizi gara, eta, hiri horiek gero eta baliabide gehiago erabiltzen dituztenez, ingurumen- eta erresilientzia-erronka handiagoak dituzte.

Hiri-eremuak ingurumen-, klima- eta gizarte-trantsizioaren pizgarri

Horiek horrela, ezinbestekoa dugu, batetik, hiri-eredu eraginkor eta jasangarriagoetarako bidean aurrera egitea, gizarte-berrikuntza hartuta hiri-garapenaren giltzarritzat; eta bestetik, hirien eraldaketak ingurumen-, klima- eta gizarte-trantsizioarekin bat egin dezan lan egitea. Horretarako, hau da, hiri-eremuetan ingurumena eta giza bizimodua hobetzeko, koordenatu hauetan jardun behar dugu: azpiegitura berdeak, ekonomia zirkularra eta ingurumen-osasuna. Funtsean, helburua da hiri adimentsu eta berdeen kontzeptuak bateratzea, eta hiri horietan ingurumen-, teknologia- eta gizarte-berrikuntzak elkar hartzea, eremu jasangarri, erresiliente eta bidezkoagoak sortzeko, hiritarrak erosoago bizi daitezen, haien osasuna zain dezagun eta ekosistemetan ingurumen-inpaktua minimiza dezagun.

Horretarako, arlo hauetako ekimenak bultzatu behar ditugu:

- **Azpiegitura berdea eta naturan oinarritutako konponbideak.** Ekosistemek beren oreka dute: espezieak egokitu eta bertara egiten dira, elkar hartzen dute. Naturan oinarritutako konponbideek ideia hori baliatu nahi dute lurraldeak eta hiriak kudeatzeko, klima-aldaketari egokitze aldera. Hala, naturaren printzipioak aprobetxatzen dituzte lurraldeen eta hirien erronkei erantzuteko; erronka horiek dira, adibidez, klima-aldaketari egokitzea eta baliabideak eta ura kudeatzea. Naturan oinarritutako berrikuntza baliatuz hiriak berroneratzeko modu bat da, adibidez, hirien zirkularitatea eta erresilientzia areagotzen dituzten proiektuak gauzatzea; hau da, ingurune beregainagoak sortzea, hiriak funtziona dezan behar dituen inputak minimizatuz, eta sortutako hondakinak ahal bezainbeste aprobetxatzea. Halaber, hiri-nekazaritza azpiegitura berde gisa barneratzen duten hiri-plangintza jasangarriko eredu disruptiboak landu daitezke. Alde horretatik, biodibertsitatea eta uraren ziklo naturala leheneratzeko baliabide ugari daude: labore hidroponikoak, labore bertikalak, hiri-arraintegiak edo bestelako erabilera batzuk, besteak beste landare-itzalak, infiltrazio berdeko sistemak, hiri-basoak, zola iragazkorrak, igarobide eta eraztun berdeak eta bio-atxikipeneko eremuak. Konponbide horiek guztiak erraz ezar daitezke eta, gainera, hiri-inguruneetan jasangarritasuna bizkor eta eraginkorki hobetzen dute. Eragin handiagoa izan dezaten, ordea, eskala handitu behar da eta urbanizazio-proiektu berrietan, birgaitze integratuko planetan, hirigintza-planetan eta industria- eta enpresa-parkeetan naturan oinarritutako konponbideak aplikatu behar dira.

- **Ekonomia zirkularra.** Kontuan hartzen badugu, batetik, balioespenen arabera hondakin-sorkuntza urtero % 70 handituko dela 2050era arte, eta bestetik, hondakin gehien hirietan sortuko dela, ez dago hiri-hondakinen korronte guztietan eredu zirkularrak ezartzea beste konponbiderik. Euskadin, Euskadiko Ekonomia Zirkularreko Estrategia 2030ek eta Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030erako Planak dagoeneko jasotzen dituzte era horretako erronkak; adibidez: hondakin-sorkuntzaren tasa % 30 gutxitzea, hondakinen % 85 jatorrian bereiztea, hondakinen % 85 bigarren mailako baliabide bihurtzea eta elikagai-hondarrak % 50 gutxitzea. Horretarako, behar-beharrezkoa da kontsumo-ohiturak aldatzea, hondakinak jatorrian gaika biltzea eta erabiltzen ditugun produktu eta ekipoen bizitza baliagarria luzatzea, ahalik eta denbora gehien iraun dezaten. Eta emaitzak lortzeko ezinbestekoa da gu guztiok, hiritar gisa, horretan engaiatzea eta arduraz jokatzea.

- **Ingurumenaren kalitatea.** Airearen kutsadura eta kutsadura akustikoa ere mahai gainean daude. Europan, zenbatespenen arabera, airearen kutsaduraren ondorioz 400.000 pertsona garaia baino lehen hiltzen dira, eta 125 milioi pertsona 55 dB-tik gorako zaraten eraginpean daude. Arazo horri aurre egiteko, Euopako Itun Berde Berrriak Kutsadurarik Ez Ekintza Plan bat du, airea, ura eta lurrak barne hartzen dituena. Alde horretatik, erronkak gainditzeko eta gure hirietan ingurumen-osasuneko helburu handinahiak betetzeko, ezinbestekoa da plangintza-, detekzio-, kontrol- eta arintze-mekanismo sistematikoak sustatzea; adibidez: pertsonen osasuna kaltetzen duten ingurumen-arazoak arintzeko eta detektatzeko planak, aire-kutsadura eta zarata neurtzeko eta kontrolatzeko sistemak, atmosferara isuri kutsagarri gutxiago isurtzeko jardunbide egokiak eta partikulak iragazteko eta gasak arazteko ekipamenduak.

- **Ura:** Klima-aldaketak uretan kalte larriak eragin ditzake. Izan ere, balioespenen arabera ur-isuria gutxitu egingo da, eta hori benetan arazo larria da; horrez gain, ordea, kutsatzaileak pilatu egingo dira, eta horrek eragin handiagoa izango du ingurumenean. Gorabidean dauden kutsatzaileek, mikroplastiko eta nanopartikulek, arazo gero eta larriagoak sortzen dituzte. Premiazkoa da horniketa-iturri berri eta osagarriak edukitzea, galerarik ez izateko eta tokiko iturriekin autosufizientzia areagotzeko. Eta baita isuriak hobeto kudeatzea ere, erabat aprobetxatu ahal izateko; gizakiok edan ezin dugun ura erabil dezakegu, adibidez, laboreak eta paisaiak ureztatzeko, hezeguneak kontserbatzeko, industriarako... Eta, alde horretatik, euri-ura ere aprobetxatu beharko genuke.

- **Energia.** Munduan kontsumitzen den energiaren hiru laurden hirietan kontsumitzen da; eta CO2 isurien % 80 hiriei dagokie. Hori dela eta, behar-beharrezkoa da eraginkortasun energetikoaren alorrean aurrera egitea, iturri berriztagarriei eta deskarbonizazioari garrantzi gehiago emanez. Alde horretatik, eraikinen birgaitze jasangarria eta mugikortasun jasangarria funtsezko tresnak dira gure hirietako energia-kontsumoan eraginkortasuna hobetzeko. Europan, Klimaren eta Energiaren aldeko Alkatetzen Itunak EBko klima- eta energia-helburuak ezartzera beren borondatez konprometitu diren tokiko milaka gobernu bildu ditu, eta tokiko gobernu horiek 2030. urterako berotegi-gasen isuria gutxienez % 40 murrizteko konpromisoa hartu dute.

- **Trantsizio digitala,** klima-, ingurumen- eta gizarte-trantsizioko helburuen zerbitzura. Askotariko arloak barne hartzen ditu: energia-sareak, elikadura, mugikortasuna eta garraioa, eraikin adimentsuak eta datu ekologikoak gordetzea, adibidez. Adimen artifizialari, superkonputazioari eta multzokatutako datuei esker, klimaren krisiari eta ingurumenari buruzko analisi hobeak egin ahal izango dira, eta, ondorioz, baita erabaki hobeak hartu eta politika hobeak antolatu ere. Gainera, produktuen trazabilitatea optimizatu ahal izango da, kontsumitzaileek produktu horien jatorriari, osaerari, bizi-zikloaren amaierako kudeaketari eta birziklapenari buruzko informazioa izan dezaten.

Acliman hirien berroneratze jasangarrian konprometituta gaude, eta euskal ingurumen-sektoreko esperientzia eta jakintza ditugu eskura, erronkei aurre egiteko.

4.3 Ekonomia eta lehiakortasun esparrua

Ekonomiaren eta lehiakortasunaren arloan, funtsezko sektore baten ekarpena jaso dugu, eraikuntzarena, hain zuzen ere, Eraikune Eraikuntzako Euskal Klusterreko zuzendari nagusi Jon Ansoleagaren bitartez.

Ekonomia

Eraikuntza-sektoreak eraikuntza-proiektuen bizi-ziklo osoaren mailak barne hartzen ditu: fabrikazioa, diseinua, eraikuntza, sustapena eta, azkenik, ustiapena eta bizitzaren amaiera. Maila horiek, ordea, badituzte beren sostenguak, hau da, balioa eta jakintza gehitzen dizkioten zeharkako sektore batzuk: ingurumena, teknologia, energia eta mugikortasuna. Hiriak osoki eta jasangarritasuna aintzat hartuta berroneratzeko, sektore horiek guztiek parte hartu behar dute, eta, gainera, prozesuan ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-arloak kontuan hartzen direla ziurtatu behar da.

Eraikunek PWCrekin batera 2021eko ekainean egindako txosteneko datuen arabera, Euskadiko eraikuntza-industrian 27.100 enpresa daude, eta 16.870 milioi euro inguruko fakturazioa dute. Sektoreko enpresa-sarea atomizatua da, enpresen % 96k bederatzi langile baino gutxiago baititu. Eraikuntzan 115.205 lanpostu daude, eta sektoreak Euskadiko ekonomiari urtero egiten dion ekarpena BPGren 7.631 milioi euro da. Datu horiek Euskadiko enpleguaren % 11,8 eta BPGren % 10,7 dira.

Sektore ekonomikoek egiten duten inbertsioaren ia erdiak eraikuntzarekin du zerikusia. Eraikuntzak jarduera-adar horietako bakoitzean egiten duen ekarpena funtsezkoa da **ekonomia ingurumen aldetik jasangarriagoa** (ekonomia zirkularra, trantsizio energetikoa, etxebizitzen eta eraikinen birgaitze energetikoa) eta **erresilienteagoa** (mugikortasun-azpiegiturak zaintzea eta berriak sortzea, ur-baliabideak zaintzea) izan dadin eta **pertsonen ongizatea** ardaztzat har dezan (etxebizitza eskuratzeko aukera eta eraikuntza sustatzea, ospitale-azpiegiturak indartzea). Beraz, eraikuntza-sektorea ekonomiaren pizgarri da eta lurraldeko ekonomia eta enplegu-sorkuntza **sustatzen** ditu.

Gainera, hiri-eredu erresiliente eta jasangarriagorako trantsizio horretan, eraikuntza-sektorea funtsezkoa da gizartearen premiei erantzuten dieten azpiegiturak sortzeko, konponbide eraginkorrago eta ekologikoagoekin. Hona hemen froga: Euskadin birziklatzen diren hondakin guztien % 24 eraikuntzatik dator, eta digitalizazioak prozesuaren diru-kostua % 23 gutxitu dezake.

Lehiakortasuna

Euskadiko hiri-berroneratze osoaren balio-katearen lehiatzeko gaitasuna hobetzeko ekintzei dagokienez, lan-ardatz nagusi hauek azpimarratuko ditugu: Europako "Berrikuntza Olatua" eta Itun Berdea; eta Euskadiko Bultzatu 2050 Agenda, 2030 Agenda, Etxebizitzaren Gida Plana, KLIMA 2050 Estrategia eta IHOBEren Eraikuntza Jasangarriaren Gida.

Eraikinen birgaitzea eta hiri-berroneratzea arlo oso garrantzitsuak dira: energiaren eta irisgarritasunaren aldetik erronka handiak dituzte eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzen dute, osasuna eta erosotasuna zainduz.

Gainera, Euskadiko eraikinak oso zaharrak dira, batez beste 40 urte inguru baitituzte. Euskadiko etxebizitzen % 63 1980. urtea baino lehen eraiki zen (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan balio horiek % 54, % 68 eta % 62 dira, hurrenez hurren). (Iturria: KLIMA 2050). Beraz, eraikin horien fatxada eta estalkiek ez dute isolamendu termikorik, eta, 2050erako ezarritako helburuak betetzeko, eraikin askotan esku hartu beharko da.

Horrez gain, sektoreak badu beste erronka bat: **eraikinak deskarbonizatzea**. Gaur egun, Euskadin, eraikinek kontsumitzen dute energiaren % 30, eta CO_2 isurien % 16 eraikinei dagokie.

Eraikinak berritzeak energia berriztagarrien integrazioa bizkortu behar du, bereziki tokiko energia-iturriena, eta baita hondar-beroa gehiago erabiltzea bultzatu ere. Horrez gain, garraioa eta berotze- eta hozte-sistemak deskarbonizatzen laguntzen duten tokiko eta eskualdeko energia-sistemak integratu behar ditu.

Izan ere, etxebizitza-eraikinetan kontsumitzen den energiaren % 80 berotze- eta hozte-sistemei dagokie, eta ezinbestekoa da horiek deskarbonizatzea, iturri berriztagarrietako energia erabiliz, eraginkortasun energetikoa hobetuz, diseinu ekologikoko eta etiketatze energetikoko neurriak hartuz eta auzo-mailako konponbideak (*district heating and cooliving*) antolatuz.

Deskarbonizazioari loturik dago **ekonomia zirkularra**, bide egokia baita esku-hartzeetan sortutako hondakinak berreskuratu eta konponbide berritzaileen bitartez berriz ere prozesuan sartzeko.

Eraikinetan eta haien inguruetan baliabide ugari kontsumitzen da, ura eta lehengaiak, bereziki. Euskadin 940.000-2.100.000 tona hondakin sortzen dira eraikuntza- eta eraispen-lanetan, eta sektoreak 16.300.000 tona agregakin kontsumitzen ditu. (Iturria: IHOBE).

Ezinbestekoa da hiri-berroneratze osoari loturiko produktu eta prozesuen bizi-zikloa aztertzea eta zirkulartasuna hobetzea. Eraikinen aztarna gutxitzeko, funtsezkoa da baliabideak eraginkorki erabiltzea eta zirkulartasunaren aldeko apustua egitea. Horretarako, azpiegitura berdeak jartzea eta karbonoa gorde dezaketen eraikuntza-material organikoak (adibidez, jatorri jasangarriko egurra) erabiltzea sustatu beharra dago.

Teknologiari dagokionez, sektorea eraldatzea bultzatzen duten **konponbide teknologikoak** erabili beharko lirateke, lehiatzeko gaitasuna eta zerbitzuen kalitatea hobetzeko. Alde horretatik, sektorea hasi da konponbide teknologiko batzuk lantzen; adibidez: fabrikazio gehigarria, errealitate birtuala, 3D eskanerra, BIM metodologia, konektibitatea, eraikuntza adimentsua, datuen analitika, sentsoreak eta droneak.

Eraikune klusterraren iritziz, datozen urteetan eraikinek beharko dituzten esku-hartzeak gauzatzeko, **eraikuntza industrializatua** nahitaezkoa izango da; hori, epeak betetzeko, gizartearen premiei erantzuteko eta kalitatezko konponbideak eskaintzeko. Sektoreak, industrializazioari loturiko konponbideak landuz, Euskadiko enpresen lehiatzeko gaitasuna handituko du nola estatuan, hala Europan.

Negozio-eredu berriei esker ere, sektoreak lehiatzeko gaitasun handiagoa izango du; izan ere, teknologia eta energia berriztagarriak erabiliz, energia-kontsumoa gutxitu eta, beraz, eraginkortasun energetikoa handituko da. Berrikuntzaren olatuak, halaber, finantziazioa sustatuko du, mailegu eta hipoteka berdeen bidez. Eraginkortasun energetikoko ziurtagirien sistema hobetuz gero, bankuek eta gainerako finantza-erakundeek krediturak eta hipotekak eman ahal izango dituzte, zorroetan proiektu ekologikoak sartzeko, eta eraikinak multzokatu ahal izango dituzte, bonu bermatuak jaulkitzeko berme gisa.

Azkenik, **etxebizitzak birgaitzeko lanpostu kualifikatuak** sortuko direnez, sektoreak lehiatzeko gaitasun handiagoa izango du eta, gainera, ondarearen kontserbazioa, irisgarritasuna eta eraginkortasun energetikoa hobetuko dira. Eraikinetan inbertitzeak eraikuntzaren ekosistema eta hari loturiko ekonomia suspertu ditzake. Izan ere, eraikinak berritzeko obrek langile kualifikatuak behar dituzte, horniketa-katean enplegua eta inbertsioak sortzen dituzte, eraginkortasun energetiko handiko ekipoak behar dituzte eta esku-hartzeen ingurumen-inpaktua gutxituko duten konponbide zirkularrak beharko dituzte. Zenbatespenen arabera, EBko eraikuntza-sektorean 160.000 lanpostu berde sor daitezke 2030erako, berrikuntzaren olatuari loturik.

Gure iritziz, **trantsizio ekologiko eta digitala** gauzatzeko, nahitaezkoa da **hiriak osoki eta modu jasangarrian berroneratzeko** konponbideak bilatzea eta, horretarako, eraginkortasun energetikoa aintzat hartzea, eraikin eta auzoetan energia berriztagarriak erabiltzea, eta egiten diren proiektu eta ematen diren zerbitzuen balio-kateko prozesu guztietan konponbide digitalak ezartzea. Horiek horrela, Eraikuneren lan-arloetan, ikuspegi berritzaileko proiektu osoak lantzen ditugu, gizartearen premiei erantzuteko, eta, aldi berean, sektoreko balio-kate osoaren lehiatzeko gaitasuna hobetzen dugu, konponbide jasangarri eta digitalak garatuz eta ezarriz. Alde horretatik, ez dugu eraikuntza-lan bakartuetan jarduten, gure hiriak eraikitzeko eta eraldatzeko proiektu osoetan baizik. Horretarako, konponbide berritzaileak lantzen ditugu sektoreko erakundeekin, Eusko Jaurlaritzak martxan dituen laguntza-programetan, eta modu aktiboan parte hartzen dugu Bultzatu 2050 Agendaren inguruan antolatzen diren foroetan.

5.4 Gobernantza esparrua

Gaur egun, mundua gero eta konplexuagoa da eta gero eta interkonektatuagoa dago, eragile eta administrazio-maila anitzen ikuspegia gurutzatu egiten baita. Horiek horrela, gobernantza da hiri-garapen jasangarriaren beste zutabe nagusietako bat. Hori aztertzeko, mundu akademikoko ekarpen bat jaso dugu, Deustuko Unibertsitateko Deusto Cities katedraren zuzendari Roberto San Salvador del Vallerena, hain zuzen ere.

Deusto Cities LAB Deustuko Unibertsitateko Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatearen mendeko katedra bat da. Gaur egun globala zein tokikoa (ingelesez, glocal) den mundu honetan hiriek duten zereginaren gaineko hausnarketa du iturburu, eta hiri-garapen jasangarriaren paradigmak aztertzen ditu, hitz hauen esanahia zabaldu egin den honetan: **lurraldea, ingurumena, sozio-demografia, hezkuntza, politika, ekonomia, osasuna, aisia eta nortasuna**[3].

Ikuspegi hori oinarritzat hartuta, gobernantzaren eta garapen jasangarri oso eta integratuaren gainean Roberto San Salvadorrek egindako ekarpenek zeharkako eta sektorearteko hiri horiek zenbateko garrantzia duten adierazten dute.

Gobernantza eta garapen jasangarri oso eta integratua

Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agendaren aurrerapenei eta Agendak eragiten dion errealiteari buruzko txostena egitea aukera ona da gai kuantitatibo eta kualitatibo hauez hausnartzeko: ezarpen-egitura eta -prozesuak, lortutako emaitzak eta esku hartzen den hiri, lurralde eta komunitateetan erdietsitako eraldaketa-maila.

Testu honetan, ezarpen-prozesuetan jarriko dugu ardatza, Agendaren ezarpen-prozesuan gobernantza izaten ari den zereginean. Prozesu horietan, datozen urteetan indartu daitezkeen bi alderdi azpimarratu nahi ditugu, hiri, lurralde eta komunitateen garapen jasangarri, oso eta integratua bideratze aldera: zeharkakotasuna eta sektoreartekotasuna.

Zeharkakotasuna

Agenda martxan jartzeko eta garatzeko, gobernantza-eredu zeharkakoagoak beharko dira. Eredu horiek modu holistiko, oso eta bateratuan jorratu beharko dituzte hiri-garapenaren alderdi guztiak: ingurumena, ekonomia, gizartea eta kultura. Agendak mahaigaineratzen dituen erronkak ezin dira alde bakarretik, hau da, politika sektorial tradizionalen bitartez gainditu. Hartutako konpromisoen ondorioz, erronka anitzei aurre egin behar diegu: klima-aldaketa, kalteberatasun- eta desparekotasun-arrakalak, ekoizpen eta kontsumo arduratsua, kultura anitzen bizikidetasuna... Erronka horiei aurre egiteko, ingurumen-politika eta politika ekonomiko, sozial eta kulturalak ez dira nahikoa.

Hiri, lurralde eta komunitateetako ingurumen-garapenari begiratzen diogunean, hiriguneen eta hiri-ingurunen integrazio-mailan jartzen dugu arreta, baina baita bertan bizi diren pertsona eta taldeen integrazio-mailan ere. Hiri-diseinuaren kalitatea eta berotasuna hartzen ditugu aintzat. Lotzeko modu bateratu, orekatu, jasangarri eta adimentsuak ebaluatzen ditugu: lurraldearen plangintza, antolamendua, berroneratzea eta suspertzea; eremu irekiak, eraikinak eta etxebizitzak; energia-sare eta -sistemak; garraioa eta mugikortasuna; komunikazioa, sareak eta konektibitatea. Zeharkako gobernantzak hirigintza-prozesu kolaboratibo, moldagarri, erresiliente eta akupunturazkoak azpimarratzen ditugu.

Garapen ekonomikoa aztertzen dugunean, hiri, lurralde eta komunitate horien gainditzeko grina bilatzen dugu, beren erakargarritasuna eta magnetismoa indartzeko. Hurbilketa horrek kontzeptu hauekin du zerikusia: dibertsifikazioa, espezializazioa eta bikaintasuna; industrializazioa, zerbitzu aurreratuak, sormenaren eta ukigaitzen industria; lehiakortasuna, produktibitatea eta berrikuntza; kalitatezko lanpostuen sorrera; kooperatibismoa, gizarte-ekonomia, hurbileko ekonomia eta zaintzaren eta guztien ongiaren ekonomia; internazionalizazioa, hirien diplomazia, city branding eta posizionamendu globala; finantziazioa eta fiskalitatea. Zeharkako gobernantzak erronka pertsonal eta kolektiboak eta horiek gainditzeko ezinbesteko elkarlana nabarmentzen ditu.

Gizarte-garapenaz diharduguneau, haren muina da ardatza: pertsonak, hiritarrak. Arimarik gabe, ez dago hiri, lurralde edo komunitaterik. Eta arimak, urratuz gero, ez du bizirauten. Kohesioak hiria garatzeko hamaika ertz eta zoko aurkitzen ditu: genero-berdintasuna; haur, gazte eta adinduenganako atsegintasuna; irisgarritasun unibertsala; gizarte-inklusioa; pobreziaren eta bazterkeriaren kontrako borroka; eta enplegagarritasunaren sustapena. Zeharkako gobernantzak ez du nahikoa hiri, lurralde edo komunitatea kohesionatzearekin, kohesiboa eta berdintasuna eta justizia sustatzen aktiboa izan dadin tematzen da.

Kulturaren garapena azpimarratzen dugunean, balio-kodeei, memoriari eta ondareari, nortasunei, eta kulturen eta erlijioen arteko elkarrizketari begiratzen diogu. Talentua, sormena, irakaskuntza-ikaskuntza ereduak eta berrikuntza eta ekintzailetza sustatzeko mekanismoak aztertzen ditugu. Honako hauek aintzat hartzeko beharra sentitzen dugu: diseinua, aisia, arte eszenikoak, musika, ikusmen-arteak, arkitektura, hedabideak, publizitatea eta marketina, edizioa eta baliabide inprimatuak, hedabide eta eduki digitalak, hizkuntzaren industriak, moda, gastronomia, bideojokoak, olgeta, turismoa eta ondare kulturala, besteak beste. Zeharkako gobernantzak aberasten gaituen nahasketa disruptiboan sakontzen du.

Agendak zeharkakotasun gehiago behar du bere gobernantza- eta ezarpen-prozesuetan. Baliabideak (ura, airea, lurra, energia...) eta lekuak zentzuz eta arduraz erabiltzea ez da ingurumena gehiago edo gutxiago garatze kontua bakarrik. Zeharkako erronka bat da, hainbat alderdi dituena: batetik, ingurumena; eta bestetik, ekonomia, gizartea eta kultura. Halaber, aberastasuna sortzea eta banatzea, eta ekoizpen- eta kontsumo-eredu arduratsuak egituratzea ez da ekonomia-kontua bakarrik, ingurumen-, gizarte- eta kultura-arloko erantzunak eskatzen ditu. Kalteberatasun-arrakalak murrizte aldera gehiago kohesionatu beharrak gizarte-garapenaren mugak gainditzen ditu, konponbideek ekonomiarekin, kulturarekin eta ingurumenarekin ere badutelako zerikusia. Desberdinen arteko elkarrizketa eta bizikidetza sortzailea egi bihurtzeko, ez da nahikoa garapen kultural orekatua, ezinbestekoak dira garapen ekonomiko eta sozialak eta ingurumen-arloko proposamenak.

Agendak, hiri, lurralde eta komunitateen garapen jasangarria bideratuko badu, zeharkako gobernantzaren kultura zabal eta trinkoa barreiatu beharko du erakunde publikoetako atal eta sailetan, enpresa pribatuetan eta elkarte-sarean, garapen jasangarria osoagoa izan dadin.

Sektoreartekotasuna

Agenda martxan jartzeko prozesua interesgarria izan da, gizartea antolatu duelako, hau da, erakunde, enpresa eta elkarteek parte hartu dutelako.

Gobernantzan zenbat eta sektore gehiago engaiatu, instituzio, enpresa, gizarte-erakunde eta hiritarrek elkarlanean aritzeko orduan eta esparru zabalagoa dute, eta partekaturiko harreman-fluxuak identifikatzen dituzte. Sektoreartekotasunak buruzagitza-eredu kolaboratiboetan sakontzen du, eta eredu horiek, sektore bakoitzaren interes partikularretatik abiatuta, guztien ongian aurrera egiten dute (ahalik eta pertsona eta hiritar gehienen ongizatea eta ongi-izatea). Halaber, elkarlan horren oinarri diren balio demokratikoak sendotzen ditu.

Gaur egungo eta etorkizuneko hiri, lurralde eta komunitateak protagonista dira mundu bizkortu, berehalako, globalizatu eta etengabean. Talentua, ezagutza, garapena eta berrikuntza biltzen dituzten polo edo erakarguneak dira. Eraldaketa-palankak sustatzen dituzte. Baina, funtsean, instituzioak, enpresak, gizarte-erakundeak eta hiritar anonimoak inplikatzen dituzten gobernantza kolaboratiboko estiloak garatzen dituzte. Eta esperientzia partekatu eta konplizean sakontzen duten gobernantza-eredu demokratikoak eratzen dituzte.

Sektorearteko gobernantza abian jartzeko, ezinbestekoa da erakunde, enpresa eta elkarteetako eragileek eta hiritarrek prestakuntza nahikoa eta egokia izatea hiri, lurralde eta komunitateen garapen jasangarriaren inguruko erronkek eskatzen dituzten ezaupide, gaitasun eta balioetan. Izan ere, ezinbestekoa da ekologiaren, ekonomiaren, gizartearen eta kulturaren gaineko ezaupide eguneratuak izatea. Mundu bizkortu eta global honetan, funtsezkoa da gaitasun teknologiko, komunikatibo eta sozialak izatea. Eta baita gutxieneko balio komun batzuk babestea ere, hau da, kode etiko bateratu bat edukitzea, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko edukiekin eta gerora, adierazpen hori eskubide eta betebehar berriei egokitzeko, egin diren egokitzapenekin bat datorrena. Izan ere, hiritar anonimoak eta ardura instituzional, enpresarial eta asoziatiboa duten hiritarrak, trebatuz gero, ahaldundu egiten dira, erronkei hobeto erantzuteko gai dira.

3 https://www.deusto.es/es/inicio/somos-deusto/centros-universitarios/catedras/cities-lab-katedra

Sektorearteko gobernantza abian jartzeko, ezinbestekoa da erakunde, enpresa eta elkarteetako eragileek eta hiritarrek prestakuntza nahikoa eta egokia izatea hiri, lurralde eta komunitateen garapen jasangarriaren inguruko erronkek eskatzen dituzten ezaupide, gaitasun eta balioetan. Izan ere, ezinbestekoa da ekologiaren, ekonomiaren, gizartearen eta kulturaren gaineko ezaupide eguneratuak izatea. Mundu bizkortu eta global honetan, funtsezkoa da gaitasun teknologiko, komunikatibo eta sozialak izatea. Eta baita gutxieneko balio komun batzuk babestea ere, hau da, kode etiko bateratu bat edukitzea, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko edukiekin eta gerora, adierazpen hori eskubide eta betebehar berriei egokitzeko, egin diren egokitzapenekin bat datorrena. Trebatutako hiritar anonimoak eta ardura instituzional, enpresarial eta asoziatiboa duten hiritar trebatuak ahaldunduta daude, erronkei hobeto erantzuteko gai dira.

Gobernantza zeharkakoa izan dadin, ezinbestekoa da instituzio, enpresa eta gizarte-erakundeetako arduradunek eta hiritarrek informazio nahikoa edukitzea, datuak, adierazleak eta haien interpretazioak eskuratzeko gai izatea, bizi diren errealitatea behar adina ezagutu dezaten eta gardentasuna finkatzeko gutxieneko oinarri demokratikoa ezartzeko. Gaur egun, kalitatezko eta kualitatezko informaziorik gabe, gardentasunik gabe, ezinezkoa da demokrazia sendotzea.

Gainera, Agenda egoki moldatzeko eta ezartzeko, funtsezkoa da komunikazioaren pedagogia aktiboa. Ez da nahikoa instituzio, enpresa, gizarte-erakunde eta hiritarrei asmoa zein den azaltzea. Funtsean, entzuten jakitea da kontua. Sare sozial, presentzial eta birtualek norabide anitzekoak izan behar dute. Agendaren inguruan sortutako ekosistema berri horretako gobernantzak entzuteko, elkarrizketan aritzeko, eztabaidatzeko… aukera eman behar du. Hori guztia, konfiantza sortzeko helburuarekin: Agendarenganako eta hura sustatzen duten pertsonenganako konfiantza. Gardentasunari konfiantzazko eta legitimitatezko ekarpen garbiak gehitu behar zaizkio.

Hezkuntza unibertsalizatzeak, ikasteko eremu eta formatuak dibertsifikatzeak eta hiritarren kontzientzia prestatzeak prozesu demokratikoen gaitasunaren gaineko presioa handitzen du. Demokrazia eraikitzea dagoeneko ez da parlamentu, gobernu eta alderdi politikoen sistemen ardura soilik. Hiritar anonimoek, gizarte-erakundeek eta enpresek sorkuntza-, diseinu- eta ezarpen-prozesuetan gehiago parte hartzea eskatzen dute. Diseinuak elkarrekin sortzea ere funtsezkoa da Agenda gauzatzeko prozesuan, eta horrek zailtasun erantsi bat du: guztien ongizatea bilatzeko esku hartzen duten sektore guztietan erantzukidetasun sakona piztea.

Agendak oraindik bete ez duen erronka bat da esku hartzen duten pertsonengan (arduradun politikoak, administrazioetako teknikariak, enpresetako buruak, profesionalak, elkarteetako buruak, hiritar anonimoak) esperientzia benetako, gogoangarri eta garrantzitsuak eragitea. Hori, gehiago engaiatu daitezen, batetik, Agendan, orain eta gero; eta bestetik, hiri, lurralde eta komunitateen garapen jasangarrian.

Funtsean, Agendaren datozen urteetako aurrerapausoak neurtzeko kontuan hartu behar dira, gauzatutako ekintzez eta lortutako emaitzez gain, baita sortutako berrikuntza-prozesu eraldatzaile, zeharkako eta sektoreartekoak ere. Izan ere, prozesu horiek, epe ertain eta luzera, garapen jasangarri oso eta integratua lortzeko bidean izugarri lagunduko dute.

4.5 Ezagutza esparrua

Azkenik, Olatz Grijalbaren eta Rufino Hernándezen ekarpenak jaso ditugu. Biak ala biak Bizi Kalitatea Arkitekturan (BKA) ikerketa-taldeko kideak dira. Talde hori Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Arkitektura Saileko irakasle eta ikertzaileek osatzen dute.

BKA taldeak, hiri-eremua kudeatzeko eta bertan esku hartzeko modalitateei buruzko ikerketak bultzatzeaz gain (gaur egun, Hiriak Berroneratzeko Ikerketa eta Berrikuntza Zentroaren sorreran gauzatzen ari dira hori; aurrerago xehetasun gehiago emango ditugu), Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean[4] (ZTBP 2030) modu aktiboan parte hartzen du; zehazki, hiri jasangarrien arloan berrikuntza bultzatzeko CISO30[5] estrategia berrian.

Ezagutza transferitzea: hiriak eraldatzeko erronka

Zalantzarik gabe, Europako gaur egungo bizi-kalitatea munduko handienetako bat da; eta hori garrantzitsua da, herrialde eta biztanle askori eragiten dielako. Europar Batasunak bizi-kalitateari lotu dizkio, batetik, 2050. urterako klima-neutraltasuna gauzatzea, lehiakortasun-estrategia gisa; eta bestetik, Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH), Itun Berdearen bitartez (Green Deal).

Hori lortzeko, hiru trantsizio zehaztu dira: teknologiko-digitala, energetiko-klimatikoa eta soziosanitarioa. Eta hiru trantsizio horiek Hiri Agendako helburuekin bateratu beharko dira:

- Hirirako eskubidea erabiltzeko baldintzak ziurtatzea, trantsizio ekonomiko, sozial eta teknologikoaren eta ingurumen-trantsizioaren testuinguruan.
- Hiriak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izan daitezen lortzea, pertsona eta toki bat ere atzean utzi gabe.
- Hiri-eredu propioa aintzat hartzea.

Erronka horri erantzuteko ahalegin handia egin behar da; eta, hori gutxi balitz bezala, hasiera-hasieratik gertakari geopolitiko ugariren eragina izan du: *subprime* krisia, COVIDa, Ukrainako gerra, energia-krisia eta inflazioa. Horiek guztiek eragin handia izan dute erakundeen erabaki eta jardueretan. Ondorioz, esku-hartze esparrua nahasi egin da, eta zailagoa da jasangarritasunaren bi ardatz nagusi horiek, hau da, bizi-kalitatea eta klima-neutraltasuna, gauzatzea.

Horrez gain, ikerketarekin eta berrikuntzarekin zerikusia duten jardueretan, Europa ez da beste eragile global batzuk bezain eraginkorra. Izan ere, Europako ikerketen maila handia den arren, emaitzak nekez transferitzen dira gizartera eta ekonomiara, eta horrek lehiatzeko gaitasuna gutxitzen du.

ZTBP Euskadi 2020-2030 Planari atxiki gintzaizkion Hiri Jasangarrien arloan ZTPB dinamizatzeko eta ezartzeko Jarduera Planaren bitartez. Ordurako, auzokideen erkidegoei laguntzeko bulegoak sortuz hiriak berroneratzeko Opengela proiektua martxan zegoen. Ordudanik, proiektua eredu da bizi-kalitatea, eraginkortasun energetikoa, irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzeko proiektu eta jardueretan.

Egitura berri horien eraldatzeko gaitasun eta aukerak ikusirik, ikerketa-ildoak transferentzia berritzailera bideratzeko orduan, eredu hori hartu genuen aintzat. Izan ere, hiri jasangarrien arloko ikerketa-ekosistema zabala da, baina jardueren emaitza gehienak ez dira produktu eta zerbitzuak berritzeko erabili.

Ez dugu gertakari horien arrazoi eta konponbideen inguruan eztabaidatu nahi izan; ikertzaileen argotean “heriotzaren bailara” moduko bat dagoela esaten dugu, non askotariko arriskuek eragiten baitute. Gure erronka

4 https://www.euskadi.eus/pcti-2030/web01-a2pcti30/es/
5 https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/noticia/2021/el-consejo-vasco-ciencia-tecnologia-e-innovacion-aprueba-avances-primera-fase-lanzamiento-del-pcti-euskadi-2030/

zen, eta da, jardutea. Horregatik, hiru erronka ezarri eta lan-ildoei lotu genizkien:

- Auzo-bulegoek (gelek) laguntzeko duten gaitasuna indartzea, honako hauen bitartez:

  - Honako hauen inguruko ezaupideak eskaintzea: jarritako helburuak betetzeko eta Itun Berdeari loturiko beste gizarte-erronka batzuetara zabaltzeko balio duten sorkuntza kolaboratiboko metodologiak eta teknologiak.

  - Egoera bakoitzari egokitutako lan- eta kudeaketa-eredu espezifikoak zehaztea.

  - Adierazle-esparruak zehaztea, jarritako helburuak betetzen direla egiaztatzeko, ekintza zuzentzaile eta osagarriak proposatzeko, eta hiritarrek beren ingurunea eta, oro har, gizartea hobetzen parte har dezaten sustatzeko ezaupideak edukitzea.

  - Opengela ekosistema beste ekimen berritzaile batzuekin lotzea; adibidez, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren Bai I+G ekimenarekin.

- Hiri-berroneratzearen inguruko ikerketaren, berrikuntzaren eta transferentzia-mekanismoen egoeraren gaineko nazioarteko ildo prospektibo bat sortzea. Ez du zentzurik arrakasta egiaztatutako arloetan ikertzeak: eredu arrakastatsuen egokitzapen ebolutiboaren bitartez egin behar da aurrera. Horretarako, nazioarteko ikertzaile-sare bat sortu da, ezagutza, gaitasunak eta jarduteko aukerak partekatzeko.

- Erakundeen barruti-sareak sortzea (auzoak edo herri txikiak), ezaupide eta esperientziak hobeto transferitzeko eta Europako Itun Berdearekin zerikusia duten helburuak lortze aldera elkarrekin jarduteko.

2021. urtetik, berriz ere Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak eskaturik, **Hiriak Berroneratzeko Ikerketa eta Berrikuntza Zentroa** sortzen ari gara. Zentroaren helburua da benetako proiektuen bitartez ezaupideak transferitzea. Proiektu horiek prozesu partizipatiboen emaitza izan behar dute, non honako hauek parte hartu behar baitute: zentroak, nazioarteko ikerketa-sareak, Hiri Jasangarrien ZTBPko lantaldearekin harremanetan dauden erakunde sozioekonomikoak eta berroneratze-arloa ezagutzen duten eta horretan lan egiten duten erakunde eta hiritarrak. Aurreikuspenen arabera, lehen etapak lau urte iraungo du. Denbora horretan, esku-hartze esparruak zehaztuko dira, jarduera-proiektuak abiatuko dira Opengela proiektuari loturiko arlo guztietan, eta jarduerak sorkuntza kolaboratiboko prozesuekin gauzatzeko elkarlanerako bideak zehaztuko dira.

EHUko BKA ikerketa-taldea, Hiri Jasangarrien arloan ZTPB dinamizatzeko eta ezartzeko Jarduera Planean ez ezik, Europako oPENLab proiektuan parte hartzen ari da. Proiektu hori Europako Batzordeak azken H2020 deialdian aukeratutako hiru proiektu pilotu erakusgarrietako bat da; proiektu horien asmoa da energia-auzo positiboen bitartez 2050. urtean klima-neutraltasuna erdiestea. Proiektu horri esker, prozedura berritzaileen bitartez energia-balantze positiboa lortzeko teknologiak garatu eta aplikatzeaz gain (prozedura berritzaile horiek dira, adibidez, eraginkortasun energetikoa handitzea, energia berriztagarria sortzea, energia biltzea, mugikortasun elektrikoari lotzea...), proiektuari atxikitako hiri bakoitzean energia-komunitateak eta Living Lab bana sortuko dira.

Europako berrikuntza-proiektuek ezagutza transferitzeko asmo nabarmena izaten dute beti, lau arlok parte hartzen dutelako: administrazioek, enpresek, gizarteak eta akademiak. Horretarako, hainbat estatutako eragileek esku hartzea eskatzen dute eta zeharkako helburuak hartzen dituzte aintzat, gizartearekin, ingurumenarekin, kulturarekin eta abarrekin zerikusia dutenak. Proiektuaren asmoa da Living Lab iraunkorrak sortzea, berrikuntza transferitzea errazteko. Horretarako, proiektuarekin zerikusia duten arloetan deialdi irekiak egingo dira; arloak ugariak dira, 2050. urtean klima-neutraltasuna lortzeko erronkaren izaera dela eta.

Hiri jasangarrien arloan esku hartzen duten enpresa, administrazio eta eragileetan jarduten duten pertsonetatik, gutxi dira berrikuntza eraginkor eta arrisku gutxiagokoa bideratzen duten teknologia digitaletan gaituta daudenak, eta gutxirentzat da portaeren ezagutza transferentzia eraginkorraren oinarria. Eta gabezia hori da ezagutza transferitzeko gainditu beharreko erronka handienetako bat. Hirian gertatzen denarekin zerikusia duten profil teknologikodun pertsona asko behar dira. Gainera, gai izan behar dute hiritarrei eta hiriko azpiegituren funtzionamenduari eragiten dieten ekintzak aztertu, diseinatu, egikaritu, monitorizatu eta ebaluatzeko. Hori, eraginkorki lan egiteko, enpresek eta hirian jarduten duten gainerako eragileek beren portaerak aldatzeko.

Aldatzea eta, ondorioz, transferitzea gehien eragozten duen faktorea jarduerak sustatzen dituzten eragileen eskarien mugiezintasuna da. Einsteinen arabera, beti gauza bera egiten badugu, ezin dugu emaitza desberdinik espero; beraz, funtsezkoa da aldaketak gerta daitezen lan egitea. Ez dugu uste proiektu berritzaile bereziek horretan asko laguntzen dutenik; aitzitik, aldatzea eragozten dute, normalean konponbideak ez direlako eraginkorrak, kostu-mozkin ratioa txikia delako eta ohiko itxura dutelako. Egia da, ordea, teknologia guztiek pixkanaka egiten dutela aurrera, itxuraz ezin sumatuzko abiaduran, eta, lehia egiten dutenean, bizkorki. Bidea, beraz, ikuspegia eta erronkak ongi finkatzea da, gero helburuak, prozesuak eta faseak jartzeko, eta hurrengo faseetan ekintzak zehazteko.

Hiria jasangarri bihurtuko duten pertsonen prestakuntza-esparruari gure ekarpenak egiteko dihardugu lanean, enpresekin batera. Izan ere, profesional berri horiek hirien analisia, diseinua, eraikuntza, kudeaketa eta funtzionamendua uztartzeaz gain, gaitasun digital nabarmenak eduki behar dituzte. Alde horretatik, prestakuntza nazioartekoa izan dadin nahi dugu, ezaupideak eta esperientziak partekatu ahal izateko, eta lehen aipatutako proiektuak ekarpen benetan berritzaileekin hornitzea espero dugu.

Einsteinek zioen, halaber, “jenioek talentutik % 1 eta ahaleginetik % 99” dutela. Hala, % 99 hori landuz, gainerako % 1a aurkitzeko gai izatea espero dugu, jeinutasuna osatzeko.

05

Eranskina: Adierazleen fitxak

Adierazlea: Alokairuko parke publikoaren kuota, parke babestu osoaren aldean (%)			
Bultzatu 2050eko Lehentasun Estrategikoa	1. Etxebizitza duinaz eta oinarrizko ekipamenduez gozatzeko eskubidea bultzatzea	**Dagokion GJHa**	11 BAKEA, JUSTIZIA ETA ERAKUNDE SENDOAK

GJHko xede espezifikoa	NBEko adierazle baliokidea
11.1. Pertsona guztiek etxebizitza eta oinarrizko zerbitzu egoki eta seguruak arrazoizko prezioan eskura ditzaketela ziurtatzea eta auzo marjinalak hobetzea	E/D

Iturria / Esteka	Etxebizitzaren Gida Plana 2021-2023 eta Etxebizitza Politiken Ebaluazio Integralaren Txostena 2018-2020, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila
Deskribapena	**Alokairuko parke publikoaren kuota parke babestu osoaren aldean (%)**



Oinarrizko data	Datuak zenbatean behin biltzen diren	Azken helburua
2015	Urtean behin	2023rako HELBURUA: % 40 (Etxebizitzaren Gida Plana 2021-2023)
Beste elementu garrantzitsu batzuk	Adierazle hau egoki ari da aurrera egiten	

Adierazlea: Etxebizitza babestuen parkea eraginkorki kudeatzea – Etxebizitza duinaz gozatzeko eskubide subjektiboa aintzatestea

Bultzatu 2050eko Lehentasun Estrategikoa	1. Etxebizitza duinaz eta oinarrizko ekipamenduez gozatzeko eskubidea bultzatzea	Dagokion GJHa	11 BAKEA, JUSTIZIA ETA ERAKUNDE SENDOAK

GJHko xede espezifikoa	NBEko adierazle baliokidea
11.1. Pertsona guztiek etxebizitza eta oinarrizko zerbitzu egoki eta seguruak arrazoizko prezioan eskura ditzaketela ziurtatzea eta auzo marjinalak hobetzea	11.a.1. Honako baldintza hauek betetzen dituzten estatuko hiri-politikak edo eskualdeko garapen-planak dauzkaten herrialdeen kopurua: a) biztanleriaren dinamikari erantzuten diete, b) lurraldea modu orekatuan garatzea ziurtatzen dute eta c) tokiko zerga-marjina handitzen dute

Iturria / Esteka	Etxebizitzaren Gida Plana 2021-2023 eta Etxebizitza Politiken Ebaluazio Integralaren Txostena 2018-2020, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila
Deskribapena	3/2015 Legeak lehenbizikoz aintzatetsi zuen etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa, eta, ordudanik, aintzatespen-kopuruak gora egin du etengabe. Adierazle honetan, eskubide subjektibo horretaz gozatu ahal izateko aintzatetsitako eskariak hartu dira kontuan; zehazki, esleitutako etxebizitzak (edo esleitzeko prozesuan lehentasuna izan dutenak) edo etxebizitzarako emandako prestazio ekonomikoak

Etxebizitza duinaz gozatzeko eskubide subjektiboaren aintzatespena



Oinarrizko data	Datuak zenbatean behin biltzen diren	Azken helburua
2017	Urtean behin	2023an 12.000 (urteko kopuru metatua)
Beste elementu garrantzitsu batzuk	Adierazle honek aurrera egin beharra dauka	

Adierazlea: Etxebizitza babestuen parkea eraginkorki kudeatzea: BIZIGUNE programa

Bultzatu 2050eko Lehentasun Estrategikoa	1. Etxebizitza duinaz eta oinarrizko ekipamenduez gozatzeko eskubidea bultzatzea	Dagokion GJHa	11 BAKEA, JUSTIZIA ETA ERAKUNDE SENDOAK

GJHko xede espezifikoa	NBEko adierazle baliokidea
11.1. Pertsona guztiek etxebizitza eta oinarrizko zerbitzu egoki eta seguruak arrazoizko prezioan eskura ditzaketela ziurtatzea eta auzo marjinalak hobetzea	11.a.1. Honako baldintza hauek betetzen dituzten estatuko hiri-politikak edo eskualdeko garapen-planak dauzkaten herrialdeen kopurua: a) biztanleriaren dinamikari erantzuten diete, b) lurraldea modu orekatuan garatzea ziurtatzen dute eta c) tokiko zerga-marjina handitzen dute

Iturria / Esteka	Etxebizitzaren Gida Plana 2021-2023 eta Etxebizitza Politiken Ebaluazio Integralaren Txostena 2018-2020, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila
Deskribapena	Bizigune Etxebizitza Hutsen Programaren helburua hutsik dauden etxebizitzak aurkitzea eta alokairu babestua medio merkatuan jartzea da. Bildutako datuak Programari atxikitako etxebizitza guztien kopuruak dira (urte bakoitzaren amaieran metatutako urteko kopuruak)

BIZIGUNE programa



Oinarrizko data	Datuak zenbatean behin biltzen diren	Azken helburua
2015	Urtean behin	2023: Bizigune programaren alokairuko etxebizitza babestuen parkean abenduaren 31n 8.000 etxebizitza egotea
Beste elementu garrantzitsu batzuk	Adierazle hau egoki ari da aurrera egiten	

Adierazlea: Etxebizitza babestuen parkea eraginkorki kudeatzea: ASAP programa

Bultzatu 2050eko Lehentasun Estrategikoa	1. Etxebizitza duinaz eta oinarrizko ekipamenduez gozatzeko eskubidea bultzatzea	Dagokion GJHa	11 BAKEA, JUSTIZIA ETA ERAKUNDE SENDOAK

GJHko xede espezifikoa	NBEko adierazle baliokidea
11.1. Pertsona guztiek etxebizitza eta oinarrizko zerbitzu egoki eta seguruak arrazoizko prezioan eskura ditzaketela ziurtatzea eta auzo marjinalak hobetzea	11.a.1. Honako baldintza hauek betetzen dituzten estatuko hiri-politikak edo eskualdeko garapen-planak dauzkaten herrialdeen kopurua: a) biztanleriaren dinamikari erantzuten diete, b) lurraldea modu orekatuan garatzea ziurtatzen dute eta c) tokiko zerga-marjina handitzen dute

Iturria / Esteka	Etxebizitzaren Gida Plana 2021-2023 eta Etxebizitza Politiken Ebaluazio Integralaren Txostena 2018-2020, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila
Deskribapena	ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) programa 2019an sortu zen, merkatuko preziotik behera alokatzeko etxebizitza gehiago jartzeko helburuarekin. Biziguneren moduko programa bat da, baina ez da dirulaguntzarik ematen eta hartzaileek, diru-sarrera handiagoak eduki arren, merkatu librean etxebizitza eskuratzeko zailtasun asko dituzte
	Programa sortu berria denez, ez dago serie historiko sendorik. Nolanahi ere, Lehentasun Estrategikorako adierazle interesgarria da eta, gainera, Etxebizitzaren Gida Planean helburu jakin bat du

ASAP programa



Oinarrizko data	Datuak zenbatean behin biltzen diren	Azken helburua
2020	Urtean behin	2023: ASAP programaren alokairuko etxebizitza babestuen parkean abenduaren 31n 500 etxebizitza egotea (urteko kopuru metatua)
Beste elementu garrantzitsu batzuk	Adierazle honek aurrera egin beharra dauka sustancialmente	

Adierazlea: Etxebizitza babestuen parkea eraginkorki kudeatzea: Gaztelagun programa

Bultzatu 2050eko Lehentasun Estrategikoa	1. Etxebizitza duinaz eta oinarrizko ekipamenduez gozatzeko eskubidea bultzatzea	Dagokion GJHa	11 BAKEA, JUSTIZIA ETA ERAKUNDE SENDOAK

GJHko xede espezifikoa	NBEko adierazle baliokidea
11.1. Pertsona guztiek etxebizitza eta oinarrizko zerbitzu egoki eta seguruak arrazoizko prezioan eskura ditzaketela ziurtatzea eta auzo marjinalak hobetzea	11.a.1. Honako baldintza hauek betetzen dituzten estatuko hiri-politikak edo eskualdeko garapen-planak dauzkaten herrialdeen kopurua: a) biztanleriaren dinamikari erantzuten diete, b) lurraldea modu orekatuan garatzea ziurtatzen dute eta c) tokiko zerga-marjina handitzen dute

Iturria / Esteka	Etxebizitzaren Gida Plana 2021-2023 eta Etxebizitza Politiken Ebaluazio Integralaren Txostena 2018-2020, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila
Deskribapena	Adierazle honen helburua da gazteak etxebizitza alokatuz emantzipa daitezen bultzatzea. 2018ko EGPan ezarri zenez, lehenbiziko datuak 2020koak dira:
	GAZTELAGUN programa



Oinarrizko data	Datuak zenbatean behin biltzen diren	Azken helburua
2020	Urtean behin	2023rako helburua: programak 4.500 onuradun izatea
Beste elementu garrantzitsu batzuk	Adierazle hau egoki ari da aurrera egiten	

Adierazlea: Etxebizitza-programetako gastua

Bultzatu 2050eko Lehentasun Estrategikoa	1. Etxebizitza duinaz eta oinarrizko ekipamenduez gozatzeko eskubidea bultzatzea	Dagokion GJHa	11 BAKEA, JUSTIZIA ETA ERAKUNDE SENDOAK

GJHko xede espezifikoa	NBEko adierazle baliokidea
11.1. 2030erako, pertsona guztiek etxebizitza eta oinarrizko zerbitzu egoki eta seguruak arrazoizko prezioan eskura ditzaketela ziurtatzea eta auzo marjinalak hobetzea	11.a.1. Honako baldintza hauek betetzen dituzten estatuko hiri-politikak edo eskualdeko garapen-planak dauzkaten herrialdeen kopurua: a) biztanleriaren dinamikari erantzuten diete eta b) lurraldea modu orekatuan garatzea ziurtatzen dute

Iturria / Esteka	Eustat: EAEko gizarte-prestazioetako gastua, funtzioaren, sistemaren eta urtearen arabera (milaka euro eta adierazleak). 1995-2020 - https://eu.eustat.eus/elementos/ele0000400/ti_gasto-en-prestaciones-sociales-en-la-ca-de-euskadi-por-funciones-sistema-y-ano-miles-de-euros-e-indicadores-1995-2020/tbl0000411_e.html
Deskribapena	EAEko gizarte-prestazioetako gastua (guztira eta biztanleko), unitatearen, lurralde historikoaren, funtzioaren, motaren eta aldiaren arabera - Etxebizitzarako prestazioen datuak, Gizarte Babesaren Kontua
	Etxebizitza duinaz gozatzeko eskubide subjektiboaren aintzatespena



Oinarrizko data	Datuak zenbatean behin biltzen diren	Azken helburua
1995	Urtean behin	Ez
Beste elementu garrantzitsu batzuk		

Adierazlea: Etxebizitzarik ez duten pertsonentzako aurrekontua

Bultzatu 2050eko Lehentasun Estrategikoa	1. Etxebizitza duinaz eta oinarrizko ekipamenduez gozatzeko eskubidea bultzatzea	Dagokion GJHa	11 BAKEA, JUSTIZIA ETA ERAKUNDE SENDOAK

GJHko xede espezifikoa	NBEko adierazle baliokidea
11.1. 2030erako, pertsona guztiek etxebizitza eta oinarrizko zerbitzu egoki eta seguruak arrazoizko prezioan eskura ditzaketela ziurtatzea eta auzo marjinalak hobetzea	11.a.1. Honako baldintza hauek betetzen dituzten estatuko hiri-politikak edo eskualdeko garapen-planak dauzkaten herrialdeen kopurua: a) biztanleriaren dinamikari erantzuten diete eta b) lurraldea modu orekatuan garatzea ziurtatzen dute

Iturria / Esteka	Eustat: Etxerik gabeko pertsonentzako ostatua duten zentroetako gastua eta finantziazioa EAEn, lurralde historikoaren, zentroaren, finantzatzailearen eta aldiaren arabera
Deskribapena	EAE osoko datuak, honako hauek barne: ostatua duten zentroak, eskakizun gutxiko ostatu eta zentroak, eta ostatu kolektiboak eta etxebizitzak. Gastuak milaka eurotan.
	Etxerik gabeko pertsonentzako ostatua duten zentroetako gastua eta finantziazioa EAEn, aldika



Oinarrizko data	Datuak zenbatean behin biltzen diren	Azken helburua
2012	Bi urtean behin	No
Beste elementu garrantzitsu batzuk		

Adierazlea: Gabezia jakin batzuk dituzten etxeetan bizi diren pertsonen proportzioa

Bultzatu 2050eko Lehentasun Estrategikoa	1. Etxebizitza duinaz eta oinarrizko ekipamenduez gozatzeko eskubidea bultzatzea	Dagokion GJHa	11 BAKEA, JUSTIZIA ETA ERAKUNDE SENDOAK

GJHko xede espezifikoa	NBEko adierazle baliokidea
11.1. 2030erako, pertsona guztiek etxebizitza eta oinarrizko zerbitzu egoki eta seguruak arrazoizko prezioan eskura ditzaketela ziurtatzea eta auzo marjinalak hobetzea	11.1.1. Auzo marjinaletan, kokaleku informaletan edo etxebizitza desegokietan bizi diren hiriko biztanleen proportzioa

Iturria / Esteka	Eustat: Gabezia jakin batzuk dituzten etxeetan bizi diren pertsonen proportzioa. https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_11.1.1.1/ods2.html
Deskribapena	Etxebizitzan arazo hauek dituzten pertsonen proportzioa (%): itoginak; hezetasuna pareta, zoru, sabai edo zimenduetan; edo usteldura zoru edo leiho eta ateetako markoetan. Pobreziari eta gizarte-desparekotasunari buruzko galdeketa; Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila

Gabezia jakin batzuk dituzten etxeetan bizi diren pertsonen proportzioa



Oinarrizko data	Datuak zenbatean behin biltzen diren	Azken helburua
2008	Bi urtean behin	Ez
Beste elementu garrantzitsu batzuk		

Adierazlea: Etxebidek azken bost urteetan esleitutako babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) (biztanleen %)

Bultzatu 2050eko Lehentasun Estrategikoa	1. Etxebizitza duinaz eta oinarrizko ekipamenduez gozatzeko eskubidea bultzatzea	Dagokion GJHa	11 BAKEA, JUSTIZIA ETA ERAKUNDE SENDOAK

GJHko xede espezifikoa	NBEko adierazle baliokidea
11.1. 2030erako, pertsona guztiek etxebizitza eta oinarrizko zerbitzu egoki eta seguruak arrazoizko prezioan eskura ditzaketela ziurtatzea eta auzo marjinalak hobetzea	11.a.1. Honako baldintza hauek betetzen dituzten estatuko hiri-politikak edo eskualdeko garapen-planak dauzkaten herrialdeen kopurua: a) biztanleriaren dinamikari erantzuten diete eta b) lurraldea modu orekatuan garatzea ziurtatzen dute

Iturria / Esteka	Eusko Jaurlaritza; Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila - Gazteria - Jasangarritasunari buruzko udal-adierazleak. https://www.euskadi.eus/web01-a2gazter/eu/contenidos/estadistica/udalmap_indicador_108/eu_def/adjuntos/indicator.shtml
Deskribapena	**Etxebidek azken bost urteetan esleitutako etxebizitza babestuak (BOE) (biztanleen ‰)**



Oinarrizko data	Datuak zenbatean behin biltzen diren	Azken helburua
2015	Urtean behin	Ez
Beste elementu garrantzitsu batzuk		

Indicador: Consumo de energía en el sector residencial

Bultzatu 2050eko Lehentasun Estrategikoa	1. Etxebizitza duinaz eta oinarrizko ekipamenduez gozatzeko eskubidea bultzatzea	Dagokion GJHa	

GJHko xede espezifikoa	NBEko adierazle baliokidea
7.3. 2030erako, eraginkortasun energetikoaren munduko hobekuntza-tasa bikoiztea	E/D

Iturria / Esteka	Eustat: EAEko azken energia-kontsumoa sektoreka (Kptb). 2000-2020 https://eu.eustat.eus/elementos/ele0000300/ti_consumo-final-de-energia-de-la-ca-de-euskadi-por-sectores-ktep-2000-2020/tbl0000396_e.html
Deskribapena	EAEko azken energia-kontsumoa sektoreka (Kptb). 2000-2020. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila. Etxebizitzetako datuak

Etxebizitzetako energia-kontsumoa (Kptb)



Oinarrizko data	Datuak zenbatean behin biltzen diren	Azken helburua
2015	Urtean behin	
Beste elementu garrantzitsu batzuk		

Adierazlea: Lurreko garraio kolektiboko zerbitzu publikoetako joan-etorriak biztanleko

Bultzatu 2050eko Lehentasun Estrategikoa	2. Hirietan mugikortasun jasangarriaren alde egitea	Dagokion GJHa	

GJHko xede espezifikoa	NBEko adierazle baliokidea
11.2.1. Garraio publikoa eskura duten biztanleen proportzioa, sexuaren, adinaren eta desgaitasunak dituzten pertsonen arabera	E/D

Iturria / Esteka	Eustat: Lurreko garraio kolektiboko zerbitzu publikoetako joan-etorriak biztanleko. https://eu.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_11.2.1.Z/ods2.html
Deskribapena	Lurreko garraio kolektiboko zerbitzu publikoetako joan-etorriak biztanleko. Euskadiko Garraio Behatokia (EUSGABE); Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Pandemiagatik bat-batean behera egin duen arren, biztanleko joan-etorrien kopuruak gora egin zuen 2015etik 2019ra: 117,51tik 125,69ra, hain zuzen ere

Lurreko garraio kolektiboko zerbitzu publikoen joan-etorriak biztanleko



Oinarrizko data	Datuak zenbatean behin biltzen diren	Azken helburua
2015	Urtean behin	Ez
Beste elementu garrantzitsu batzuk		

Adierazlea: Trafiko-istripuek eragindako lesioen biktimak

Bultzatu 2050eko Lehentasun Estrategikoa	2. Hirietan mugikortasun jasangarriaren alde egitea	Dagokion GJHa	

GJHko xede espezifikoa	NBEko adierazle baliokidea
3.6. 2020rako, munduan trafiko-istripuek eragiten dituzten heriotza eta lesioak erdira jaistea	3.6.1. Trafiko-istripuek eragindako lesioengatiko heriotza-tasa

Iturria / Esteka	EUSTAT: Tasa de mortalidad por lesiones debidas a accidentes de tráfico https://www.eustat.eus/indicadores/temaseleccionado_3.6.1.1/ods2.html
Deskribapena	**Trafiko-istripuetako biktimak**



Deskribapena	Datuak hobeto alderatzeko, 100.000 biztanleko proportzioa ere jaso da		
	Zirkulazio-istripuek eragindako lesioengatiko heriotza-tasa		



Oinarrizko data	Datuak zenbatean behin biltzen diren	Azken helburua
2015	Urtean behin	Euskadiko Segurtasun Publikoko Plan Orokorrak (2025) 35 biktima baino gutxiago izatea du helburu
Beste elementu garrantzitsu batzuk	**GJH-EI BURUZKO EUROSTATEN URTEKO TXOSTENA:** Esteka honetan dago eskura. 2015etik 2020ra arteko Europako batezbestekoa % 5,5 (2015) eta % 5,1 (2020) artekoa da (100.000 biztanleko), eta Euskadi parametro horien azpitik dago. Hala ere, 2015eko datuei begiratuz gero (2030 Agenda urte hartan onartu zen), argi dago ez dela 3.6 helburua bete (ikus goian); izan ere, 2020rako ez da trafiko-istripuek eragindako heriotza- eta lesio-kopurua erdira jaitsi		
	Adierazle hau egoki ari da aurrera egiten		

Adierazlea: Oinezkoentzako azalera

Bultzatu 2050eko Lehentasun Estrategikoa	2. Hirietan mugikortasun jasangarriaren alde egitea	Dagokion GJHa	11 BAKEA, JUSTIZIA ETA ERAKUNDE SENDOAK

GJHko xede espezifikoa	NBEko adierazle baliokidea
11.7. 2030erako, biztanle guztiek berdegune eta eremu publiko seguru, inklusibo eta irisgarriak eskura izatea, batez ere emakumeek, haurrek, adinduek eta desgaitasunak dituzten pertsonek	11.7.1. Denek erabiltzeko eremu publiko irekietarako erabiltzen den hiriko azalera eraikiaren batez besteko proportzioa

Iturria / Esteka	Udalsarea 2030en Borondatezko 2. Jarraipen Txostena. http://www.udalsarea2030.eus/argitalpenak/euskal-udalerrien-ekarpena-garapen-jasangarriaren-helburuei-3
Deskribapena	**Oinezkoek erabiltzeko azalera** **Oinezkoentzako azaleraren %, udalerriko azalera osoaren aldean (informazio hori 19 udalerritan bakarrik dago eskura)**



Oinarrizko data	Datuak zenbatean behin biltzen diren	Azken helburua
2015	Urtean behin	Ez
Beste elementu garrantzitsu batzuk		

Adierazlea: Bizikleta-bideen sarea

Bultzatu 2050eko Lehentasun Estrategikoa	2. Hirietan mugikortasun jasangarriaren alde egitea	Dagokion GJHa	11 7

GJHko xede espezifikoa	NBEko adierazle baliokidea
11.2. 2030erako, garraio-sistema seguru, irisgarri eta jasangarriak jartzea denen eskura, arrazoizko prezioan	E/D

Iturria / Esteka	Udalsarea 2030en Borondatezko 2. Jarraipen Txostena. http://www.udalsarea2030.eus/argitalpenak/euskal-udalerrien-ekarpena-garapen-jasangarriaren-helburuei-3
Deskribapena	Bidegorrien edo bizikleta-bideen sarea (km/10.000 biztanle) (18 udalerritan dago eskura) **Bidegorrien edo bizikleta-bideen sarea (km/10.000 biztanle) (18 udalerri)**



Oinarrizko data	Datuak zenbatean behin biltzen diren	Azken helburua
2015	Urtean behin	Ez
Beste elementu garrantzitsu batzuk		

Adierazlea: EAEko garraio-sektorearen BEGen isuriak

Bultzatu 2050eko Lehentasun Estrategikoa	2. Hirietan mugikortasun jasangarriaren alde egitea	Dagokion GJHa	11 BAKEA, JUSTIZIA ETA ERAKUNDE SENDOAK

GJHko xede espezifikoa	NBEko adierazle baliokidea
11.2. 2030erako, garraio-sistema seguru, irisgarri eta jasangarriak jartzea denen eskura, arrazoizko prezioan	E/D

Iturria / Esteka	Iturria: Energiaren Euskal Erakundea (EEE)
Deskribapena	**1990. urteko datuekin egindako alderaketa**



Oinarrizko data	Datuak zenbatean behin biltzen diren	Azken helburua
2015	Urtean behin	2030: % 7 jaistea, 1990eko isuriekin alderatuta
Beste elementu garrantzitsu batzuk	Adierazle honek aurrera egin beharra dauka	

Adierazlea: Garraioan erabiltzen den energia berriztagarria

Bultzatu 2050eko Lehentasun Estrategikoa	2. Hirietan mugikortasun jasangarriaren alde egitea	Dagokion GJHa	11 BAKEA, JUSTIZIA ETA ERAKUNDE SENDOAK

GJHko xede espezifikoa	NBEko adierazle baliokidea
11.2. 2030erako, garraio-sistema seguru, irisgarri eta jasangarriak jartzea denen eskura, arrazoizko prezioan	E/D

Iturria / Esteka	Iturria: Energiaren Euskal Erakundea (EEE)
Deskribapena	Euskadiko garraio-sektorean erabiltzen den energia berriztagarria:
	Energia berriztagarrien erabilera garraioan



Oinarrizko data	Datuak zenbatean behin biltzen diren	Azken helburua
2015	Urtean behin	2030: Euskadiko garraio-sektorean erabiltzen den energiaren % 15 berriztagarria izatea
Beste elementu garrantzitsu batzuk	Adierazle honek aurrera egin beharra dauka	

Adierazlea: Garraioko energia-kontsumoa, azpisektoreen eta energia-motaren arabera

Bultzatu 2050eko Lehentasun Estrategikoa	2. Hirietan mugikortasun jasangarriaren alde egitea	Dagokion GJHa	11 BAKEA, JUSTIZIA ETA ERAKUNDE SENDOAK

GJHko xede espezifikoa	NBEko adierazle baliokidea
11.2. 2030erako, garraio-sistema seguru, irisgarri eta jasangarriak jartzea denen eskura, arrazoizko prezioan	E/D

Iturria / Esteka	Iturria: Energiaren Euskal Erakundea (EEE)
Deskribapena	**1990. urteko datuekin egindako alderaketa**



Oinarrizko data	Datuak zenbatean behin biltzen diren	Azken helburua
2015	Urtean behin	2030erako helburua: eraginkortasun energetikoa handitzea; zehazki, oinarrizko energia-aurrezpena 174 kptb izatea
Beste elementu garrantzitsu batzuk	Adierazle honek aurrera egin beharra dauka	

Adierazlea: Hiriko garraioa elektrifikatzea, ibilgailu elektrikoen parkea handitzea eta kargatzeko gune gehiago jartzea

Bultzatu 2050eko Lehentasun Estrategikoa	2. Hirietan mugikortasun jasangarriaren alde egitea	Dagokion GJHa	11 7

GJHko xede espezifikoa	NBEko adierazle baliokidea
11.2. 2030erako, garraio-sistema seguru, irisgarri eta jasangarriak jartzea denen eskura, arrazoizko prezioan	E/D

Iturria / Esteka	Iturria: Energiaren Euskal Erakundea (EEE)
Deskribapena	**Mugikortasun Elektrikoaren Euskal Estrategiak baditu bi helburu 2030erako: batetik, hiri-autobusen % 50 eta taxien % 80 elektrikoak izatea. Estrategiaren asmoa da, halaber, ibilgailuak bizkor kargatzeko guneak bikoiztea, hau da, 2030erako 50 kW-eko 80 gune jartzea (gaur egun 38 daude). Horrez gain, Energia Jasangarriaren Euskal Planaren arabera, Euskadiko ibilgailu elektrikoen parkea nahikoa handitu beharra dago: 2021ean 3.540 ibilgailu elektriko zeuden (parkearen % 0,25), eta asmoa da 2030ean 221.000 izatea (parkearen % 16).**

Adierazlea: Artifizializatutako lurzoruaren portzentajea

Bultzatu 2050eko Lehentasun Estrategikoa	3. Hiria antolatzeko eredu jasangarri berri bat	Dagokion GJHa	11 BAKEA, JUSTIZIA ETA ERAKUNDE SENDOAK

GJHko xede espezifikoa	NBEko adierazle baliokidea
11.3. 2030erako, herrialde guztietako giza kokalekuetan, hirigintza inklusibo eta jasangarria eta plangintza eta kudeaketa partizipatibo, integratu eta jasangarrirako gaitasuna handitzea	11.3.1. Lurren kontsumo-tasaren eta biztanleen hazkunde-tasaren arteko erlazioa

Iturria / Esteka	Eustat: Kalifikazioaren / artifizializazioaren bilakaera. EAE. https://eu.eustat.eus/elementos/ele0014100/ti_evolucion-calificacionartificializacion-ca-de-euskadi-hectareas-y--2006-2021/tbl0014152_e.html
Deskribapena	Kalifikazioaren / artifizializazioaren bilakaera. EAE (hektareak eta %). 2006-2021. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila – Artifizializatutako lurzoruaren % hektareako

Kalifikazioa / artifizializazioa bilakaera (lurren %)



Oinarrizko data	Datuak zenbatean behin biltzen diren	Azken helburua
2006	Urtean behin	Ez
